

 Auzolana, taldearen parte sentitzeko sistema

Amaia Agiriano psikologoari elkarriketa



BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIRA

Manex Agirre eta Peru Abarrategi aramaioarrak asteburuan hasiko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian izango dira; Abarrategi zapatuan, Getxon, hasierako saioan; domekan Arrasaten jokatu da txapelketako bigarren saioa / 56

Manex Agirre eta
Peru Abarrategi, Aramaion,
asteon ateratako argazkian.

XABIER URZELAI

**Bergaran egingo du
Euskal Herriko
Ikastolen Elkartek
ikasturte hasierako
ekitaldia, bihar** / 5

**Erreka Egunaren
hamargarren aldia
eskualdeko herri
guztietan egingo dute
urriaren 15ean** / 5



Araozko ostatu berria eguaztenean; gaurtik dago zabalik. OIHANA ELORZA

**Taberna, jatetxe eta lo leku izango
den Araozko ostatua zabaldu dute** / 52

**Sagardo Eguna
egingo dute domekan
Aramaion, herriko
sagardogileen uzta
plazara aterata** / 13

**AEDk ez du aurten
Oñati-Arrasate
lasterketa antolatuko,
ez delako
"lehentasuna"** / 55



**OÑATI-KO ETA ARETXABALETAKO
JAIEN GEHIGARRIAK** / 19 eta 37

SINADURAK

 ANAJE NARBAIZA / 6	 ARANTZAZU UGARTE / 53
 ANDER GARAY / 10	 ANDER ETXEBERRIA / 64

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Pil-pilean dago parke eoliko en gaia Euskal Herrian, eta baita Debagoiengan ere. Are, Statkraft enpresa norvegiarrak joan den astean iragarri zuen Itsaraz parke eolikoa eraikitzeak asmoa Eskoriatza eta Aramaio artean, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin batzartu ostean, eta badirudi ordutik gehiago harrotu direla bazterrak. Izan ere, enpresa eta talde politiko batzuen ustez, energia berri-erregien liderretako bat den konpainiaren proposamenak izan ditzake aldeak eskualdean eraiki nahi diren beste parkeen planekin alderatuta.

Fagor Taldeko iraunkortasun arduraduna da Aritz Otxandiano, eta, jakinarazi duenez, proiektua iragarri aurretik lehen hartu-eman izan zuten Statkraft enpresarekin. "Kontatu digute zein asmo duten, eta horretara mugatu da gure kontaktua. Azaldu dutenez, Debagoiengan parke bat egiteko asmoa dute, eta transmititu digute beraien borondatea parke hori lurraldearen eta bertako eragileen zerbitzura egoteko". Hori jakinda, proposamena "esploratzekoa" iruditu zitzaion, baina "modu kolektiboan, komunitatea bere osotasunean onuraduna izango den eran".

Izan ere, Otxandianoaren arabera, batetik, Fagor Taldeak 2030 Iraunkortasun Estrategia onartu zuen iaz, eta hor dauden asmo nagusienetako bi dira industria deskarbonizatzea eta energia kostua murriztea, eta, bestetik, Statkraften aukerak kolektiboki arakatzeko, "egokitzat" jo du Debagoiena 2030 markoan. "Udalak, gizarte eragileak, enpresak eta unibertsitateak

Parke eoliko enereduak, auzitan

Itsaraz parke eolikoaren proiektuak eman ditzakeen aukerak arakatzeko prest daude Fagor Taldea eta eskualdeko talde politikoak, ingurumen inpaktuak gogoan izanda



Statkraften parke eoliko enereduak herritarrek ere gogoan izango ditu. STATKRAFT

gaude, eta, zelanbait, sortu zen Debagoiengan iraunkortasunerantz egin behar duen trantsizioa sustatzeko". Beraz, zehaztu du plan honek horretarako aukera eskaini dezakeela.

Konparatuz gero, aldeak

Debagoiengan, ordea, Itsaraz ez da eraikitzeak asmoa dagoen parke eoliko bakarra, azken urtean beste bi proiektuen berri, behintzat, eman baitute enpresek eta administrazioek: Trekutz eta Karakate. Alabaina, era horretako egitasmoak proposamen berriarekin alderatu ditu Fagor Taldeko kideak. "Horietan ez bertako enpresek ez herritarrek ez dute inolako onurarik jasotzen, baina badituzte eragin negatiboak". Aldiz, uste du plan berri honek inpaktu negatiboak eragingo dituen arren lurraldean, onurak ere izango dituela: "Bizi dugun testuinguruan, larrialdi klimatikoarenean eta krisi energetikoarenean, aukera bat iruditzen zaigu".

Eta, hain justu, uste berekoa da Igone Lamarain EH Bilduko Gipuzkoako politika instituzionaleko arduraduna ere. Haren arabera, Statkraftek, enpresa

publiko bat izateaz gain, "eredu berri bat" jarri du mahai gainean: "Parke eoliko bakoitzaren eragina bere osotasunean neurtu behar da, energia berri-erregien ere inpaktu bat dutelako inguruan, baina oreka behar da". Kasu honetan, azpimarratu du enpresa norvegiarraren proposamena dela tokian toki ekoizten den energia lekuan bertan gelditzea. "Energia horren jabeak herritarrek, udalerrak eta enpresak izango lirateke. Energiarako sarbidea eskubidetzat ulertuz gero, energia bera ekoiztea demokratizatzen da, eta sozializatu".

Beste alderdi politiko batzuek ere euren iritzia eman dute. Mikel Lete EAJ Debagoienako burukidea da, eta azaldu du energia berri-erregien noranzkoan egin behar direla urratsak, erregai fosilekiko eta kanpoko energiarekiko dependentzia murrizteko, baina kontuan izanda proiektuek egungo ingurumen araudiak betetzen dituztela. "Statkraften kasuan, printzipioz, begi onez ikusten dugu, baina aztertu egin behar da energia horrekin zer egin nahi duten, noren eskuetan geldituko den...". Dena den, argi dute energia enereduak "hurbilekoa" izan behar duela, eta "bertakoentzat" sortua.

Sozialistek ere berri-erregien aldeko hautua egin dute, Aritz Murua Arrasateko PSE-EEko bozeramailearen arabera, kanpoko energiarekiko "menpekotasun handia" dagoela gaineratuta.

FAGORREN ETA TALDE POLITIKOEN USTEZ, EREDU BERRIAK HERRITARRENGAN ONURA IZAN DEZAKE



Realaren eta Vila-realaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Vila-real partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Urriaren 9an, domeka, 18:30ean. Parte hartzeko azken eguna: Urriak 3

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Beste alderdien eran, ingurumen balioak lehenetsita, parke eolikoan aldeko iritzia eman du, baina Itsarazi dagokionez, ez ei daukate informazio zehatzik. "Pozik egongo gara Eusko Jaurlaritzak eta enpresek euren ereduak zehatz-mehatz azalduko balizkigute, guk sinesten dugun trantsizio energetiko justuan irtenbideak eta ideiak emateko".

Juan Luis Merino Ezker Anitza-IU taldeko eskualdeko bozeramaileak ere esan du aztertu egin beharko litzatekeela proiektua; hala ere, garrantzitsua iruditzen zaio enpresa publiko batek horrelako proposamen bat egitea, baina ez kasu honen eran kanpotik etorritako batek, baizik eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako batek. "Hala ezean, konpainia horiek beti defendatuko dituzte beren interesak, ez gureak".

Are, Eva Abuin Podemos Arrasateko kideak salatu du gaur-gaurkoz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez dagoela lurraldeko plan sektorialik, eta, beraz, enpresek "mapa huts bat" dutela "okupatu" dezaten: "Kokalekuak aukeratzeko, aldagai bakar batean oinarritzen dira:

errentagarritasun ekonomikoa". Eta, Statkraften proposamenari begiratuta, uste du beste parke eolikoaren proiektuen eran, eragina izango duela paisaia eta biodibertsitatean. "Ikusi behar da nola zehazten den herriarrekin batera aztertu nahi duten eskema".

Bada, geroak esango du zer gertatzen den proposamenekin, orain artekoetan, behintzat, ez dagoelako informazio gehiagorik.

Beste proiektuak

Itsaraz parke eolikoaren kasuan, joan den astean Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak jakinarazi zuenez, ez zuten proiektuaren inguruko informaziorik, eta, beraz, gehiago jakitean baloratu beharko litzatekeela ea proposamena irisgarria den edo ez. Aramaioko Udal Gobernua, berriz, gaia aztertze-

UDALEK EZ DUTE TREKUTZEKO ETA KARAKATEKO PARKE EOLIKOEN PROIEKTUEN BERRI GEHIAGO

koa zen, baina ez dute ezer gehiagorik esan.

Trekutz parke eolikoari dagokionez, Cilda Energy SLU enpresak bi aerosorgailu instalatzeko eskaera egin du. Urretxu eta Antzuolari eragingo lieke, baina Beñardo Kortabarria alkateak jakinarazi du azken hilabeteotan ez dutela berri gehiagorik izan. Azkenekoz, proiektua gauzatuko balitz ingurumen inpaktuan gogoan izan beharreko puntuak zerrendatu zituzten, Jaurlaritzak eskatuta. Are, osoko bilkuran onartu ei zuten EH Bilduk eta EAJk, eta baita proiektuari ezezkoa eman ere. PSE-EEko kidea ez zegoen batzar batean ere, eta, beraz, ez zuen bozkatu.

Eta badirudi egoera ez dela oso ezberdina Karakateko parke eolikoan ere. Capital Energy enpresak ehun metrotik gorako bi haize errota jartzeko asmoa du, eta, proposamena da horiek garraiatzeko bidea Elosutik egitea. Hori gogoan izanda, Bergarako Udalak ingurumen azterketan kontuan hartu beharreko puntuak bidali zizkion Jaurlaritzari, baina jakinarazi du ez dakitela ezer gehiago.

Komunitate energetikoak aztergai

Energia berriztagarrien gaineko eztabaida nagusi den honetan, hainbat dira eskualdeko herrietan antolatzen ari diren egitasmoak, herritarrek esku artean izan ditzaketen aukerak arakatzeko. Atzo, esate baterako, komunitate energetikoei buruzko tailer bat egin zen Arrasaten, Energia Argitu programak antolatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte da egitasmoa, eta Garbiñe Olaberria da bertako koordinatzailea. Helburuetako bat da lurraldeko herritarren kultura energetikoa areagotzea eta energia gaitan herritarrak ahaldundzea. "Erreminta kutxa baten modura irudika dezakegu programa hau, gure egunerokotasunean egiten dugun energiaren erabileraren inguruan erabaki egokiak hartzeko tresnak eskaintzen ditugulako".

Elkarrekin aritzeko espazioa

Olaberriaren hitzetan, komunitate energetiko bat energia berriztagarria tokian bertan sortzeko eta partekatzeko antolatzen diren pertsonen eta erakundeen talde bat litzateke. "Trantsizio energetikoak behar-beharrezkoak dituen bi adar uztartzen dira komunitate hauetan: ekologikoa, energia berriztagarria sortu eta erabiliko dutelako, eta soziala, bidezkoa den trantsizioa bermatzeko". Are, uste du onura ekonomikoa ere ekarriko litzukeela, energia berriztagarria propio sortu eta autokontsumitu daitekeelako.

Dena den, azaldu du Gipuzkoan, behintzat, komunitate energetikoen proiektuak parke eolikoei baino gehiago, eguzki panelen instalazioari lotutakoak direla, baina berriztagarria den beste proiektu batzuekin ere egin daitekeela; adibidez, haize errotekin. Baina uste du kanpoko enpresak etorri baino, hobe dela bertan eta bertakoentzat ekoiztea.

BANAKETA BERRIAK ESTRA ASKOREKIN

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



**TERRAZA
PRIBATUAGOAK**
SERIE TIET DATOR LURZORU
ERRADIATZAILEA
ETXEBIZITZA BERRIETAN

BERGARA · www.lorentxoko.com

**Berriz
ere**

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Gure Lorentxoko maiteak berrasmatzen jarraitzen du eta Bergarako higiezin merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dizkizu.

Oraingoan, bereziki pertsonalizatuak, maiteminduko zaituzten xehetasun guztiekin eta, nola ez, GERE bermearekin.

Zatoz Lorentxokora oraindik eskuragarri dauden etxebizitzak berriak ezagutzera.

**IRAILEAN BAKARRIK,
trasteleku bat oparituko dizugu
prezio horretan!!**

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

E: comercial@grupoeibar.com
GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11
Email 1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**



Bi eragileetako ordezkariak, Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroan. MIGUEL ALTUNA

Ulma, Miguel Altunaren enpresa laguntzaile

Oñatiko kooperatibak eta Bergarako Lanbide Heziketako zentroak talentuaren kudeaketari lotutako hitzarmena sinatu dute, ikasleen prestakuntza eta enplegu aukerak hobetzeko. Prestakuntza-ikastaro espezializatuak ematea ere bada asmoa

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Ulmak eta Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute asteon, zeinetan hainbat konpromiso biltzen diren; besteak beste, Oñatiko kooperatibak bere gain hartuko du ikasleei ordaindutako praktikak eta gradu-amaierako lanak errazteko erantzukizuna. "Prestakuntza-ikastaro espezializatuak emateko asmoa ere badago, baita ikasleekin taldeko enpresen instalazioetara bisitak antolatzea ere", gehitu dute enpresa-taldetik.

Bestetik, Miguel Altuna Heziketa Zentroak jardunaldi bateratuak antolatzeko eta Ulma taldeko enpresetara bisitak egiteko konpromisoa hartu du, esaterako. "Taldeko enpresei

buruzko informazioa erakutsiko dugu gure hedabideetan, eta, une egokian, Ulmak eskainitako praktikei, gradu-amaierako lanei edo master-amaierako lanei buruzko informazioa emango diegu ikasleei", gehitu dute Miguel Altunatik.

Iñaki Gabilondo Ulma Taldeko zuzendari nagusiaren hitzetan, akordioak Ulmaren "ardura handi" bati erantzungo dio, "ikasleen eta etorkizuneko profesionalen prestakuntza hobetzeari", hain zuzen. Era berean, "ezinegon horrek zerikusia du talentua bilatzearekin, erakartzearekin eta atxikitzearekin". Bestalde, Joxu Aranek, Miguel Altuna Lanbide Heziketako zuzendariak, adierazi du akordioa sinatuta ziurtatu eta ofizial egin dutela Ulma Taldearekin duten

"harreman bikaina", adibide bezala aipatuta "azken hamar urteetako lankidetzaz estua, hala nola talentua erakartzerakoan edota langileen enplegarritasuna zein Ulma barruko enpresen proiektuetan ikasleek egingo dako ekarpenak hobetzerakoan". Harreman horren jarraipenarekin "elkarrekin haztea" espero dute, baita "Debagoienaren ongizateari laguntzea" ere.

Negozio-lerro ugari

Gaur egun, Ulma Taldeak berotegiak, orga jasotzaileak eta bridak, ontziratze sistemak, aldarmioak eta enkojatuak, erakuntzarako sistema aurrefabrikatuak, arrabolak eta giraladak, biltegi automatikoak eta produktu elektronikoak egiten eta aholkatzen dihardu.

EKINTZAILTZA GARAIA



Ulma Taldeko langile bat. GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA

Garaia parke teknologikoa, sareak eraiki eta sendotzen

Egungo mundu aldakorren aurrean, gizartearengandik gertu dauden ekosistema berritzaileak sortu behar dira

H.L. DEBAGOIENA

Xavier Ferrasek, ESADEko berrikuntzako irakasleak, "bizi dugun garai bitxiari" buruz idatzi du *La Vanguardia* hedabidean berriki. Garaia parke teknologikoko ordezkariak idatzi hartan aipatutako honako ideia hau azaldu dute: "Eredu zaharra bukatzeaz dagoen artean, eredu berriaren jaiotzaren zain gaude. Bi garai ezberdinen mugan gaudela dirudi, une historikoan".

Ebidentzia moduan, azkenaldiko finantza eta etxebizitza arloko burbuilaren krisialdia, COVID-19a eta Ukrainako inbasioak areagotutako energiaren krisia zerrendatu dituzte. Era berean, zikloak laburtzen eta krisialdien arteko tartea murrizten doazela diote, eta, Ferrasek esaten duena aintzat hartuta, etorkizuneko arazoei irteera emango dieten tresnak "zientzia eta teknologia" izango dira: "Energia arloko arazoei, industria garapenari edo nekazaritzara, ura eta beste erronka berriei zientziak eta teknologiak eskainiko dizkiegu irtenbideak".

"Gizartea onuradun"

Dena den, tresna zientifiko eta teknologikoen bitartez lantzen den ikerketa eta garapena ez da nahikoa irtenbidea aurkitzeko: "Ezinbestekoak dira arlo horietan lortzen denaren onura berrikuntzara lekualdatzea, enpresetara transferitzea, merkaturatzea eta gizarteari gerturatzea; gizarteak izan behar baitu horren onuradun eta azken

hartzaile". Izan ere, Europan eta Euskal Herrian "betidanik egin da lan txukuna" ikerketa eta garapen arloan, baina lorpen horiek merkaturatzean dago erronka handiena, Ferrasen iritziz. Garaiakoei argi dute berrikuntza ariketa konplexua baina beharrezkoa dela, ekin-tzailatzaren, teknologiaren eta merkatuaren eskaeren arteko oreka lortu eta mantentzeko: "Zientzia eta teknologia orokorrak baitira, baina berrikuntza tokikoa da, zero kilometrokoa". Eta berrikuntza bultzatzeko "ezinbestekoak" dira epe luzeko ikerketa eta garapen arloko apustu irmoa egiten duten enpresa eta unibertsitateak "sareak, elkarlanean aritzea eta loturak indartzea", dio Ferrasek.

Horretan dabilta Garaian: "Sareak eraiki, dinamizatu eta sendotzen; enpresa, unibertsitatea eta gizartea batzen; guztien behar eta erronkak entzun eta beraien arteko erlazioak errazten". Ekosistema gertu, berrikuntzaile eta sendoa eraikita, erraztasunak eman daitezke berrikuntzak non ikasi, ikertu, lan egin eta garatu finkatzerakoan: "Merkatutik gertu, gizartean murgilduta eta etorkizunari baikortasunez begiratuta".

"UNIBERTSITATEA, ENPRESA ETA GIZARTEA BATUTA, BERRIKUNTZAK ERRAZTU DAITEZKE"

EAJk Alderdi Eguna ospatuko du domekan Forondako kanpan

Hilaren 25erako, egun osoko egitaraua antolatu du Euzko Alderdi Jeltzaleak Arabako udalerrian. 11:15ean agintarien desfilea egingo dute eta 12:00etan ekitaldi politikoa. Bergarako EAJk txosna jarriko du bertan, eta autobusa ere antolatu du; 09:00etan irtengo da, Ibargaraitik, eta ize-na emateko batzokira -943 25 37 04- deitzea komeni da.

Saseta eta Monzon oroitzeko ekitaldia Seminarixoa

Kandido Saseta gudalburua hil zela 75 urte eta Telesforo Monzonek *Gudarien Eginak* olerki liburua idatzi zuela 85 urte betetzen direla-eta, Olaso Dorrea fundazioak poesia eta kantu ikuskizun irekia antolatu du hilaren 27rako, 19:00etan. Irati Jimenezek, Mikel Albisuk, Oihana Aranek, Edorta Jimenezek eta Garazi Barrenak gidatuko dute.

Hirugarren adineko lagunekin lan egiteko ekintzaileen deialdia

Debagoieneko Mankomunitateak, Servicios Sociales Integrados-ekin elkarlanean, programa bat aurkeztu du: *Ekin Silver Economy*. Helburua negozio bat martxan jarri nahi dutenei edota dagoeneko martxan daukateinei laguntza eskaintzea da. Urriaren 15era arte eman daiteke izena, 695 79 05 60ra deituta edo *Grupossi.es* webgunean.

Bergaran hasiko dute ikasturtea ikastolek

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak bihar egingo du, Seminarixoa, ikastolen 2022-2023ko ikasturtearen hasiera ekitaldia; antolatzaileek aurreratu dutenez, besteak beste, Aranzadi ikastolaren 50. urteurrena dela-eta aukeratu dute Bergara

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Ikasturte berriari hasiera emateko ospakizuna antolatzen du urtero Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak ikastola dagoen herri batean. 2022-2023ko ikasturtearen hasiera ekitaldia Bergaran egingo dute, bihar, goizeko hamai-
ketatik aurrera, Seminarixoa.

Antolatzaileek adierazi dutenez, Bergaran egitearen arrazoiak hainbat dira: "Euskal Herri osoan dauzkagu ikastolak eta urte bakoitzean lurralde ezberdin batean egiten dugu. Aurten, Gipuzkoan egitea egokitzen zen, eta Bergara aukeratzearen arrazoietakoa bat izan da Aranzadi ikastolaren 50. urteurrena".



Ikastolen Elkarte Koldo Tellitu lehendakaria, joan den urteko aurkezpena. I.E.

Alderdiak eta eragileak bertan

Gonbidatuen zerrenda itxi gabe badago ere, era guztietako gonbidatuak izango dira Seminarixoko ekitaldian. Alde batetik, Euskal Herriko ikastoletako zuzendaritzako eta artezkaritzako kideak bertaratuko dira. Beste alde batetik, Eusko Jaur-laritzako eta Aldundiko ordezkariak ere izango dira; baita Bergarako alkatea eta alderdi guztiak ere.

Era berean, alderdi politikoe-tako nahiz sindikatueta kideak eta hezkuntzako eragileak ere gonbidatu dituzte.

Ordubeteko ekitaldia

Ordubeteko saioa izango da. Bergarako alkate Gorka Artolak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek, Ikastolen Elkarte Koldo Tellituk eta Eusko Jaur-laritzako

**GORKA ARTOLAK,
AINTZANE OIARBIDEK,
KOLDO TELLITUK ETA
JOKIN BILDARRATZEK
HARTUKO DUTE HITZA**

ko Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek hartuko dute hitza, hurrenez hurren, ekitaldian zehar.

Aranzadi eta Iruñeko Jaso ikastoletako ikasleen emanaldiek izango dute lekua Seminarixoa. Bergarako ikasleek emango diote ospakizunari hasiera, dantza batekin. Bestalde, *Jaso* musika-
la ikastola horretako DBH-ko ikasleek parte hartzeko proiektu pedagogikoa da, eta *Sutan* musikaren zati txiki bat taularatuko dute. Jaso ikastolaren hamargarren obra da.



Joan den urteko Bergarako Erreka Eguneko parte-hartzaile batzuk. GOIENA

Erreka Egunaren hamargarren edizio bateratua Debagoienean

Bailarako herri guztietan egingo dute erreka garbiketa urriaren 15ean; herritar guztiek eman dezakete izena

I.A.A. DEBAGOIENA

Erreka Egunaren hamargarren aldia ospatuko da urriaren 15ean; oraingo honetan, ibaiaren garbiketa bateratua egingo dute Debagoieneko herri guztietan.

Auzolana bultzatzea du helburu egitasmoak, baina baita herritarrek ibaira begira jartzea ere. Bergarako Erreka Garbiketa Batzordeko kide Arianne Kareagak hauxe dio: "Errekari bizkarra emanda bizi izan gara aurreko hamarkada guztietan, zikinkeria eta kutsadura dela eta".

Aspaldiko nahia

2013an hasi ziren Bergaran egun hau antolatzen, nahiz eta beste herri batzuetan ere egin izan duten erreka garbiketa, baina ez egun berean. Kareagak azaldu duenez, "2013an, 2014an eta 2015ean egin ziren halako egun bateratua antolatzeko saiakerak. Beti pentsatu izan dugu Gatzaga

gan jaiotzen den Deba ibaia egun berean garbitu beharko litzatekeela herri guztietan".

Azkenean, hamargarren edizioa aitzakiatzat hartuta, lortu dute bailarako herriak elkartzea. Kareagak adierazi du herri bakoitzeko erreka zatiaren izarearen arabera garbituko dutela, kontuan izan behar baita erreka-
kara jaistea irisgarria den ala ez. Halaber, hainbat eragile elkartu dira eta herri guztietako udalen laguntza izan dute.

Izen-ematea

Egitarau propioa izango dute udalerriek, eta, ondorioz, izena eman beharko da. Adin guztietako herritarrek daude gonbidatuta parte hartzera. Datorren astean zabalduko da egitasmoan izena emateko epea.

Goienak Erreka Egunaren jarraipen zabala egin, eta eduki bereziak sortuko ditu.





ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Gizarte laikoa ete?

Gizarte laiko batean bizi ete gara? Ez dakit, ba, zenbateraino den laikoa; izan be, gure jaiegun gehixenak erlijio katolikoak dittuen santuei edo gertakizunei lotuta dare: sanmigelak, sanjuanak, sanpedruak, sanmartinak, pentekostiak, santagedak... Baserritarrek be ondo baino hobeto ezagutzen dabe santutegi katoliko guztia, horren arabera ereitten dittuztelako haziak eta uzta jasotzen dabelako, baitta fruta heltzen den sasoiari jasotakoei izena emoteko: sanjuan sagarra, santiago sagarrak, sanbartolome okarana...

Baina gizartean hainbat ospakizun antolatzen dittugu erlijioarekin zerikusia dabenak; hauek ez dira inposatzen doskuelako, ez, guk halaxe programatzen dittugulako baino. Sekula ez dot ulertu zergatik futboleko Athletixa doian Begoñako Amarengana, Reala Arantzazuko Amarengana, Alaves... Osasuna... Eibar... ez dakit nongo

GIZARTEKO BESTE EDOZEIN GAIRI LOTUTA MAKINA BAT OSPAKIZUN ANTOLATU DITZAKEGU


amarengana hurrengo denboraldietako helburuak bete daittezelako eskatzera. Beraz, oinddio gure pentsamenduan erlijioa dogu sustengatzailea. Gaur egun medioak gure pentsamendua etengabe

moldatzen dabenean eta euren intereseko gaietan berbetan jartzen gaittuztenean, estimatzekoa litzateke futbol elkarteak horrelako programazioetan gure kulturari galtzear dauden ospakizunak planteatzea, euren hurrengo denboraldiko helburuak zabaltzeko. Edo helburu berdinarekin gizarteak dituen premiak bistartzeko erabiltzea; kamiseta berriak aurkezteko eskolak edo ospitale publikoak erabiltzea; askotan, imajinazio kontua da: betik berdina egin beharrean, aldatu eta gizarteari sorpresa txikiak eskaintzea.

Aurten lehen aldiz, Elkanoren mundu bira dela-eta, santu bati lekua kendu eta jaia ospatu dugu; egin dena ondo dago, baina euskal kulturari, euskarari, naturari, itsasoari edo... gizarteko beste edozein gairi lotuta makina bat ospakizun antolatu ditzakegu, pittinka gizarteko pentsamendua laikitzeko helburuarekin.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Olaitturri: agur eta eskerrik asko

IÑAXIO IRIZAR
OLAITTURRI KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN
OÑATI

Aurten ez da jaietan Olaitturriren antzerki herrikoirik izango.

Bertako 33 kidek agur bazkaria egingo dugu San Migel egunean, gebaratar konde jaunarena izandako Zumeltzegi dorretxeko jatetxean.

Interneten ikus daitekeen bezala (<https://olaitturri.blogspot.com>), musika eta testua uztartuz 1977an hasi ginen antzerki emanaldiak egiten Oñatiko jaietan.

Herri Egunean izan zen lehena: *Herri ezteia*, hain zuzen ere.

Harrezkero, hamaika antzezlan egin ditugu; azkena, iazko Gabonetan: *Lope Agirreren estatua*.

Eta antzezlanok egiteko, ehunka entsegu egon dira tartean, eta baita milaka eta milaka ordu testuak idazten eta buruz ikasten ere.

Testuok, emanaldien argazkiak eta bideoak Interneten daude denen eskura. Eta baita argitaratu diren sei liburuetan.

Agur pozgarria da Olaitturri Kultur Elkarteak kideontzat.

Saiatu gara geure ekarpena egiten Oñatiko historiari,

kulturari, euskarari eta herrigintzari, beti musu-truk, eta heldu zaigu erretiro garaia.

Amaitzeko, ezin ahaztu bidean joan zaizkigun adiskideak. Guztiok bezala, ilusioz aritu zirelako.

Eta ezinbestekoa zaigu lagundu diguten denei eskerrak ematea:

- Hainbat herritarri, askori, isilean lagundu digutelako premia izan dugunean.

- Udalari, diruz eta baliabidez lagundu digulako era ezin hobean.

- Medioei, beti aldamenean izan ditugulako lanen zabalkundean laguntzeko.

Denoi agur eta eskerrik asko.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udalak



Bergarako Udalak



Oñatiko Udalak



Aretxabaletako Udalak



Eskoriatzako Udalak



Antzuolako Udalak



Aramaioko Udalak



Elgetako Udalak



Leintz Gatzagako Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Berritzailea, masiboa eta eraginkorra da Euskaraldia"

GOIATZ URKIJÓ CASTAÑARES EUSKARALDIAREN KOORDINATZAILEA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE
Zortzi aste besterik ez da falta Euskaraldia hasteko. Entitateen izen-ematea zabalik da maiatza ezker, eta eguaztenean, hilak 28, zabalduko da norbanakoena. Goiatz Urkijo Castañares da (Laudio, 1994) Euskaraldiaren koordinatzailea.

Zure ustez, nola dator Euskaraldiaren hirugarren edizioa?
Gogotsu datorrela esango nuke. Uste dut jendeak nahi duela Euskaraldian parte hartu, eta, gainera, behar dugula parte hartu. Aurreko edizioa pandemia bete-betean egin genuen. Ondo baloratu zen egin izana, euskara agenda sozialean eta politikoan sartu zelako, baina ariketa bera egiteko zailtasunak izan genituen, eta uste dugu une oso onean datorrela hirugarren edizio hau. Ikusgarria izan zen Korrikari udaberrian egindako harrera eta espero dugu bide horretatik mantenduko dela



Goiatz Urkijo Castañares. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Euskaraldian parte hartzeko gogoia.

Udazken bete-betea dugu aurretik. Zeintzuk izango dira hurrengo mugarri nagusiak?
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dugu Euskaraldia,

baina aurretik izen-emateak, prestakuntzak, kale ekintzak... egongo dira. Euskaraldiaren motorra diren herrietako batzordeak martxan dira. Batzuk uda aurretik hasi ziren lanean, eta

uda ostean berrekin diote lanari. Beste kasu batzuetan, oraintxe sortu dira batzordeak, eta martxa hartzen ari dira. Uneotan, entitateen lanketarekin dabilta, gehienbat. Norbanakoen izen-ematea hurrengo astean zabalduko dugu, hilaren 28an. Irekiera ekitaldia egingo dugu Bilboko Kafe Antzokian, 19:00etan. Orduan erabaki beharko dugu *ahobizi* edo *belarriprest* izan nahi dugun.

Euskaraldia ariketa guztiz berritzailea da, eta balio du hizkuntza ohiturak aldatzeko, ezta?
Berritzailea da ez delako beste inon egin, eta aurreko bi edizioetako ikerketek erakutsi digute tresna eraginkorra dela hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskarara gehiago hurbiltzeko. Nabarmenduko nuke, baita ere, ariketa oso masiboa dela, eta elkarlanean egindakoa. Ezaugarri oso bereziak dira horiek ere, eta berezi egiten dute Euskaraldia. Dena den, hau hasi besterik ez da egin. Hirugarren edizioa egitera goaz eta oraindik ere pedagogia sozial handia egin behar da; jendeak argi izan behar du zer den *ahobizi* edo *belarriprest* izatea eta abar. Horregatik nahi dugu jarri

aurten kutsu kualitatibo hori; jendeak adierazi dezala zertan eragin dion Euskaraldiak, ze lorpen egin dituen Euskaraldiari esker, eta aurten ze erronka dituen.

Hitzez ekiteko ekitaldiei buruz ari zara, ezta?
Hori da. Interesgarria izango da ikustea jendeak ze lorpen egin dituen Euskaraldiari esker, eta ze erronka markatu dituen edizio berrirako. Esaterako: "Nik lortu dut nire okinarekin euskaraz egitea Euskaraldiari esker *belarriprest* txapa ikusi niolako, eta ez nekielako euskara ulertzen zuenik".

Debagoieneko herri guztietan daude martxan Euskaraldia batzordeak. Zer esango zenieke bertan diharduten boluntarioei?
Lehenengo eta behin, animo handia bidaliko nieke, udazken bete-betea dugulako. Entreenigarria eta polita izango da, baina baita neketsua ere, hainbat arrazoiengatik. Uste dut denon parte hartzearekin eta behin lanak eginda aho-zapore gozoa geldituko zaigula denoi. Eta, batez ere, emango nizkieke eskerrak. Beti esaten dugu herri batzordeak direla Euskaraldiaren benetako motorra. Argi dugu milaka boluntario horiek gabe ez legokeela Euskaraldirik.

ITURRI ONETIK

Gomiztegi Artzain Eskolak, 25 urte

Gomiztegi Euskal Herriko Artzain Eskolak 25 urte betetzen ditu eta modu berezian ospatu gura du urteurrena. ArantzazuLab-en egingo dute ospakizun jai ekitaldia, "urri amaieran". Besteak beste, Jaurlaritzako, foru aldundietako eta udaletako ordezkariekin. Lehendakaria ere han izatea da asmoa. Oñatin, Arantzazutik gertu, dago kokatuta Gomiztegi baserria. Artzain Eskola izateaz gain, beste hainbat jarduera egiten ditu, hala nola artaldearen zainketa, artisau gaztagintza eta bisita gidatuak.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2010-09-18

Autoen motorrak sutan 22 urteren ostean Gatzagan

Leintz Gatzagako kamino zaharra auto lasterketen topagune bihurtu zen 2010ean. 22 urte ziren halakorik antolatzen ez zutela, eta, horregatik, ikusmin handia sortu zuen lasterketak, errepide bazterrak jendez bete ziren. Aitor Zabaleta bergararra izan zen azkarrena, 56 auto gidariren artean -12 debagoiendarrak-, eta Angela Vilariño eta Pantxo Egozkue bigarren eta hirugarren. Motor hotsa berriro Gatzagako aldapetan.

HAU BE BADOGU!

Euskara maila? "Zero", dio Nico Williamsek

Euskara han eta hemen: Euskaraldia, epaile batek esan du udaltzainek ez dutela euskarazko B2 maila behar, Nico Williams futbolariak euskaraz ez dakiela esan eta barre egin izana...

@ideiazabaldub "Euskaraz hitz-erdirik ez dakiela onartzea nahiko negargarria/lotsagarria da, baina ze futbolari ona den...".

@ainaralei "Futbolari gisa gaizki badoakio, udaltzain sartu daiteke".

@musikatzten "Euskara youtube, tiktok, instagram, netflix ta horiek salbatu dezakete. Bere garaian EITBk bezala".

Proba modura, noranzko bakarria proposatu dute

Trafikoan aldaketa bat egin eta Nafarroa etorbidea eta Zerrajera kalea noranzko bakarrekoak izateko eskatu dio EH Bilduk Udal Gobernuari; "Iberdrolaren lanek iraun bitartean hala egon da, eta ikusi dugu eraginkorra dela eta hainbat onura dakartzala"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hiru aste iraun dute Nafarroa etorbideko lanek, eta, EH Bilduren esanetan, onura nabarmenak eragin ditu trafikoa egokitu izanak. "Gainera, hainbat bizilagunek ere esan digute asko nabaritu dutela aldaketa. Askoz ere auto gutxiago ibili da, eta, ondorioz zarata gutxiago egon da", adierazi du Maider Morrasede.

Hori dela eta, "eragin horiek denbora luzeagoan neurtu ahal izateko", probaldi bat eskatu dio EH Bilduk Udal Gobernuari. Oposizioa indar politikoa sinetsita dago askotariko onurak izango lituzkeela bi kaleetan trafikoa noranzko bakarrekoak izateak. Batetik, CO2 eta soinu kutsadura gutxitu egingo litzateke. Bestetik, oinezkoendako eta bizikletendako espazioa irabaziko litzateke; halaber, Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturola martxan jartzen direnean egongo den mugimendu handia kontuan izanik, segurtasuna irabaziko litzateke eta aparkaleku kopurua ere handitu egingo litzateke bi kaleetan". Izan ere, gaur egun errete batek hartzen duen espazioa irabaziko litzateke.

Trafikoa zirkularra litzateke

Trafikoa modu horretan egokituz, Debagoieneko Mankomunitate ondoko biribilgunetik Kontzezinoko biribilguneraino noranzko bakarria izango luke Nafarroa etorbideak, eta baita Zerrajera kaleak ere, Etxaluzetik Aprendices kaleraino. Era berean, Maiatzaren Bata plazatik Kontzezinoko biribilgunera bi noranzko mantenduko litzateke.

Autobus geltokiei dagokienez, obrek iraun dutenean moduan egongo lirateke. Hau da, Aretxabaletarako noranzkoan, Roneo etxebizitzaren ondoan eta Bergararako eta Oñatirako noranzkoan, Etxaluze eraikinaren



Kepa Urteaga eta Maider Morras, Nafarroa etorbidean. E.A.

HILABETEKO PROBALDIA EGITEA GURA DU EH BILDUK, ETA GERO BIZILAGUNEI GALDETZEA

ondoan, Zerrajera kalean. "Hori bai, apur bat atondu egin behar izango litzateke geltoki hori", gaineratu du Morrasede.

Bidegorri sarea osatzea

Bide batez, aldaketa horrek bidegorri sare osoaren diseinua erraztuko lukeela uste du EH Bilduk. Beraz, eremu horretan sarea osatzea ere eskatu du. Hau da, egun erreka ondoan dagoen pasealekua egokitu eta, oinezkoendako bidez gain, bidegorri zati bat ere egin gurako lukete, eta Etxe Txikietatik proiektatuta dagoen zatiarekin lotu, ondoren Kulturola azpitik Zerrajera kalera doanarekin bat egiteko.

Hasiera batean, probaldia

Probaldi bat egitea da EH Bilduren eskaera, aldaketak izango lituzkeen eraginak aztertu eta bizilagunen iritzia kontuan

hartu ostean, mantendu edo ez erabakitzeke. "Hilabeteko simulazio bat izango litzateke, eta, probaldi horren ostean, herriari galdetuko genioke, batez ere, bizilagunei, jakiteko aldaketa nola ikusi duten eta benetan aldaketa egitea gura duten edo ez".

Ibilgailu asko dituen etorbidea

Garibai etorbidea oinezkoendako denetik Nafarroa etorbideak sekulako trafikoa jasaten duela azaldu du Kepa Urteaga EH Bilduko zinegotziak. "Bizilagunek kontuak aterata dituzte, eta, esaterako, egunean ia 500 autobus pasatzen dira Nafarroa etorbideetik". Hori dela eta, eremua berrantolatu egin behar dela uste dute. "Gainera, probaldia gura denean egin daitekeen zerbait da, ez du eskatzen baliabide berezirik".

Ezker Anitzaren eskaera

Ezker Anitzak Udal Gobernuari eskatu dio mugikortasun arloan dituen gabeziak konpon ditzala, "bidegorri sarea osatuz", besteak beste. Halaber, bizikleten mailegu zerbitzu bat martxan jartzea ere proposatu du.

Lore eskaintza, Arizmendiarrieta plazako monolitoan, etzidamu

Irailaren 26an, 86. urteurrenean, lore eskaintza egingo diete frankismoaren biktimei, 18:30ean hasita

E.A. ARRASATE

Irailaren 26an, 86 urte beteko dira tropa frankistak Arrasaten sartu zirenetik, eta, urtero moduan, Arrasateko Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek lore eskaintza egingo diete biktimei. Arizmendiarrieta plazako monolitoan izango da ekitaldia, 18:30ean hasita.

Bestalde, *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956, Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa* liburuaren bigarren argitalpena aurkeztuko dute, 19:00etan, Etxaluzen.

2017ko irailean, Arrasateko Udalean ordezkartza politikoa duten alderdi guztiek osatutako Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiak Intxorta 1937 Kultur Elkarteari agindu zion 1936-1956 aldian udalerrian gertatutakoari buruzko memoria bat egiteko: *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956, Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa*.

Orain, testigantza berriak batu dituzte bigarren argitalpenean eta horren berri emango dute Etxaluzeko saioan. Liburua lortzeko aukera ere egongo da.



ARRASATEKO UDALA

Parkour parkea, erabilgarri

Arrasatek haurrentzako parke berriekin hasi du ikasturtea; izan ere, Uribe auzokoa (*Kaleidoskopioa*) eta Legarra plazakoa (*Erdi Aroko Hiria*) eraberritu egin ditu Udalak. Era berean, Obenerrekako parkour-gune berria ere erabilgarri dago. Azkenik, Zerrajerako haur parkea berritzeko botoa eman daiteke, irailaren 30era arte, Arrasate.eus webgunean.

Adostasunetik gertu daude udal lorezainak eta Prezero enpresa

Lorezainek greban jarraitzen dute oraindik, baina aste honetan aurrerapauso handiak izan dira gatazkan. Izan ere, negoziazio mahai bat osatu dute hiru aldeek: lorezainek, Prezero enpresak eta Udalak. Aldizkari honen itxieran, adostasunetik gertu zeuden hiru aldeak eta datozen egunetan akordioa lortzeko moduan egongo lirateke.

Ekin Emakumeen eskutik lau ikastaro eta 'coaching' tailerra

Lau ikastaro –joskintza, ilustrazioa, yin taoa eta yogaterapia– eta zaldiekin *coaching* tailerra antolatu ditu Ekin Emakumeak Elkartek. Jardueretan izena emateko, idatzi emakumeak@ekinmakumeak.eus helbidera edo deitu 943 79 83 70 edo 651 70 79 36ra. Tailer bakoitzaren informazio osatua ekinmakumeak.eus atarian kontsulta daiteke.

Irailaren 28an, 'Ahobizi' eta 'Belarriprest' kalera

Eguenean irekiko dute Euskaraldiko izen-ematea norbanakoentzat. Ekitaldi orokorra Bilboko Kafe Antzokian egingo dute, 19:00etan, eta Arrasaten ere, 'Ahobizi' eta 'Belarriprest' kalera irtengo dira, herritarrei izena emateko aukera egongo dela esateko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Parte hartzen den lehenengo aldia izanez gero, galdetegi motz batean eskatzen diren datuak bete eta *ahobizi* edo *belarriprest* rola aukeratu beharko da. "Aurreko edizioaren batean parte hartu duenak, aldiz, atarian sartu eta parte-hartzea baieztatzea beharko du soilik. Nahi izanez gero, aurretik eduki zuen rola aldatzeko aukera izango du", adierazi dute batzordetik. "Edozelan ere, aurrekoetan parte hartu duten guztiek mezua jasoko dute beraien posta elektronikoan, aurtengoa baieztatzeke aukerarekin".

Gazteak Euskaraldira ekitaldia

Arrasateko Euskaraldiaren edizio honetako berrikuntza izan da Gazte Batzordea sortu izana. "Taldea honen erronka herriko gazteak Euskaraldira erakartzea da eta horretarako hainbat lan ildo jorratzen dabilta", azpimarratu dute.

Horietako bat Gazteak Euskaraldira ekitaldia izango da, irailaren 29an, 19:00etan, Arotz plazan egingo dena -Irati tabernako plazan-. "Bertan, Euskaraldian parte hartzeko aukera eta gakoak berri emango da, Etxepe eta Tabu taldeen musikaz gozatu bitartean. Gainera, izen-emate mahaia eta Euskaraldiko materiala eskuratzeko aukera ere egongo da".

Ekitaldia baliatuz, *Gazte kuadrilla sarea* egitasmoa aurkeztuko dute, Euskaraldian parte hartzea gazte talde gehiagotara zabaltzeko sortu dena.

75 entitate Arrasaten

Arrasaten 75 entitatek eman dute izena, oraingoz, eta oraindik badago aukera, urri erdira arte. "Arrasaten arigune gehiago lortuko ditugulakoan gaude. Beraz, herriko dendeak, taberneak, kirol zein kultura taldeek, enpresek eta abarrek eman dezatela izena Euskaraldian!".



Euskaraldiko lorpenen kalejira egin zuten uztailean, motorrak berotzen joateko. E.A.



ARRASATEKO UDALA

Hizkuntza eskola, Arimazubín

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialaren Arrasateko gela desplazatuak Arimazubi plazan abiatuko du ikasturte berria, irailaren 26an, eta ingeleza eta alemana ikasteko aukera egongo da, astelehen eta eguaztenetan. Informazio gehiago, Arimazubi plazako eskola berrian bertan, 943 89 92 75 telefono zenbakira deituta edota eoieibarheo@gmail.com-era idatzita.

Merkataritza berdearen astea 2022

bertako
produktuez
osatutako

50



saskiren zozketa



Zozketan parte hartzeko atera argazki bat erosketa tiketari eta WhatsApppe 688 734 149 telefono zenbakira bidali



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN





Martitzenean egin zuten Pertsona Nagusien Astearen aurkezpena, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan. E.A.

Egitarau zabal eta irekia nagusien astearen baitan

Urriaren 1ean, Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna izango da, eta, horren harira, Arrasateko Nagusien Kontseiluak aste osoko egitaraua prestatu du, herriko hainbat eragilerek elkarlanean. Askotariko ekintzak izango dira irailaren 26tik urriaren 1era

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Egitarau oparoa eta askotarikoa" osatu dutela adierazi du Pili Iriartek, Arrasateko Nagusien Kontseiluko presidenteak, eta hori hainbat eragileren laguntzari esker lortu ahal izan dutela gaineratu. Izan ere, Arrasateko Udala, Sasoibide, Udal Biblioteka, Ibai-arte merkatarien elkarte eta Bastida akademia aritu dira elkarlanean.

Astelehenean, 17:30an, Kulturaten, mahai-ingurua egingo dute, hainbat gai erdigunean jarritz: KPIaren igoera, erretiro aktiboa, elikadura osasuntsua, arrakala digitala eta abar. Nekane San Migel, Josu Zabala, Jose Mari Velez de Mendizabal, Ino Galparsoro eta Mañole Ezenarro izango dira mahai-inguruko hizlariak.

Martitzenean, 12:00etan, kontseiluak urte osoan egin dituen lanen kartel guztiak erakusgai jarriko dituzte BAZen, eta arratsaldean, 19:30ean, *Mendiak 1976* pelikula ikusteko aukera egongo da Amaia antzokian

Eguaztenean, herriko erretiratu en txeeek Seber Altube plazara aterako dituzte euren ekintzak, 11:00etan hasita, azoka eran, herritarrek ikus dezaten zer egiten duten. 17:30ean, bestalde, osasungintza publikoari buruzko hitzaldia izango da,

URRIAREN 1EAN, MANIFESTUA IRAKURRIKO DUTE ETA HIRU KONTZERTU EGONGO DIRA

Roberto Sanchezen eta Marta Machoren eskutik: *Osasun publikoa norantz doa?*

Sasoibidek, hainbat ekintza

Eguenean, berriz, Sasoibideren eskutik, ibilaldi berezi bat egingo dute, *Bixi Bizi* izenpean, eta bi atal izango ditu. "Lehenik, Arrasateko balkoira joango gara, eta, ostean, Iturbide egoitzan elkartuko gara hainbat eragiletako kideak", azaldu du Margari Gorrotxategi Sasoibideko kideak. "Gonbidatuta daude Iturbideko egoiliarak, Begisare Gipuzkoakoak, Arizmendi Ikastolako ikasleak eta abar. Ibilaldi zabala izatea gura dugu".

Bestalde, ipar martxako saioak egingo dituzte martitzenean eta eguaztenean (Ikus *Goiena.eus*).

Liburu aurkezpena eguenean


Egun berean, Maria Teresa Telleria arrasatearraren *Sin permiso del rey* liburuak aurkeztuko dute Kultureteko areto nagusian, 19:00etan (Ikus 12. orria).

Zapatuan, egun handia

Egubakoitzean, 12:00etan, Sartei tabernan, osasuntsu jan ahal izateko tailerra egingo dute, On Ekin nutrizio zentroko Nahia Zeziaga eta Andrea Larrea nutrizionisten eskutik, eta ondoren, pintxo-potea egingo dute.

Azkenik, urriaren 1a izango da egun nagusia. 12:30etan, Herriko Plazan, manifestua irakurriko dute. Halaber, hiru kontzertu ere egongo dira, Ibai-arterekin elkarlanean antolatutakoak: Puro Relajo, Trio Media-noche eta The Song. "Pertsona nagusien eguna izanik, garbi genuen pertsona nagusiak nahi genituela oholtza gainean", dio Jon Apraiz Ibai-artereko kideak.

NIRE USTEZ



ANDER GARAY

Gora auzoetako jaiak!

2022. urte honetan bueltatu zaizkigu auzoetako jaiak Arrasatera. Bi urte gogorren ondoren, aurtan berriz ikusi ditugu kontzertu, erraldoi, umeen jolas eta hainbat ekintza Arrasateko auzo ezberdinetan.

Azkeneko biak Gelman eta Erguinen, baina ezin ahaztu Musakola, San Andres, Uribarri, Santa Marina, Udala, Ferrerías, Maala, Zarugalde eta gaur arte ospatutako auzoetako jai guztiak, ez eta datorren astean ospatuko diren Garagartzakoak ere, buzkantzak bueltan izango ditugu eta.

Jai guztien atzean borondatez beraien denbora eskaintzen duten pertsona ugari daude, eta eskerrak eman nahi dizkiet boluntario horiei guztiei, gozatzeko aukera eman izanagatik, haien lanari eta esfortzuari esker guztiok izan baitugu disfrutatzeko aukera.

Lerro hauen bitartez, eskerrak aurtengoagatik eta animoak datorren urtekoak prestatzeko, aurtan ikusi ahal izan dugulako arrasatearrok eskertzen eta disfrutatzen ditugula auzoetako jaiak.

Manifestazioa eta ekitaldia, 'Txiki' eta Otaegi gogoan

Irailaren 27a "momentu berezia" da ezker abertzaleko komunitatearentzat. "Egun honetan, 1975eko irailaren 27an, Frankoren Erregimenak agindutako azken herio-kondenak gauzatu ziren eta, ETako kide ziren Jon Paredes Manot *Txiki* eta Angel Otaegi fusilatu zituzten", adierazi du Sortuk. Hala, hainbat ekintza egingo dituzte: batetik, irailaren 25ean, Nazio Ekitaldia egingo dute Tolosan, Leidor antzokian, 12:00etan, *Nehork ez dio Eguri itxaropena kenduko* lelopean; bestetik, irailaren 27an, Arrasaten, manifestazioa egingo dute, 19:30ean, Seber Altubetik abiatuta. Ostean, ekitaldia egingo dute, Monterronen.

OHARRAK

1969koen kintada

Urriaren 22an egingo dute eta 65 euroko ordainketa 14a baino lehen egin beharko da, hemen: 3035 0055 19 0551059784. Kontzeptua: *69ko kintada + izen-abizenak*. Egun horretatik aurrera, ezingo da ordaindu, kontua blokeatuta egongo baita.

1951koen kintada

Urriaren 29an egingo dute, Mondragon hotelean. 13:00etarako Portaloian egin dute hitzordua, argazkia ateratzeko. 14:15ean, bigarren argazkia aterako dute, hotelean bertan. 60 euroko ordainketa urriaren 22a baino lehen egin behar da, hemen: ES18 3035 0001 55 0011177085.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Bessulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

TANATORIOA

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com

Hyundai i30 N Line

Nabarmendu zaitez



30 Hyundairen Urteurrena

i30 N Line
30. Urteurrena

130 eurotik aurrera hilean

- 130 euroko 47 kuota
- Sarrera: 6.526,50 euro
- Azken kuota: 11.341,02 euro
- UTB: %9,89
- TIN: %8,25



Oharkabeen pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Ibilgailu horrekin, Hyundairen N autoetan inspiratutako kiroltasunaz gozatu ahal izango duzu, prezio ezin hobean. Serie berezi honek barne hartzen ditu N Line kanpoko diseinua kirol-aurrealdearekin eta kirol-atzealdearekin, 17ⁱⁿ-ko hagun eksklusiboak, N Line barnealdea oihalezko eserlekuekin eta jostura gorriekin, kirol-bolantea eta lehiaketaren munduan inspiratutako xehetasun gehiago. Nabarmendu zaitez Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena ibilgailuarekin.

ARRASATE-MUGARRI San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 79 70 06 www.oarsocar.com



5 URTE

Km-en mugarik gabeko
Bermea

i30 N Line 30. Urteurrena gama. CO2 isuriak (g/km): 135-138. Kontsumo mistoa (l/100km): 6-6,1. Lortutako kontsumo- eta emisio-balioak, WLTP homologazio-zikloaren arabera.

*i30 5ATE TGD 1.0 120ZP N Line 30A ibilgailuarentzako finantzaketa-adibidea. PSP: 25.495,00 euro. Finantzatutako prezioa: 19.895,00 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena,

mantentze-lanen eskaintza eta Hyundairen Renove Plana, Hyundai ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilitako ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.526,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 501,32 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 13.368,50 euro. 130,00 euroko 47 kuota eta 11.341,02 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 4.082,52 euro. Kredituaren kostua, guztira: 4.583,84 euro. Zenbateko egokituia, guztira: 17.952,34 euro. Epeko prezio osoa: 24.478,84 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bidez 2022/10/31ra arte. Iragarki honetan agertzen den modeloa: i30 N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatu dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es webgunean.

Artista gazteen eskulan sorta ikusgai Kulturaten

Gaur, 19:00etan, inauguratuko dute 'Under grass' erakusketa klaustroan, eta urriaren 21era arte egongo da irekita. Sara Ayesak, Nagore Chivitek eta Camilo Tononek egin dituzte, hainbat diziplina uztartuta, artisautzarekin lotuta dauden lan artistikoak

Hasier Larrea ARRASATE

"Erakusketa bitxia eta elkarketa kurioa" da, Nagore Chivite artistaren esanetan, Kulturateko klaustroan hilabete osoan bisitatu daitekeen egitasmoa. Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen *Eremuak* proiektuaren baitan, *Harriak* izeneko programan kokatzen da *Under grass*, arte garaikidea espazio berrietara hedatzea izanik helburu nagusia. "Erakusketak Erkidegoko hirietara baino gehiago, herrietara eramatea du xede ekimen horrek, eta baldintzen artean daude, esaterako, bertan parte hartzen duten artistak ez errepikatzea, gutxienez, hiru urteko epean", gaineratu du Chivitek.

Gazteak, lehen lerrora

Hala, *Eremuak* proiektuak "ikusgarritasuna" ematen die arte ederren ikasketak burutu dituzten euskal gazteei, baita baldintza duinetan lan egitea ere. "Dirulaguntza jaso dugu *Under grass* garatzeagatik; normalean,

erakusketetarako materiala prestatzerakoan, lanak garraiatzeagatik bakarrik ordaintzen digute; beraz, badago aldea", zehaztu du.

Diziplinen nahasketa

Sara Ayesak, Camilo Tononek eta Nagore Chivitek lehen aldiz egin dute lan batera, eta bakoitzak bere espezialitatearekin zerikusia duen ekarpena gehitu dio osotasunari. "Sarak pintura lantzen du, bereziki, Camilok soina eta diseinua, eta nik figuratxoak eta marrazkiak", azaldu du azken horrek.

Belaunaldi gazteen joerak ikusita, baten batek pentsa dezake teknologia berriak erabili dituztela artelanak diseinatzerakoan:

DOMEKETAN IZAN EZIK, EGUNERO EGONGO DIRA KLAUSTROKO ATEAK ZABALIK, 17:30ETIK 20:30ERA

"Baina ez dugu ezertxo ere egin modu digitalean, dena margo, josiz edota eskuz gauzatu baitugu; bisitaria lehen begiradan jabetuko da eskulanak direla".

Íñigo Villafrancak idatzitako testu kritikoak ematen ditu proiektuaren prozesu eta asmoei buruzko pistak. Gai aldetik, hiru kideen arteko elkarriketa "inozoetatik" sortu dira ideiak, "zerbait ezkutatzaren duten kontuetatik", eta, gauza batek bestera eramanda, "belarraren kontzeptuak" egiten du lotura elementu guztiekin: "Horregatik jarri diogu *Under grass* izena erakusketari".

Urriaren 12an, kontzertua

Ikuskizun bat ere egingo dute, urriaren 12an, Iker Ruiz de Apodaka izanik musikari gonbidatua: "Iaioa da bat-bateko musika sortzen, sintetizadoreak erabili". Hitzordura bertaratzeko gonbidapena luzatu du Chivitek, baita gaur arratsaldeko inaugurazio ekitaldira ere.



Camilo Tonon, Nagore Chivite eta Sara Ayesa, Kulturateko klaustroan, asteen, erakusketa muntatzen. 'UNDER GRASS'

ARTko beteranoen '25+2' urteurrena asteburuan zehar

Bordeleko Archiball, Vigoko Melgachos eta Donostiako Bera Bera taldeak gonbidatu dituzte ospakizunerako

H.L. ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeko beteranoak diren Herensugeek mende Erdiko urtemuga ekitaldiei jarraipena emango diete gaurtik hasita. 19:00etan elkartuko dira, 19:15ean familia argazkia aterako dute Monte taberna parean eta 19:30ean harrera egingo diete, udaletxean, hiru talde gonbidatuei. Bihar goizean, berriz, Aretxabaletako Otalora jauregian Mondragon Taldeko kooperatiben aurkezpena ikusiko dute, eta, bazkariaren ostean, 16:00etan, lauko txapelketa jokatu dute,

Mojategin. Lagunarteko neurketen ostean indarrak hartuko dituzte, otordutxo eta afaria dastatuz, Hotel Mondragonen.

Taldeak aurkezpena

Bestalde, ARTko talde guztiak Seber Altube plazan batuko dira gaur, 18:30ean, denboraldi berriko aurkezpen ofiziala egiteko. Bertara joaten diren herritarrek Agirre-etxe harategiko hanburgesa txikiak dastatu ahal izango dituzte, baita egarria asebate ere, barra bat jarriko baitu klubak.

'Sin permiso del rey' eleberria, Maria Teresa Telleriaren eskutik

Ikerlari arrasatearrak munduari bira eman zion lehen emakumeari buruzko liburuak aurkeztuko du egunean

H.L. ARRASATE

Arrasateko Bibliotekak eta Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, eta Mariasun Landa idazlearen laguntzarekin, botanika eta mikologian aditu Maria Teresa Telleriak kaleratu berri duen eleberriari buruz egingo du berba Kulturaten, hilaren 29an, 19:00etan hasita. Idazleak aurreratu duenez, lehen aldia du "publiko orokorrarentzat" idazten duela, orain arte irakurgai zientifiko espezializatuak egin baititu: "Baina Jeanne Baret-en istorioa ezagutu

nuenean, hari buruz sakonago ikertzen jarri nintzen, eleberria idazten amaitu arte". Dioenez, jatorri umileko emakume frantses hura izan zen munduari bira eman zion lehena, XVIII. mendean burututako *Bougainville* espedizioaren baitan: "Bertan parte hartu zuen gizon baten ezkutuko maitalea zen, eta asko zekien sendabelarren inguruan. Emakumeek debekatuta zuten, gizonen moztutututa lortu zuen bidaia hartan parte hartzea; Parisera itzuli aurretik jakin zuten hura nor zen benetan".

Goikobalu erromeria udaberrira atzeratu dute, eguraldiagatik

Goikobalu eguneko erromerian parte hartzen duten herriko kultur taldeek martitzen arratsaldean aho batez erabaki zuten zapatu honetan egitekoa zen egitaraua udaberrira atzeratzea. Horren arrazoia eguraldiaren iragarpen txarrean datza. "Alternatiba Gazteluondoko frontoia, Biteri edota Aldai moduko aterpeetan egitea izan zitekeen,

baina xarma galduko luke Goikobaluko zuhaizpetik aldenitzeak", azaldu du Itxaro Artolak, AEDko kideak.

Izan ere, euria eta freskura dago iragarrita astebururako, eta, ondorioz, "agudo" hartu behar izan dute erabakia: "Bazkarirako materiala uzten ditugutenei lehenbailehen komunikatzeko". Hala, urtarrilean edo otsailean egingo dute Goikobalu eguna zehazteko bilera, talde parte hartzaileen udaberriko agenden berri daukatenean.



2019ko Sagardo Egunean, zukua egiten. GOIENA

Herriko sagardogileen lana, denen ahotan

Sagardo Eguna berreskuratuko dute aurten berriro ere. Domekan izango da ekitaldia: 13:00etan, txotx irekiera egingo dute, Kurtzetagain elkartearen eskutik, eta, ondoren, sagardoa dastatzeko aukera egongo da. Dantzariak sagar dantza egingo dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Herriko sagardogileek etxean egindako sagardoa dastatzeko aukera egongo da domekan, herriko plazan. Sagardo Eguna berreskuratuko dute, eta sagarraren eta horren zukuaren jaia egingo dute, beste behin.

"Tradizio handia duen jaia da. Garai batean, Txirritolak antolatzen zuen, baina egun, Udalak hartu du ardura hori", azaldu du Kultura zinegotzi Ana Martiarenak. Herriko sagardogileen produktuak, taloa, pintxoak... dastatzeko aukera egongo da. Gainera, plazan bertan sagar-zukua egingo dute.

Txotx irekiera

Domekan izango da Sagardo Eguna. Eguraldi iragarpenaren arabera, euria egingo du; horregatik, Martiarenak azaldu du karpa batzuk jarriko dituztela herritarrak euritik babesteko.

Musika doinuekin hasiko dute eguna. 12:30ean, Kirrinki fanfareak herriko kaleak girotuko

ditu. Txotx irekiera 13:00etan izango da. Aurten, Kurtzetagain plater tiroketa elkartearen eskutik izango da. "Urte asko daraman elkarte da, eta sari nabarmenak irabazi dituzte. Askotan izan dira herri artekoan txapeldun, eta aurten Espainiako Txapelketa irabazi duenik ere badago", azaldu du Martiarenak. Txotx irekiera horrekin,

Kurtzetagain elkarteari egin duen lanaren aitortpena egin gura zaio. 13:15ean, Lagun Artean dantza taldeak sagar dantza egingo du.

Musikarekin, trikitiarekin eta bertsolariarekin girotuko dute Bizente Goikoetxea plaza eguerdi partean.

Denboraldi amaiera ona

Kurtzetagain elkarteak kide Juan Luis Nafarrate: "Ilusioa egiten duen aitortza da. Egia da aurtengo denboraldia oso ona, bikaina, izan dela!". Txapelketa guztietan goian ibili direla nabarmendu du eta lehenengo mailara igo den Unai Axpe arrasatearraren lana nabarmendu du Nafarratek. Gustuko duten kirola dela nabarmendu du, eta "gustura" egiten duten lanari emaitza bikainak gehitu dizkiotela dio.

Dagoeneko denboraldia amaitutzat eman dute: bihar, Oñatin egingo dute denboraldiko azken txapelketa; Aspaceren aldekoa izango da hori.

Txandak banatzen

Aramaioko Sagardogileen Elkartea hasi da Mendixolako zentroa erabiltzeko txandak ematen. Zukua edo sagardoa egin nahi dutenek 644 93 46 03 telefono zenbakira deitu beharko dute txanda hartzeko.

Oletako eta inguruko altxorak ezagutzeko aukera bihar

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak eta Gorbeialdeko Kuadrillak antolatuta egingo dute ekitaldia

A.E.G. ARAMAIO

Gorbeialdeko altxorak ekitaldi turistikoaren barruan, Oleta eta inguruak ezagutzeko aukera egongo da bihar, zapatua. Egun osoan izango dira ekitaldiak, eta, besteak beste, nekazaritzako elikagaiak, moda, artisautza, ibilbideak, musika, ondarea... bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da. Egunean zehar, 11:00etatik 18:00etara, txutxu-trena, Gorbeialdeko ekoizleen eta artisauen azoka, Guikuri Bus moda-salmenta, herriko tabernan pintxoak eta

edariak, azokako produktuen dastaketarako gunea, Hontza Extrem abentura parkea, Marino Lejarreta abentura parkea, haurrentzako sormen txokoa eta Gorbeia informazio puntua egongo dira.

Horrez gain, 11:00etan, Otxandio-Oleta ibilaldia egingo dute, 12:00etan eta 16:00etan Atxeta gaztandegira bisita gidatua, 12:30ean Oletan egingo dute bisita gidatua eta arratsaldean musika izango dute, Aramaioko musikariak dituen Nhil taldearekin, 16:30etik 17:45era.

Gaur jarriko dute jokoan San Martin pilota txapelketa

VIII. San Martin pilota txapelketa gaur, barikua, hasiko da; eta txapelketak jarraipena izango du domekan. Kadeteen eta haurren mailetako partiduak jokatuko dituzte, 18:15ean hasita. Infantil A eta kadete A taldeetako pilotariak jokatuko dute gaur arratsaldean

Domekan, 10:00etan hasiko dituzte partiduak. Infantil A mailan, Markel Beitia eta Unax Gonzalez pilotariak ibiliko dira; horiek Lakuako pilotarien aurka jokatuko dute. Alebin A multzoan, Ibai Osoro eta Peio Orue izango dira Aramaioko ordezkariak, eta haiek Amurrioren aurka jokatuko dute. Partiduak Aramaioko kiroldegian izango dira.

Irailaren 30ean hasiko dute kantu tailerra erretiratuek

Alaiak erretiratuen elkarteak kantu tailerra jarriko du martxan aurtengo ikasturtean ere. Ikastaroa irailaren 30ean hasiko dute eta ekainaren 3ra arte iraungo du. Barikuetan elkartuko dira, 10:00etatik 11:30era bitartean, Musika Etxean. Irailaren 30era arte eman daiteke izena tailerrean, Musika Etxean bertan.

San Migel jaiak ospatuko dituzte Etxaguen auzoan

Gaur, barikua, hasiko dituzte San Migel jaiak Etxaguenen, 19:00etan, eta domekara arte iraungo dute. Aitor Sarriegirekin eta Iker Zubeldiarekin bertso afaria egingo dute 21:00etan. Biher, zapatua, kanpai errepikak izango dituzte 09:00etan eta 12:00etan meza. Ondoren, auzotarren argazkiekin diapositiba emanaldia egingo dute. 17:00etan, mus txapelketa eta umeendako jolasak izango dituzte; eta gauean, musika. Domekan, 12:00etan, umeendako puzgarriak; 12:30ean, erretiratuendako luntxa; 13:00etan, bolo txapelketa; eta arratsaldean, 16:00etan, briska txapelketa eta umeendako jolasak.

Trikitia eta panderoa ikasteko gogoz daudenei deia

Aramaioko Trikitixa Eskolak irailaren 30ean hasiko du ikasturtea. Eskolak bariku arratsaldean izango dira, Musika Etxean. Trikitia edo panderoa ikasteko gogoia duen edonori ateak zabaldu nahi dizkio Trikitixs Eskolak. Interesatuok Musika Eskolara joan, trikikalejira@gmail.com helbidera idatzi edo 635 70 05 14 zenbakira deitu.



Erretiratuak dantzan Mitarte kalean, joan den maiatzean. MIRARI ALTUBE

Dantzarako aukera ugari, adinari erreparatu gabe

Musikari jarraituta gorputza astintzeak dituen onurei balioa eman eta horretara gonbidatu dituzte herritarrek Basotxoko erretiratuak, Jaiki taldekoek eta musika eskolako kideek; irailarekin batera, guztiek eman diote hasiera ikasturteari

Mirari Altube ARETXABALETA

Dantzaren bueltan lanean diharduten hainbat talde daude herrian eta herritarrek ere horretara animatu gura dituzte.

Basotxoko kideek euskal dantza saioekin hasi dute ikasturtea, komentuan; eguaztenetan (17:00-18:00) elkartzen dira hogeit bat lagun. Areto dantza ikastaroari, otera, urriaren 4an ekingo diote (17:00-18:00), eta aurten ere Marian Barragan irakaslearen esanetara jardungo dute lanean.

Bi taldeetan lekua daukate eta erretiratuak animatu gura dituzte dantzan egitera. Interesaz gero Mari Karmen Gutierrez arduradunari -653 72 23 59- jakinarazi behar zaio.

Bat-bateko sorkuntza

Jaiki elkarteak kideak ere urrian hasiko dira lanean, kuartelean. Bat-bateko konposizio dantza ikastaroetan elkartuko dira martitzenetan (18:30-20:30). Zuriñe Benavente dute irakasle, eta

taldea dagoeneko osatuta egon arren ateak zabalik dituzte edonorendako; saioetan parte hartzeko mezu bat bidali: jaikielkarte@gmail.com.

Leizarra musika eskolan, otera, zortzi talde sortu dira aurten; horietatik bi, 18 urtetik gorakoek osatutakoak. Izena emateko epea bukatuta egon arren, taldean lekua egonez gero onartzen dituzte oraindik. Musika eskolara jo behar da horretarako -943 08 10 01-.



Ume bi, Deba ibai bazterrean dauden basurdeei begira. ENERITZ URRUTIA

Bi basurde gazte futbol zelai inguruan ibili dira eguaztenean

Abuztutik hainbat aldiz gerturatu dira eta Urkulurako bidegorrian eta kanposantu inguruan ikusi izan dituzte

M.A. ARETXABALETA

Basurde bi ibili ziren eguazten goizean hara eta hona Ibarra kiroldegia eta futbol zelaien inguruan. Eskolara bidean zihozten ikasleek ikusi zituzten lehenengo, eguna argitu orduko, eta, geroago, eguerdi aldera Deba ibai bazterrean jarraitzen zuten. Ikusmin handia sortu zuten herritarren artean.


Paseatzera irten ziren Arizmendi ikastolako Basabeazpi guneko neska-mutikoak ere hurbildu ziren haiek ikustera. "Gazteak ziren basurdeak eta inori kasurik egin barik zebiltzan

jatekoaren bila, ibaitik oso gertu. Umeak ez ziren beldurtu, baina batzuei atzera eragin zien", adierazi du Eneritz Urrutia irakasleak.

Abuztua ezker, hainbatetan


Abuztuaz geroztik dabilta basurdeak Aretxabaleta inguruan, erdigunetik gero eta gertuago. Urkulurako bidegorrian, Oro auzora bidean eta kanposantu aldean ere ikusi izan dituzte, eta herriko udaltzainek baieztatu egin dute hori. Era berean, adierazi dute basozainei abisua pasatuta dietela.

Zergatik dantzan egin?



MARI KARMEN GUTIERREZ
BASOTXOKO KIDEA

"Dantzak, batetik, herritarren artean harremanak estutzeko aukera ematen digu; eta bestetik, egokia da memoria eta gorputzaren trebetasunak lantzeko, erritmoa... Giro polita izaten dugu taldeetan eta herritarrek animatu gura ditugu parte hartzera, komentuko kaperan leku asko dago eta".



MIKEL ARCE MUSIKA ESKOLAKO
DANTZA IRAKASLEA

"Gurasoen taldea-n elkartzen direnak benetan gustura datoz; pentsa, hamar bat urte badaramatzat haiekin. Euskal dantzak ikastea da helburua, baina oso alaiak dira eta lan-giro polita daukagu. Herriko ekitaldietan ere hartzen dute parte eta horrek ikasteko grina sustatzen du".



MAIER ETXEBARRIA
JAIKI ELKARTEKO KIDEA

"Bat-bateko konposizioak proposatzen duena da inprobisaziotik abiatuta zerbait sortzea. Helduentzako jolas momentu bat da, benetan dibertigarria; gorputzarekin konektatzen da, norberarekin bat egin, eta taldekideekin ere konektatu; une horretan ezin da ezer ezkutatu".



M.A.

Euskaraldiari ekiteko gertu

Euskaraldia gero eta gertuago dago eta Aretxabaletako batzordea hasita dago lanean. Entitateek zabalik dute izena emateko epea eta hori gogoraziko diete herriko enpresa eta elkartei. Era berean, eguaztenean irekiko da norbanakoen izen-emate epea. Hurrengo bilera urriaren 4an egingo du batzordeak (18:30), udaletxe zaharrean.

Energia aurreztu behar dela dio EH Bilduk

Kiroldegian energia murrizteko hainbat neurri proposatu ditu: filtraziozko sistemaren ponpak doitzea, beroa berreskuratzeke sistema jartzea, igerilekuak mantekin estaltzea, LED argiteria lehenestea eta hodiak isolatzeko aukera aztertzea

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleko EH Bilduko kideek adierazi dute prentsa-ohar bidez Udalaren kontsumo eta kostu energetikoaren erdia dela Ibarra kiroldegikoa. Horregatik, "energia kontsumoa murrizteko" helburuarekin, premiazko ekintzak jarri behar direla martxan diote.

Haien esanetan hainbat aditurekin egon dira, eta orain dela bi urte Udalak kontratatutako energiaren auditoriaren txostenean esaten dena hartu dute kontuan. "Txosten horretan proposatutakoak, baina, ez dira abian jarri, ezta beste neurririk ere, guk dakigula", salatu gura izan dute, eta gaineratu: "Neurri sorta bat jarri behar dugu martxan eta gasa eta argindarra %10-15 artean murriztu. Neurri horiek aurrekontu txikia dute, teknikoki bideragarriak dira eta azkar abiaraztekoak".

Ekintza "eraginkorrak"

EH Bilduk proposatutakoan artean honako hauek daude: filtraziozko sistemaren ponpak doitzea, "kiroldegi osoko argindarraren %8 aurrezteko"; ura berritzerakoan galtzen den beroa berreskuratzeke sistema jartzea, "gasaren kontsumoa %3 aurreztuz"; igerilekuak man-



Ibarra kiroldegiko igerilekuak. EH BILDUK

tekin estaltzea kiroldegia itxita dagoen orduetan; igerilekua berotzeko transmisioan gertatzen den galera ekiditeko hodiak eta ingurua isolatzeko aukera aztertzea; eta LED argiteriara pasatzea igerilekua dagoen gunea: "Horrek ekarriko luke kiroldegiko gastu osoaren %3 eta 5.000 euro". Gainera, eguzki plaken berotasun ekarpenean ez dela %100 aprobetxatzen uste dute, eta sistemaren konfigurazioan aldaketak egitea proposatu. "Ekintza eraginkorrek" behar direla gaineratu dute eta

Udal Gobernuari eskatu diote lehenbailehen abian jartzeko.

Ederlaneko berotasuna

Bestetik, Ederlan lantegiko berotasuna aprobetxatzeko proiektua abian jartzeko esfortzua egiteko eskatu dute: "Eragile guztiak prest egonda ez dugu ulertzen zergatik ez dagoen martxan. Horregatik eskatzen dugu klima aldaketari aurre egiteko lehen lerroko proiektu estrategikoa izatea eta lehenbailehen gauzatzeko pausoak ematea".

Gaztelekuko kideek Arkupeko egoitzan hasi dute ikasturtea

Komentuan egin ondoren azken bi urteak, ohiko lokalera itzuli dira, lehenengoz joan direnei harrera eginda

M.A. ARETXABALETA

Atxagazte gaztelekuko kideek ikasturteari ekin diote ohiko egoitzara itzulita, Arkupeko atzeko partera, hain zuzen ere. Lehenengoz joan diren DBHko ikasleei hainbat egun eskaini dizkiete, egoitza zein jarduerak ezagut ditzaten. "Gazte asko etorri dira, nobedadea delako, seguru asko. Ea, bada, aurretantzean ere jarraitzen duten", adierazi dute gaztelekuaren arduradunek.

Gaur, egubakoitza, sanmigele keinua eginez, kantu afarian hartuko dute parte; lehenengo, afaria prestatuko dute gaztelekuan bertan, eta ondoren, pilotalekura joango dira gainerako herriarrek batera kantuan egitera.

Iraila bukatzeko, hilaren 29rako, sukaldaritza kontuetan murgilduko dira.




Gazteak Arkupeko egoitzan. GAZTELEKUA

"Gustura" egoitzan

Komentutik Arkuperako egoitza aldaketarekin gustura daude, eta gazteak ere hasi direla ohi-tzen diote: "Txoko guztiak ez ditugu antolatu oraindik nahi moduan eta aldaketa egiten joango gara, hobetze aldera".

Aretxartek lau otarre zozketatuko ditu bezeroen artean

Beste kanpaina bat jarri du abian Aretxarte merkatarien elkarteak udazkenari ekiteko. Irailaren 30a bitartean elkarteko komertzio eta ostalaritza zerbitzuetan kontsumitzen dutenen artean lau otarre zozketatuko dituzte. Otarre horiek osatzeko erabiliko dituzten produktuak ikusgai daude Durana kalean UDAK duen egoitzan.



Otarreetarako produktuak. ARETXARTE

ARETXABALETAKO SAN MIGEL JAIK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA

IRAILAREN 27AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Auzokoko kide berriak, asteen: Luca Mendieta (Madril), Ingrid Dobey eta Lidia Lizeth (Honduras) eta Deisy Rios (Paraguai). AUZOKO

Euskarara gerturatzeko ikasturte berria hasi da

Euskarara hurbildu nahi dutenei harrera egiteko Auzoko ekimena eta euskara praktikatu eta hobetu nahi dutenei zuzendutako Berbalagunak egitasmoa aste honetan hasi dira. Hala ere, interesdunak garaiz daude oraindik taldeetara batzeko

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatzako Auzoko eta Berbalagunak egitasmoetako Nerea Zugastik, Eskoriatzako Berbalagunak egitasmoko dinamizatzailearen gidaritzapean, asteen hasi dira bietako parte-hartzaileak saioetan. Bietan izen-emate kanpaina martxan, herritarrak gerturatu nahi dituzte euskaraz bizitzera, hobetzera, hizkuntza ohiturak aldatzera, erabiltzera eta jende berria eta kultura ezberdinen gainean gehiago ikasiz gozatzera.

Berbalagunetan hiru talde

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzeko dituen egitasmoa da Berbalagunak. Saioak hasi dituzte, baina, izen-emate kanpaina martxan, euskaraz hitz egin nahi duten guztiei animatzeko dei egin die dinamizatzaileak. "Iazko hiru taldeetako kideak hasi dira berbalagun saioekin. Guztira, 30 pertsona inguru dira hiru talde horietan berezitatea ari direnak, baina egitasmoan parte hartzea irekia

da; beraz, interesa duenak irekita ditu ateak", adierazi du Nerea Zugastik, Eskoriatzako Berbalagunak egitasmoko dinamizatzaileak.

Auzokon hamahiru lagun

Auzoko egitasmoaren ikasturte berria ere hasita, parte-hartzea handitzeko asmotan ikasturtea hasteko ekintza berezia ere hasi dira antolatzen. Saioak martitzenetan 10:30ean eta eguenetan 17:30ean egiten dituzte, kultura etxean, eta nahi duena bertaratu daiteke, auzoko.eskoriatza@gmail.com helbidera idatzi edo 661 74 63 76 telefono zenbakira deituta.

Euskal Herri mailako egitasmoa bada ere, kasu honetan, Esko-

**IZEN-EMATE
KANPAINA MARTXAN
DUTE AUZOKO ETA
BERBALAGUNAK
EGITASMOETAN**

riatzako hizkuntza eta kultura aniztasunaren aurrean, Auzoko egitasmoak euskarara gerturatzeko lagundu nahi ditu euskaratik urrun sentitzen diren herritar oro, modu parte-hartzailean, guztien jatorrizko hizkuntzei aitorza egin. "Izen-ematea zabalik dugu, eta, beraz, laster mintza-tonbola egingo dugu ekintza berezi bezala, egitasmoa ezagutzera emateko asmoz. Egin izan dugu, eta arrakastatsua izan ohi da; ea oraingoan... Parte-hartzaileei dagokienez, momentuz, iazko bi talde ari dira saioetan, hamahiru pertsona inguru, baina parte-hartze handiagoa nahiko genuke. Dena den, hasi dira lagun berriak etortzen", adierazi du Zugastik. Egitasmoaren dinamizatzaileak gaineratu duenez, Auzoko taldeen ardatza euskara izan arren, hori baino gehiago da: "Munduko janari ezberdinak probatzeko aukera ematen digu, kultura ezberdinak, parte-hartzaileen herrialdeetako errealitateak...".

Ostalariei eta merkatariei irudi korporatiboa hobetzeko bultzada

Nahitaezkoa da eskaera orria betetzerakoan euskaraz idatzitako testua aurkeztea dirulaguntza jasotzeko

I.B. ESKORIATZA

Herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuak dinamizatzeko eta hobetzeko helburuarekin, dirulaguntzak jarri ditu jendarean Eskoriatzako Udalak, eta eskaerak 2022ko urriaren 28ra arte aurkeztu daitezke.

Diruz errotuluak jartzea lagunduko da; errotulutzat hartuko dira fatxadan nahiz merkataritza edo ostalaritza establezimenduen ate eta kristaletan jartzen direnak. Horrez gain, irudi korporatiboa hobetzea eta sustatzea ere lagunduko da:

irudi korporatiboko elementuak izan daitezke toldoak, bisita txartelak, zigiluak, fakturak, ibilgailuen errotulazioak, poltsak eta batzeko paperak edo antzeko elementuak.

Eskaerak egin nahi dituztenek eta informazio guztia kontsultatu nahi dutenek aukera dute horretarako udal webgunean, eta bide beretik lor dezakete eskaera orria. Bestelako zantzarik izanez gero, Ibarraundi museoan galdetu daiteke, bertara joanda edo telefonoz: 943 71 54 53.

Ikusle kluba, publikoak antzerkiaz hausnartu dezan

Urriaren 23an, domeka, *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* izeneko antzerkia izango da Eskoriatzan. Eta, hitzordua aprobetxatuz, Ikusle Kluba izango da, EHAZE antzerkizale elkartearen ekimenez antolatuta.

Literatura solasaldien estiloan, obra baten bueltan hausnarketak eta esperientziak

elkarbanatzeko biltzen da talde bat Ikusle Klubean. "*Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* obraren aurretik batzeko dei egingo dugu. Ikusiko dugunaren baitan hitz egingo dugu, eta, saioa amaitu ostean, berriz elkartzeko proposamena egingo dugu, mahai-inguru estiloan. "Ez dago aktore izan beharrik, deialdia zabala da, gogoia duen edonor gerturatu dadila, ondo pasatuko dugu eta", adierazi dute EHAZE antzerkizale elkartearen kideek.



JASONE ORBEGOZO

Azken orduko dantzaldia

Joan den egunean, azken unean antolatutako dantzaldia izan zuten Eskoriatzako Olazar Erretiratuen Elkartekoek Gernika plazan. Saioa erretiratuen tabernako terrazan izanda, zenbait lagun animatu ziren dantza egitera oholza aurrean eta beste batzuk, berriz, terrazako mahaletan eseri, zerbait hartu eta dantzez gozatzeko.

Urrats bat gehiago egiteko motibazioarekin

Errekan Goraren hamalagarren edizioak emandakoarekin pozik agertu dira Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak. Horrekin batera, datorren urtean hamabosgarren edizioa izango dute, eta, "borobila eta berezia" izan dadin, ideia berrien zaparrada hasi dute

I.B. ESKORIATZA

Musikaz betetako asteburua izan da Eskoriatzan; izan ere, Errekan Gora jaialdiaren hamalagarren edizioan sei emanaldi izan dira, guztira. Liher, Anari, Kinbonbo Brass Band, Neomak, Erromintxelak eta The Riff Truckers taldeek ikuskizun apartak eskaini dituzte, eta jendeak ez du hutsik egin horietan. Atxorrotx Kultura Elkarteko antolatzaileak pozik agertu dira saioek emandakoarekin eta baita ikus-entzuleen harrerarekin ere.

"Bereziki, zapatu gauean Neomak taldearen kontzertuan batutako jendetzarekin harrituta geratu ginen, baina gainontzeko taldeen ikuskizunak ere apartak izan dira. Puntako musikariak batu ditugu aurtengo edizioan eta balorazio oso positiboa egin dugu. Jende askori eskerrak eman beharrean gaude: ekitaldia aurrera eramateko lagundu diguten babesle guztiei, musikariei, teknikariei, eta baita bertaratu diren musikazale guztiei", adierazi du Edorta Barandiaranek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

Jaialdi borobila

"Egubakoitzean Liher taldearen emanaldia izan genuen soilik. Zuzeneko indartsua eskaini zu-



Fernando Eskoriatza plazan, Anari taldearen zapatuko kontzertuaren une bat. I.B.

ten Fernando Eskoriatza plazan, eta izugarria izan zen. Zapatuan, berriz, Anariaren emanaldi goxoa eta berezia izan genuen; Kinbonbo Brass Bandakoei iluntzea alaitu zuten; eta Neomakekoei, berriz, plaza bete egin zuten, eta sekulako ikuskizuna eskaini. Domekan, aldiz, gipzy jazz estilo ederra uztartzen duten Erromintxelak taldekoak musikalki oso kantu landuekin izan ziren, eta, amaitzeko, gurean egondakoak diren The Riff Truckers talde gernikarrak rock-and-roll saio aparta eskaini zuen".

Hurrengoa berezia

Datorren urtean, Errekan Gora egitasmoak hamabost urte beteko ditu, eta zerbait berezia antolatzeko gogoz daudela adierazi du Barandiaranek: "Urrats bat gehiago egin nahiko genuke hamabosgarren edizioan. Egunotan, asteburuko kontzertuen ostean, emozioak bor-bor ditugu, motibatuta gaude, eta hasi gara ideia berriak garatzen... Goiz da oraindik erabakiak hartzeko, baina sentimendu hauekin egotea seinale ona dela esango nuke".

Lehen proban, bigarrena

Caja Rural Kopako txapelketa joan den asteburuan hasi zen, Aratzurin, eta Iker Eskibel (Oreka) txirrindulari eskoriatzarra bigarren postuan sailkatu zen. Iaz, hura izan Caja Rural Kopako txapeldun, eta aurtengoa ere emaitza bera lortu gura du. "Borrokatu arren, ezin izan nuen irabazi, baina ondo hasi dugu denboraldia, egindakoaz pozik nago".



IKER ESKIBEL

LEINTZ GATZAGA 17



Gatz Bidean, auzolanean hesolak jartzen. LEINTZ LOTZEN

Gatz Bidean pausoak ematen, eta eginikoetan auzolana ardatz

Irailaren 3an egindako auzolanari balioa eman gura izan diote Leintz Lotzen herri ekimeneko kideek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Lotzen egitasmoko kideek Gatzaga Eskoriatzarekin eta, bide batez, bailararekin batzeko asmoz jarraitzen dute, Gatz Bidearen bitartez. Helburu horrekin, duela sei urte hasitako egitasmoaren barruan, auzolana izan dute bidelagun prozesu osoan zehar. Gatz Bidea ezagutzeko eta eremua nola dagoen ikustarazteko oinezko martxak egin dituzte, loreontzi pertsonalizatuak sortu eta saldu dituzte Gatz Bideko lanetara bideratzeko... Eta hala jarraitu gura dute; ez soilik Gatz Bidea eraberritzeko lanekin, auzolanari berari ere balioa emanda.

Leintz Lotzen herri ekimenak deituta, auzolana azkenengoz irailaren 3an egin zuten Gatz Bidean hobekuntza lanak egiteko. Hobekuntzak Eskoriatza eta Leintz Gatzaga artean dagoen Gaztanaduiko trenaren zubia

eta Urixon baserriko bidegurutzearen artean egin ziren. "Tarte horretan putzu handiak sortzen ziren eta izugarri zailtzen zuen bertatik pasatzea. Lursailen jabe den Kaparrategi baserrikoen borondate onari esker, bidearen trazatua aldatu egin da, eta, beraz, 150 metroko trazatu berria GI-3310 bidearen pare doa. Auzolan honetan, Gatz Bideko zati bat garbitu egin da, ondo markatu eta bertatik pasatzen direnen segurtasuna bermatzeko hesolak jarri dira", adierazi dute Leintz Lotzen egitasmoko kideek.

Ezinbesteko laguntza

"Auzolan hau ez litzateke posible izango Kaparrategiko, Aretxabaletako Loramendi Elkarteko, Eskoriatzako Atxorrotx Kultur Elkarteko eta Gatzagako hogeitaz lagunen parte hartzerik gabe. Mila esker!".

Herrialde askotako turistak izan dira Gaztainuzketan

Udako oporraldian izan dira bisitariak Gatzagan. Herrigunea, Gatz Museoa eta mendiko txoko ezberdinak bisitatzeaz batera, Gaztainuzketako mendi-etxeetan ere izan dira turistak. Gaizka Perez aretxabaletarrak udaurretik hartu zuen zerbitzuaren ardura, eta haren lehenengo abuztua izan da bertan. Gustura agertu da harrerarekin. "Uz-

tailan hiru apartamentu izan genituen erabilgarri eta abuztu hasieran laugarren apartamentu bat jarri genuen, eta, ondoren, bosgarrena ere ireki genuen. Errotazio asko izan da: Irlandatik, Herbehereetatik, Finlandiatik, Burgostik, Alacantetik, Galiziatik, Andorratik, Madrilatik, Kataluniatik... etorri zaizkigu. Azken bi horietatik izan dugu jende gehien. Orain, zazpi apartamentuak irekitzeko asmoa dugu, turismo lokalagoa etorriko delakoan".



Soziolinguistika Klusterraren aurkezpena Torresoroan. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Hamar lagunetik sei mintzo da euskaraz

Soziolinguistika Klusterrak jakinarazi ditu Antzuolako euskararen kale erabilera datuak. Bost urtean behin egiten du Klusterrak kale-neurketa; hala, 2021ean Antzuolako kalean %60koa zela euskararen kale erabilera jakinarazi du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzen arratsaldean, herri-tarren aurrean aurkeztu zituen Soziolinguistika Klusterrak 2021ean Antzuolan egindako euskararen erabileraren inguruko kale-neurketaren datuak.

Maialen Iñarra Soziolinguistika Klusterreko kidearen esanetan, hamar lagunetik sei ari ziren euskaraz 2021ean: "Antzuolako datuak 2021ean jasotakoak dira, eta Antzuolako datu orokorra edo emaitza nagusia izan da 2021ean herriko kalean %60koa zela euskararen kale erabilera. Hau da, hamar lagunetik sei ari zirela euskaraz".

Datuek, beheranzko joera

Euskararen erabilerak bost puntu egin du behera azken kale-neurketatik, eta bederatzi puntu azken hogeitertean. "Egia esan, ikerketa hau Euskal Herri mailako ikerketa baten testuinguruan kokatzen da, eta bost urtez behin errepikatzen

den ikerketa bat da, eta Antzuolako kasuan ere hogeiterteko bilakaera aztertu dezakegu, hain zuzen ere. Beraz, emaitza sendoa ditugu. Azken edizioarekiko beheranzko joera ikusi dugu, zeren Antzuolako kaleetan bost puntu jaitsi baita euskararen erabilera", dio Maialen Iñarrak.

Adinari erreparatuz gero, hurrek 2016ko euskararen erabileraren mailari eutsi diotela ondorioztatu du Klusterrak. Gainerako adin taldeek, aldiz, gutxiago eutsi diote euskararen erabilera mailari, eta beheranzko joera da nagusi talde horietan.

Jaitsieraren kausaz edo zergatiaz galdetuta, ordea, zerk eragin duen beherakada ezin izan dutela jakin aitortu dute:

KLUSTERRAREN ARABERA, 2021EAN %60KOA ZEN EUSKARAREN KALE ERABILERA

"Ikerketa deskriptibo bat da. Momentuko argazki bat ateratzen diogu Antzuolako kaleko errealitateari, nolabait, herriko hizkuntza paisaia aktibo horri azterketa egin ahal izateko. Gustatuko litzaiguke egoeraren berri ematea, eta, egia esan, herriarrek batera aztertzea azken bost urteetan zer gertatu zitekeen herrian erabilerak horrelako bilakaera izateko. Azken finean, herritarrak dira bertako errealitatea nik baino gehiago ezagutzen dutenak".

Nola aldatu egoera?

Honenbestez, datuak eskuetan, egoera iraultzeko elkarrekin datuen azterketa egitea beharrezkoa dela dio: "Nire ustez, ikerketa honek parada eskaintzen du egoera eta datuak aztertzeke. Hau da, joeraren deskribapenaren azterketa bat herriarrek elkarrekin egin, eta zertan hobetu genezakeen pentsatzeko bide ematen duela uste dut".

Ur-kolektoreko lanak urrian amaitzea aurreikusten dute

Uztail erdialdean hasi zuen Uraren Euskal Agentziak ur-zikinen kolektoreko lanen bigarren fasea

M.A. ANTZUOLA

Ur-zikinen kolektoreko bigarren zatiko lanak uztailaren 15ean hasi ziren, eta, hasiera batean, abenduaren 15ean amaitzea aurreikusi bazuten ere, Ura Agentziak lanak martxa onean doazela aurreratu du. Egin behar diren 253 metroko hodi berrietatik 20 metro inguru falta dira. "Obraren errendimendua aurreikusitakoa baino handiagoa izan da. Hala, 20 metroko hodia jarri ondoren, ibaia igarotzeko kutxatila egiten amaituko dute eta gainerako kutxatila errematatu eta kanalizazio berriaren probak egingo dituzte".

Udazkenerako gertu

Honenbestez, meteorologia lagun izanda obra urriaren amaierarako amaituta egon litekeela ere aurreratu du Ura Agentziak; baina errepidean dagoen



Sarreran dagoen semaforoa. M.A.

semaforoa obra amaitu arte egongo dela ere azaldu du: "Bide-segurtasuna dela eta, kome-nigarria da obra amaitu arte mantentzea semaforoa. Obraren erritmoa kontuan hartuta, urriaren amaieran erretiratzea aurreikus daiteke".

Jabetza pribatutik ezagutza kolektibora jauzia aztergai

Jabetza pribatutik ezagutza kolektibora. Copyright, creative commons, domeinu publikoa. Zein da diferentzia? izeneko solasaldia izango da irailaren 28an, Torresoroan, 18:30ean.

Ion Lizarazu izango da dinamizatzailea: "Hitz potoloak izan ohi dira eta askotan nagia sortzen dute horiei buruz informazioa bilatzeak; bada, bide horretan

laguntzeko asmoz antolatu dugu saio hau. Copyright, Creative Commons eta domeinu libreko lizentzien arteko desberdintasunak eta berezitasunak ezagutzen hasteko hitzaldi-tertzulia izango da. Horretarako, gaian lanean diharduten lau lagun izango ditugu gonbidatu gisa: Iban Arantzabal Tokikometik, Aiora Mujika Euskarazko Wikipediatik, Iosu Isaias Mukuru kolektibotik eta Mikel Larreategi Sowftware Garatzaile eta Mapa libreen aditu bezala".

Bigarren eskuko arropa eta jostailuen truke azoka bihar

11:00etatik 20:00ra bitartean, bigarren eskuko azoka antolatu dute Andramanuelak emakume taldeak eta Anelkarrek, eskola-patioan. 11:30ean, Idolazen eskutik, umeen jostailuen truke azoka egingo dute; 12:00etan, aldiz, bermut musikatu; eta 13:00etan, Ki.imak taldearen kontzertua. 19:00etan, udazken taldearen txanda izango da.

Euskaraldia aurkeztuko dute hilaren 29an

Euskaraldiaren hirugarren edizioa azaroaren 18an abiatuko da. Hori dela eta, irailaren 29an, eguna, *Hitzek ekiteko garaia* lelopean, Orlanen Kike Amorrarizek hitzaldia eskainiko du, 18:30ean. *Zergatik da garrantzitsua hirugarrenez egitea? Zer lortu dugu orain arte? Eta zer daukagu lortzeko?* galderak izango ditu ardatz, besteak beste.

OÑATIKO JAIK 2022



Ohiko jaiak berreskuratzeko gogoz

Txantxikua txosnagunera itzuliko da

Ume zein heldu, danborrak astintzeko gertu

Zea Mays eta beste hainbat musika proposamen

Kale antzerki ikusgarria Lekittoko Deabruak-ekin

Sagardoa, azoka, lehiaketa eta euskal giroa Herri Egunean

Mozorroak gertu Errosarixo Bixamonerako

San Migel eta Errosarixo artean, Herri Eguna



EGUBAKOITZA 23

17:30 HERRIKO PILOTA
TXAPELKETAKO FINALURREKOAK,
plazako pilotalekuan.
Antolatzailea: Txosna Batzordea.

19:00 TXOSNEN IREKIERA.

23:00 Kontzertua plazan: ZEA MAYS.

00:00 DJ SARGORI txosnagunean.

ZAPATUA 24

11:00 TXOSTEN IREKIERA.
Kulturartekotasunaren Eguna.

11:30 Haur eta gaztetxoentzat
herrialde askotariko UR-JOLASAK
eta hamaiketako, txosnagunean.

12:00 ATSOLORRA: urtean zehar
jaiotako haurrei ongietorria,
udaletxeko batzar areto nagusian,
Musika Eskolako musikaz girotua.

13:00 'ETXERA BIDEA GERTU'
ekimena, plazan. Antolatzailea: Sare.

14:30 HERRI BAZKARIA eta
musikaz girotutako bazkalostea,
txosnagunean.
Antolatzailea: Txosna Batzordea.

16:30 13. SANMIGELETAKO
MUS TXAPELKETA, Portuko plazan.

17:00 Herrialde askotariko
DANTZAK, txosnagunean.

17:00-19:00 Barraketako
soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz
itzaliko dira, aniztasun funtzionala
duten haur eta gaztetxoentzat.

JAIETAKO EGITARAUA

18:00 HAURREN DANBORRADA,
Musika Bandak lagunduta. Irteera:
Bidaurretako Santa Klara. Eguraldi
txarra eginez gero, irailaren 25ean.

19:00 Txosnaguneko
TXORIMALO BERRIAREN
AURKEZPENA eta KALEJIRA.

22:00 LA JODEDERA,
txosnagunean. Jarraian, DJ Keneth.

DOMEKA 25

09:00 Txistulari Taldearen
goiz-eresia. Goizean zehar, aire libreko
18. MARGO-LEHIAKETA. 14:30ean,
sari-banaketa kultur etxean.

10:30 NAZIOARTEKO 62. ARTZAIN
TXAKURREN TREBETASUN
LEHIAKETA, Santa Lutzian.

16:00 BOLA-JOKO TXAPELKETA,
San Martinen.
Antolatzailea: Kurtze Baltz KKE.

18:00 ERRALDOIEN KONPARTSAK;
irteera Kanpantxotik.
Antolatzailea: Kanpantxo Kultura
Elkartea eta Oñatz Dantza Taldea.

18:00-20:00 Aire libreko
18. margo-lehiaketako eta margo
ikastaroetako ikasleen lanen
ERAKUSKETA, kultur etxeko
erakusketa-gelan. Urriaren 16ra
arte. Aastelehenetik ostiralera,

18:00-20:00. Itxita: irailaren 29tik
urriaren 3ra arte eta urriaren 12an,
asteazkena.

EGUAZTENA 28
SAN MIGEL AOZARAZA

10:00 Zai Zoi Bele LOGO
LEHIAKETAKO BOZKA hasiera,
Kirrikinenean ikusgai.

18:00-21:00 INDARKERIA
MATXISTARIK GABEKO GUNEA,
Ongi parean.

18:00 FREESTYLE BIKE SHOW
ikuskitzuna, plazan.

19:00 MEZA NAGUSIA,
Parrokiako koruak abestuta.

19:00 TXOSNEN IREKIERA.

19:00 UROLATARRAK TXARANGA,
txosnagunean.

20:00 TXANTXIKUAREN JAITSIERA,
jaiei hasiera emateko.

20:15 DJ BULL disko-festa, plazan.

22:30 DANBORRADA NAGUSIA.
Ondoren, DJ BULL disko festa, plazan.

00:00 KARAOKEA, txosnagunean.
Jarraian, DJ Reimy eta DJ Osaka.

00:30 TESTING-a Txosnagunean,
Ailaket elkartearekin.

OÑATIKO DETALLEAK BEGI BISTAN
argazki erakusketa, plazako
arkupeetan. Jaien amaieran
lan guztiak zozketatuko dira.
Antolatzailea: Ilunpetan argazki
taldea. Urriaren 3ra arte.

EGUENA 29
SAN MIGEL

09:00 Txistulari Taldearen
goiz-eresia.

11:00 Herri mailako PLATER
TIROKETA, Txopekua tiro-zelaian
—armak edukitzeko baimena eta
Ehiza Federazioaren lizentzia
eskatuko da—. Izen-ematea: 11:00-
17:00. Sarrera: 20 euro.

12:00-14:00 HAUR PARKEA,
Etaluzen. Eguraldi txarra eginez
gero, Zubikoa kiroldegian.

12:00 MEZA NAGUSIA,
Parrokiako koruak abestuta.

12:00 Musika Bandaren eta
Txistulari Taldearen kalejira.

13:00 Musika Bandaren
kontzertua, plazan.
Egitaraua:
A San Miguel.
Moldaketak: A. Ibarrondo.
Around the world in 80 days.
Otto M. Schwarz.

Music from Gladiator.
Hans Zimmer.
Moldaketak: J. Wasson.
Queen in concert.
Moldaketak: J. Bocook.
Beatles Collection.
J. Lennon & P. MC. Cartney.
Moldaketak: J. De Meij.
Sagarra jo! Kalakan.
Moldaketak: Javier Ituarte.
Zuzendaria: Aitor Biain.

17:00-20:00 HAUR PARKEA,
Etaluzen. Eguraldi txarra eginez
gero, Zubikoa kiroldegian.

19:00 RAMADA INN eta KEIA
taldeen kontzertua, Atzeko kalean.

22:30 XABIER ABURRUZAGA BAND
taldearen kontzertua, plazan.

EGUBAKOITZA 30

11:00 Jotak, VOCES NAVARRAS
taldearekin, San Martin zaharren
egoitzan.

12:00 BERA KATZ-ZOPA LEHIAKETA,
plazan. Ondoren, sari-banaketa.

13:00 Jotak, VOCES NAVARRAS
taldearekin, Lazarragako lorategian.

14:00 Herriko Pilota Txapelketako
BAZKARIA, Merkatu plazan.
Antolatzailea: Txosna Batzordea.

17:00 HERRIKO PILOTA
TXAPELKETAKO FINALAK, plazako
pilotalekuan. Ostean, pilotari
ohien partida: Xala /Paskual/
Mendizabal/ Azana.
Antolatzailea: Txosna Batzordea.

ALTUNA

Ondo pasau
jaixak eta
zaindu!

ALTUNA
profesional

100 urte...
artazixak
egitten!

17:30-19:30 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. Arno ganadutegiko zezenak.

19:00 TXOSNEN IREKIERA.

20:00 Kontzertua, plazan: KILIMAK.

20:00 MAHAI-FUTBOL txapelketa, txosnagunean.

22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoa kiroldegian. Aitor Mendiluze, Maider Arregi, Xebastian Lizaso, Agin Laburu eta Onintza Enbeita. Gai jartzailea: Txinparta Bertso Eskola. Sarrerak, Txokolateixian eta Udalaren webgunean: 10 euro. 12 urtetik beherako haurrak, doan.

23:00 KALLEJERUAK: LENTEJAS, ALU ZIKIÑAK eta LIXIBA. Jarraian, DJa. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

ZAPATUA 1 HERRI EGUNA

09:00 Txistulari Taldearen GOIZ-ERESIA. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

10:30 Unibertsitate inguruan, AZOKA: herri mailako behi erakusketa; herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa; asto, behor eta zaldi erakusketa; euskal txerri eta oilo erakusketa; gazta lehiaketa; herri mailako fruitu eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa; artisau erakusketa.

11:00 KALEJIRA, herriko kaleetan. Musika Eskolako triki-pandero eta soinu-joleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak.



Zapatuan, Herri bazkaria –2019ko argazkia– Zubikoan. GOIENA

12:00 INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA, Unibertsitate etorbidean.

12:00 SAGARDO-DASTAKETA, plazan.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

14:30 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

15:00 BAZKARIA ZUK EKARRI ZUK JAN!, Antixena gaztetxean. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

16:30 Herriko GAZTETXOEKIN HERRI KIROLAK, plazan.

17:00 ALARMA MOREA taldearen kontzertua, Antixena gaztetxean.

18:00 GIPUZKOAKO AIZKOLARI TXAPELKETAREN FINALA, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

18:30 BADA GIRO taldearekin erromeria, Atzeko kalean.

19:00 INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA, Unibertsitate etorbidean.

19:00 SAKATU ELEKTROTXARANGA Gaztetxetik txosnagunera.

19:00 MEZA. Ondoren, Parrokian F. ESNALEN SALBEA, Parrokiako koruak eta Oñati Abesbatzak abestuta.

20:00 eta 22:30 GORA HERRIA taldearen erromeria, plazan.

22:30 RAIMUNDO EL CANASTERO, MOTZ eta MERINA GRIS taldeen kontzertua, txosnagunean. Ondoren, DJ FRESA MORANGO.

DOMEKA 2 ERROSARIXO EGUNA

12:00 HAUR PARKEA Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

12:00 Musika Bandaren eta Txistulari Taldearen KALEJIRA.

13:00 Musika Bandaren KONTZERTUA, plazan.

Egitaraua:

Los viajes de Gullivert.
Bert Appermont.
Carmina Burana. C. Orff.
Moldaketak: Jay Boock.
Memorias de África. John Barry.
Moldaketak: J. De May.
Free world fantasy. Jacob de Haan.
The phantom of the opera.
A. L. Webber.
Moldaketak: J. De Meij.
The Blues Brothers revue.
Moldaketak: J. Bocook.

Zuzendaria: Aitor Biain.

17:00-19:00 Barraketako soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz itzaliko dira, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat.

17:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

18:00 ERREFUXIATUEN ALDEKO EKINTZA txosnagunean. Antolatzailea: Hotz Oñati.

18:30 Zai Zoi Bele logotipo lehiaketaren SARI-BANAKETA, Atzeko kalean.

19:00 IRAI taldea, Atzeko kalean.

19:00 Kontzertu AKUSTIKOA, txosnagunean.

19:30 BOHEMIA ORKESTRA taldearekin dantzaldia, plazan.

20:30 Bertso saioa BALKOITIK BALKOIRA. Alaia Martin eta Aitor Tatiegi. Kale Zaharrea.

22:30 LEKITOKO DEABRUAK antzerki taldearen *DEABRUAK GARA-SOMS* *DIABLES* ikuskizun pirotekniko ibiltaria. Ondoren, BOHEMIA ORKESTRA taldearekin dantzaldia, plazan.

ASTELEHENA 3 ERROSARIXO BIXAMONA

10:00 SOKAMUTURRA plazan.

12:00 TXOSNEN IREKIERA.

15:00 BAZKARIA, txosnagunean. Bazkalostean, jolasak.

17:30 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean.

18:00 BURRUNBA ELEKTROTXARANGAren kalejira.

18:00 DIBERTSIOAK, txosnagunean. Jarraian, LIZARTXO.

19:30 eta 22:30 IRATZAR taldearekin dantzaldia, plazan.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Aurten bai!
Gora
sanmigelak!

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

Berriz bueltan dira ohiko jaiak

Sanmigelak gaur hasiko dituzte, eta, asteburuko ekintzen ostean, San Migel Aozaraza eguna hilaren 27an ospatuko dute, eguaztena. Datorren egunean, hilak 29, izango da San Migel Eguna, Herri Eguna urriaren 1ean eta Errosarixo Eguna urriaren 2an

Imanol Beloki Unamuno OÑATI

San Migel eta Errosarixo jaiak ate-joka, martitzenean kultura etxean egindako prentsaurrekoan eman zuen programaren berri Oñatiko Udalak. Aurten, irailaren 28tik urriaren 3ra bitartean ospatuko dituzte; San Migel Eguna datorren egunean, hilak 29, ospatuko dute, Herri Eguna urriaren 1ean eta Errosarixo Eguna urriaren 2an. Txantxikuaren jaitsierarekin eta danborradarekin hasi eta Kuadrillen Egunean mozzorrotuta amaituko

dituzte jaiak. Hori horrela, Oñatiko jai nagusiek betiko egitura berreskuratu dute, bi urteren ostean. Hala ere, asteburu honetan, atsolorra -iazko sanmigeletatik hona jaiotako 90 haur ingururi ongietorria-, Zea Mays taldearen kontzertua eta Nazioarteko Artzain Txakurren Lehiaketa izango dituzte, besteak beste, jaien sarrera gisa.

18 herri eragilerekin batera

Herritar orori zuzendutako programazioa eskaintzeko helbu-

ruarekin, askotariko ekitaldiak batzen dituen egitaraua landu dute, eta xehetasun guztiak eta berritasunenak eman zituzten egitarauaren aurkezpenean. Guztira, 18 herri eragilek parte hartu dute ekitaldien antolaketan, eta 225.000 euroko aurrekontua bideratu dute jaietara. Antolatutako ekitaldi gehienak kalean egingo dituzte, eta, ohitura duten moduan, kaleko leku ezberdinetan egingo dira. Izan plazan, Atzeko kalean edo txosnagunean. San Martin egoitzara

ere hurbilduko dituzte ekintzak; esaterako, jotak. Irailaren 30ean, egubakoitza, 11:00etan, Voces Navarras taldea izango da kantatua.

Oñatiko udal ordezkariak eskerak eman dizkiete talde horiei, baita udaberrietik hona ospatu diren auzoetako jaietako batzordeei. "Azken bi urteetan izan ez dugun nagusien danborrada errekuiperatu dugu; Herri Egunezko azokaz, sagardo festaz eta herri bazkariak gozatzeko aukera izango dugu; haurrei

bideratutako ekintza kulturalak zein ludikoagoak; gazte zein nagusiagoendako eskaintza zabal... Finean, horixe da helburua, herriko festa nagusietan guztion parte-hartze eta gozamenarako bitartekoak eskaintzea", adierazi zuen Izaro Elorzak, Oñatiko alkateak.

Programako ekitaldietako batzuk asteburu honetan badiara ere, Txantxikuak emango die jaiari hasiera. San Migel Egun bezperan, hilaren 28an, 20:00etan, parrokiako kanpan-



Oñatiko udal ordezkariak San Migel jaietako programazioaren aurkezpenean. H. LARREA



dorretik jaitsiko da, Institutuko balkoiraino.

Jai berdinzaleak


San Migel jaietan parte hartzen duten guztientzat jai seguru eta parte hartzaileak izateko, Oñatiko Udalak udaberrian martxan jarritako sentsibilizazio kanpainak ere jarraipena izango du jaietan. Mugimendu feministarekin koordinatuta, sexu erasoen prebentziorako informazio-guneak egongo dira irailaren 28an –Ongi taberna parean– eta urriaren 1ean –Unibertsitate etorbidean–. Gainontzeko egunetan, telefono bidezko arreta zerbitzua ere jarriko da herritarren eskura. Hauxe da telefono zenbakia: 688 60 20 89. "Telefono horren bitartez, erasoen inguruko arreta eskaintzeaz gain, erasoren bat ikusi duenak ere informatzeko aukera izango du eta erasoen erregistroa ere egingo da", adierazi zuen Jone Arriolabengoak, Oñatiko Udaleko Berdintasun teknikariak.

Lehiaketa eta erakusketa

Urtero egin ohi den moduan, aurten ere ospatuko da aire li-

breko margo lehiaketa. Domekan, irailaren 25ean, izango da, goizean zehar, eta herriko edozein txokotara joan ahal izango dira parte-hartzaileak, nagusiak zein gazteak, euren pinturak egitera. Eguerdian banatuko dituzte sariak, kultura etxean. Oñatiarren lan onenak ere sarituko dituzte. Eta domekatik bertatik urriaren 16ra arte, kultura etxeko erakusketa gelan egongo dira ikusgai lehiaketara aurkeztuko dituzten margoak. Astelehenetik egubakoitzera ikusi ahal izango da erakusketa, 18:00etatik 20:00etara bitartean; irailaren 29tik urriaren 3ra itxita egongo da, baita urriaren 12an ere.

Aurten, gainera, Zai Zoi Bele herriko musika kolektiboaren logo lehiaketa ere egingo da. Hilaren 28tik egongo dira lanak ikusgai lehengo Kirrin dendaren erakusleihoan, bozkatzeko. Sari banaketa urriaren 2n egingo dute, Atzeko kalean, eta auke-ratutako logoa Errosarixo Bixamon Egunean, txosnagunean, *Dibertsioak* ekitaldian. Egun horretan, urtero bezala, karrozak uzteko txoko bat egokituko dute agustindarren inguruetan.



Txantxikuaren jaitsieran, txosnagunea jendez beteta. GOIENA

Txosnagunea, herritik herriarentzat

Txosnagunearen eskaintzan azpimarratzekoa izango da zapatu honetan txosna goizetik izango dela irekita. Horren arrazoia da Kulturartekotasunaren Eguna ospatuko dutela. "Lehenengo aldiz antolatu dugu Kulturartekotasunaren Eguna, eta ACESMAkoak –etorkinekin lan egiten duten eragileak– aritu dira egitaraua antolatzen, Txosna Batzordeko kideekin batera", adierazi du Inma Martinek, Oñatiko Txosna Batzordeko kideak. 11:30ean, haur eta gaztetxoendako herrialde askotariko ur-jolasak eta hamaiketako egingo dituzte, txosnagunean. Bazkaria ere egingo dute, ACESMAk prestatuta, eta 17:00etan, berriz, herrialde askotariko dantzak izango dira ikusgai.

Martinek gaineratu duenez, herritik herriarentzako antolatu dute jaietako programa; beraz, laguntza oro ondoetorria izango da.

Goiena telebistaren saio berezia

Oñatiko jaiei jarraipen berezia egingo diegu Goiena telebistan. Ekoizpenari dagokionez, irailaren 28an, Txantxikuaren jaitsiera zuzenean emitituko da, 19:30ean; telebistan eta sarean. Irailaren 29an eta 30an, berriz, HD saioan tarte berezia egingo zaie jaiei, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan, telebistan ikusgai. Urriaren 3an, berriz, Errosarixo Bixamona zuzenean emitituko da herriko plazatik, 13:30ean hasita; telebistan eta sarean ikusi ahal izango da. Amaitzeko, urriaren 4an, Oñatiko San Migel jaiei eskainitako *Jaiak* saioa ikusi ahal izango da, 21:00etan eta 23:00etan.



Gualbi

aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA


ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Gora San Migelak!

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48

onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Tanta hotsak baino ozenago entzungo dira danbor hotsak

Haurren danborrada berriro ere kalera irtengo da: zapatuan izango da, eguraldiak uzten badu, 18:00etan. Nagusiena irailaren 28an izango da, eguaztena, 22:30ean

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Danbor hotsak berriro ere Oñatiko kaleetara itzuliko dira. Hala ere, poztasuna ez da erabatekoa izan azken aste honetan, zeruari begira egon baitira asko eta asko; izan ere, eguraldi txarra dago igarrita eta horrek eragina izango du haurren danborradan. Antolatzaileen asmoa da bihar, zapatua, egitea danborrada; eguraldi txarra bada, azken orduan erabakiko dute zer egin.

Aurtengo ekitaldiak izango duen berritasuna da danborrada Bidaurretatik irtengo dela,

eta ez, orain arte bezala, Santa Marinatik. Irtengo diren konpainiak dira: baserritarak, txalekodunak, sukaldariak, kantinerak, barril-joleak, danbor-joleak, gastatzaileak eta zaldunak. "Gastatzaileak, adibidez, iaz irten ziren gaztetxo berak dira. Eurak aurkeztu ziren lan hori egiteko", azaldu dute antolatzaileek. Aurten, gainera, zaldi gainean irtengo direnek eta gastatzaileek zaldiak ezagutzeko aukera izan dute. Joan den astean Legazpiko zalditegian izan ziren hainbat orduz zaldiak ezagutzen.



2019ko danborradan, dantzariak. GOIENA



Martitzenean, umeak entseguan. MAIALEN REGUEIRO

160 ume

2013an eta 2014an jaiotako 160 bat ume irtengo dira aurtengo danborradan. Eltziaoke eraikinean eta Eltzia aurrealdeko aparkalekuan egin dituzte entseguak egunotan; guztiak pozik eta ilusioz daude jaietan danborradan irteteko. Beti bezala, danborrada ixteko karroza bat egingo dute. Antolatzaileek esan dute sorpresa izango dela egin duten muntaia. Hori horrela, atzealdean mozturrotutako joan nahi duten umeek gai librea izango dute aukeran.

Antolakuntza taldekoek gurasoen laguntza ere izan dute: umeek izena emateko bete beharreko galdetegian, gurasoen laguntza ere eskatu zuten. Bada,

guztien artean antolatu eta aurrera ateratako danborrada izango da aste bukaerakoa.

Nagusiena, 22:30ean

Nagusien danborra San Migel Egunaren bezperan egingo da, irailaren 28an, 22:30ean. Irteera ordua 22:30era aurreratzeko arrazoi nagusia izan da dantzan irtengo diren gazteak hiru kintadakoak izango direla: 2005ekoez gain, baita orain arte aukerarik izan ez duten 2004koak eta 2003koak ere. "Denera, 220 bat gazte izango dira. Kaleak beteko dituzte eta danborrada luzatu egingo da. Beti bezala, *San Migel martxa* plazan jo nahi da 00:00etan... Horregatik aurreratu dugu ordua", azaldu



egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

50
años-urte
1967 | 2017

- Eraikuntza lanak
- Industria-nabeen eraikuntza
- Obra Zibila - Urbanizazioak
- Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62 • www.egaralur.net



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK



Hidalgo

ABOKATUAK ETA
AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

Lan aholkularitza

Kontabilitatea

Zerga aitorpena

Ondo ibili jaietan!

Errementari plaza 2-3 behea • OÑATI



Notarik nota jaiak alaitzen ibiliko dira

Oñatiko Musika Bandak jaiei musika jartzeko ardura izango du egunotan: bi kontzertu egingo dituzte, San Migel Egunean eta Errosarixo Egunean. Horrez gain, berritasuna izango da txistulariekin batera egingo dutela San Migel Egunean kalejira

du antolatzaile taldeko Iñaki Igartuak.

Ibilbidea azken urteetako izango da: Eltziatik irtengo dira, Olarako zuzengunean euren lekuetan kokatu behar dute, eta ondoren, Euskadi etorbideetik Txaketuara jaitsiko dira, handik Kale Zaharrera hartuko dute eta Aita Madina kaletik plazara sartuko dira; azken zatian, Atzeko kaletik igo, Naparreneko kantoian buelta eman eta Kale Barriatik plazara iritsiko dira. Han danborradako pieza guztiak joko dituzte, eta baita *San Migel martxa* ere; azken hori, 00:00etan.

Danborrada nagusiko konpainietan berritasunak daude.

Kantineren zuzendaria Itziar Landeira izango da, azken urteetan moduan; baina gizonekoetan aldaketak egongo dira: danbor-joleen zuzendaria Iñaki Arregi izango da, barril-joleena Mikel Gartzia eta sukaldariena Mikel Maiztegi.

Horiez gain, dantzari taldea ere irtengo da, baita elkarte gastronomikoetako banderak eramango dituzten gazteak, eta baita zaldi gainean joango direnak ere. Oraindik zehaztu barik dute zeintzuk izango diren bi horiek; dakitena da betiko moduan ikurrina eta Oñatiko bandera eramango dutela.

Bai nagusien eta baita haurren danborradan ere Oñatiko Musika Bandak jarriko du musika.

A.E.G. OÑATI

Jaiak bereziak izaten dira Musika Bandako kideendako. Hainbat ekitalditan parte hartzen dute; danborradan, besteak beste. Horrez gain, egun nagusietan, San Migel Egunean eta Errosarixo Egunean, kontzertuak egingo dituzte.

San Migel Egunean, 12:00etan, kalejira egingo dute herriko txistulariekin batera. "Garai batean egiten ziren horrelakoak; ohitura berreskuratu nahi dugu. Uste dugu San Migel Eguna egun ona dela bi taldeek batera kalejira egiteko. *Gainzako biribilketa* joko dugu", azaldu du Musika Bandako zuzendari

Aitor Biainek. Txistulari taldeko zuzendaria Aitor Madina da. 13:00etan, kontzertua egingo dute, plazan. Eskainiko dituzten piezak dira: *A San Migel*, *Around the world in 80 days*, *Music from Gladiator*, *Queen in concert*, *Beatles Collection* eta *Sagarra jo!*

Errosarixo Eguna

Urriaren 2an, Errosarixo Egunean, izango dute hurrengo hitzordua Musika Bandako kideek. 12:00etan, kalejira egingo dute. Ondoren, kontzertua egingo dute, plazan: *Los viajes de Gulliver*, *Carmina Burana*, *Memorias de África*, *Free world*

fantasy, *The phantom of the opera* eta *The blues brother revue* izango da egitaraua.

Nabarmendu behar da aurten go jailetako kontzertuak plazan jarri duten eszenatokiaren gainean izango direla, ez udaletxe-ko arkupeetan. Ikusleak aulkietan eseriko dira, plazan.

Belaunaldi berriak

Musika Bandak aldaketa handia izan du azken denboraldian. "Betiko entzuleez gain, belaunaldi gazteak ere erakarri ditugu", dio Biainek. Auzoetan eman dituzten kontzertuak arrakastatsuak izan dira eta ikusle berriak erakarri dituzte.

AUTLAN[®]
EMD

Ondo pasau Jaixak!



Oñati begi bistan 2021 erakusketaren argazkietako bat, Usakon. ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA

Herriko xehetasunetan arreta jarri duten irudiak

Koloretan dauden hamalau irudik osatuko dute aurten 'Oñati begi bistan' erakusketa. Ilunpetan argazki taldeko hiru kideren lanak dira, eta jaiak iraun bitartean egongo dira ikusgai herriko plazan. Ostean, zozketa egingo dute argazkiak banatzeko

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria OÑATI

Ilunpetan argazki taldeak *Oñati begi bistan* erakusketa antolatu du, beste urte batez, herriko plazan. Oñatiko askotariko aspektuak irudikatzea du asmo, eta, aurten, xehetasunetan jarri dute arreta, Iñaki Idigoras taldekidearen arabera. "Sarri ohar-tzen gara gure inguruan ditugun gauza handietan, baina tarteka egoten dira txikiagoak ere; pintoak edo eraikin baten ertzak, esaterako". Bada, xehetasun horiek hamalau argazkitan irudikatu dituzte, eta hilaren 27tik jaien amaierara arte egongo dira ikusgai plazako zutabetan.

Orotara, hiru lagun aritu dira jardun horretan. Irudi horietako batzuk elkarrekin atera dituzte, baina ibili dira norbere kasa ere. "Koloretako argazkiak dira, lagundu egiten dutelako xehetasunetan sakontzen". 75x50 neurriko panel batzuetan itsasten dituzte, eta azpialdean bertso bana izaten dute.

Bertsoak lagun

Izan ere, Txinparta bertso eskolak ere hartu dute parte

erakusketan, beste edizio batzuetan bezala. Hain justu, bertako bertsolarien ardura izango da argazkiei hitzak jartzea. "Batzuetan, bertsoa ez dator bat argazkilariok ikusten dugunarekin, eta horrek agerian uzten du norbere esperientziaren arabera nola eragiten duen irudi batek bakoitzarengan". Idigorasek uste du hori "interesgarria" dela, eta, agian, hitz batzuek baino "bide gehiago" ematen dutela irudiek interpretaziorako.

Argazki horiek eskuratzeko aukera ere egongo da, gainera. Zozketa egin ohi dute urtero erakutsitako argazki guztiak banatzeko, erretratuak egin izan dituztenetan salbu; horrelakoe-tan, modelo lanak egiten aritu diren pertsonen eman izan diete argazkiak. Hala ere, aurten, xehetasunak izanik, taldekideak jakinarazi du zozketa bidez banatuko dituztela.

Are, erantsi du azken bi urteetan Udaleko Euskara Zerbitzuak eginiko egutegietan erabili izan direla irudi berberak, eta, aurten, ezer zehaztuta ez badute ere, planteamendu berbera egon daitekeela.




ESKUZKO ETA NATURAL TEKNIKA ZENTROA

Ondo pasau Jaixak!!!!

Bidebarrieta kalea, 17-B.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Telf.: 613 54 06 05 / 943 09 94 54
e-mail: bigurizentroa@gmail.com



TXANTXIKUAREN JAITSIERA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA, OÑATIKO SAN MIGEL JAIK

IRAILAREN 28AN, EGUAZTENEAN, 19:30EAN

ZUZENEAN IKUSGAI GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

Deabruen su ikuskizunak ere badu tokia kaleetan

Sua, antzerkia eta musika uztartzen ditu Lekittoko Deabruak taldeak 'Deabruak gara, Som diables' ikuskizunean. Proiektuaren hamargarren urteurrena ari dira ospatzen, eta horrela egingo dute urriaren 2an ere. "Egoki" jantzita joateko aholkatu dute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria OÑATI

Zezensuzkoaz eta su artifizialez harago, Euskal Herrian ez dira oso ohikoak izaten su ikuskizunak, baina, dena den, badaude. Horren adibide da, esate baterako, Lekittoko Deabruak. Sua rekin batera, musika eta antzerkia uztartzen dituzte, eta horrela egingo dute Oñatiko jaietan ere. *Deabruak gara, Som diables* lana aurkeztuko dute urriaren 2an, 22:30ean.

Ikuskizunaren berezitasunak azaldu ditu Gorka Rodriguez taldekideak. "Dudarik gabe, zuzeneko musika da horietako bat, musika jartzaile batek jarriko



Piroteknia da Lekittoko Deabruak taldearen langaietako bat. LEKITTOKO DEABRUAK

duena bozgorailuetatik". Doinu horiek, batez ere, euskaldunak izango dira, baina baita kataluniarrak ere; hala nola Huntza eta Esne Beltzaren abestiak entzuteko aukera egongo da. Kalejira bat egingo dute lehendabizi, eta plaza nagusian amaituko dute jaia.

Taldearen bosgarren ikuskizuna da Oñatin egingo dutena. Lehena 2012an estreinatu zuten, *Mingorri*, urte hartan ekin baitzioten bideari.

Hamarkada bat betea

Hamar urte beteak ditu, beraz, taldeak, eta Rodriguezek jakinarazi du herriz herri ari direla ospatzen, ikuskizunak egiten. *10 urtez 11 sugar* lelopean ekin-tzak ari dira egiten Lekeition (Bizkaia). Are, aurreratu du hamar urteotako ibilbidea laburtzeko dokumental bat ere badutela esku artean, eta abenduan aurkezteko asmoa dutela herrian bertan.

Izan ere, Lekeition eman zituzten lehen pausoak, eta Rodriguez izan zen sustatzaileetako bat. Han egiten den kale antzerkiko jaialdian liluratu

zen: "Laguntzen aritzen ginen, eta baziren su ikuskizunak egiten zituzten talde kataluniarrak, frantsesak... Beraiekin parte hartzeko aukera izaten genuen, eta antzerki mota horrek zoratu egin ninduen". Aitortu du buruan dituen proiektuak gauzatu ohi dituen pertsona bat dela, eta horrela egin zuela oraingoan ere, antzerkian interesa zuten batzuk elkartuta.

Ordutik, lan horretan dihardute, eta, egun, 22 pertsonez osatuta dago taldea. Gazte batzuk sartu ei dira, eta, gainera, badituzte proiektu berriak esku artean ere. Euskal Herriko perkusio talde handienetako batekin dabilta lanean ikuskizun berri bat sortzeko, era horretan, zuzeneko musika "indartsuari" garrantzia emateko.

Bitartean, ordea, orain artekoarekin jarraituko dute. Beraz, horretaz gozatu nahi duenak Oñatin edukiko du aukera, baina taldekideak ohartarazi du parte hartzeko "egoki" jantzita joatea komeni dela: praka luzeak eta jertsea edo txaketa bat; ahal dela, bakeroa. Horrez gain, txapel bat eta zapi bat.



Handi sentitzeko hamaika motibo dauzkate haurrek

Barrakak, puzgarriak, ur jolasak, atsolorra, haur parkea eta haurren danborrada, horiexek Oñatiko Udalak eta txosna batzordeak, herriko eragileekin batera, etxeko txikienentzat antolatutako ekintzak; bihartik hasita, ederto pasako dute neska-mutilek

Hasier Larrea OÑATI

Eragozpenik gabe gozatu ahaliko dute aurten Oñatiko haurrek jaietan eurentzat propio diseinatutako ekintzez. Foruen plazako jolaslekuan, barrakak egunero izango dituzte zabalik goiz eta arratsalde. German Basterretxea Oñatiko Udaleko Kultura teknikariak ziurtatu duenez, bidaia bakoitzak 2 euro balioko du, eta 10 euroko bonua erosiz gero, sei bidaia egin ahaliko dira. Barraken sektoreko autonomoekin adostutakoaren arabera, bi minutu eta erdiko gutxieneko iraupena izango dute paseek. Igande honetan, gainera, bidaia erdi prezioan egin ahal-



Oñatiko jaietako haur parkeko puzgarri batean, neska-mutilak jolasean. GOIENA

ko dituzte neska-mutilek. Aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoak barraketan eroso senti daitezen, bihar eta Erro-sarixo Egunean, 17:00etatik 19:00etara, jolasguneek argi eta soinu ekipoa itzalita funtzionatuko dute.

Atsolorrean, denak batera

Iazko sanmigeletan bi taldetan bereizi ziren udaletxean ongietorria jaso zuten haur jaiaberriak, baina aurten, ohi bezala, azken urtean jaiotako guztiek egingo dute bat udaletxeko batzar areto nagusian. Bihar, zapatua, 12:00etan, izango da hitzordua, eta musika eskolako kideek jarritako doinuek alaituko dute zeremonia. Aurten, 90 jaiaberrik baino gehiagok hartuko dute parte atsolorrean; iazko kopurua gainditu egingo dute, beraz.

Egun berean, ordu erdi lehenago, prest izango dituzte haur eta gaztetxoek herrialde askotariko ur-jolasak eta hamaiketako txosnagunean.

Datorren astean, haur parkea

Hori, asteburu honetako ekintzei dagokienez. Datorren astean

ilusio handiz jasotzen duten parkean bi egunez gozatzeko aukera izango dute. Puzgarri-jositako gunea irailaren 29an, eguna, eta urriaren 2an, domeka, egongo da erabilgarri, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Eguraldi ona egiten badu, Etxaluzen kokatutako dituzte instalazioak, eta euria eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

Ekintza orokorrak antolatzerakoan ere presente izan dituzte haurrak; esate baterako, datorren ostiraleko bertso jaialdian edo Herri Eguneako bazkarian. Izan ere, lehen ekitaldia ikus-teko dohainik sartu ahaliko dira 12 urtetik beherakoak, eta bigarren 12 euroren truke jasoko dute haurrentzako menua.

Gaztetxoentzako ekintzak

Datorren egubakoitzean, Gazte-lekuak antolatuta, Gaztetxoek Eguna ospatuko dute Olaiturrin. *Ginkana zikina* deitu diote ekimen nagusiari: taldekako joko horietan aurrez eman beharko da izena, gaztelekuan bertan. Hurrengo egunean, oster, herri kirolekin parte hartu ahaliko dute, Foruen plazan, 16:30ean.



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafra termikoak.
- Galderen aldizkako azterketak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Finantzatzeko aukera onak!

943 71 82 49 - 943 75 16 46
Sagar Erreka 2, behe (Soraluze)
fogasleriturgintza@gmail.com

Ondo
pasa
jaiak!



M^a Angeles Mendizabal

H AHO SENDAGILEA

Implantologia konbentzionala eta gidatua

Odontologia estetikoak

Periodontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea • 20560 Oñati • Tel.: 943 71 60 71 • mendikorta@outlook.com

*Aurten
bai!
Gora
sanmigelak!*

**Leire
Errasti**

Odontologia orokorra
Ortodontzia



Aitor Tatiegik eta Maider Arregi bertsolariak. GOIENA



Herriko bertsolariak Txinpartaren bi saioetan

Txinparta bertso eskolak, Oñatiko Udalarekin elkarlanean, Zubikoako jaialdia eta Kale Zaharreko 'Balkoitik balkoirako' saioa antolatu ditu, bata irailaren 30erako eta bestea urriaren 2rako. Maider Arregik eta Aitor Tatiegik bermatuko dute Oñatiko ordezkariak

Hasier Larrea OÑATI

Egutegian gorritz markatutako bi garai daude Txinparta bertso eskolako egutegian: bata, Gabonetan, eta bestea, Oñatiko jailetan, orduan antolatzen baitituzte bertso eskolako kideek urteko ekitaldi nagusiak. San Migel eta Errosarixoko jaien bueltan, gainera, bi hitzorduren ardura hartzen dute, Zubikoako bertso jaialdiarena eta *Balkoitik balkoirako* saioarena. Hiru alderdi hartzen dituzte kontuan, Iñaki Olalde Txinpartako kideak azaldu bezala, bertsolariak hautatzerakoan: "Generoa, adina eta herriko bertsolariei bultzada ematea".

Neba-arrebak Zubikoan

Iparorratz hori lagun, datorren egubakoitzean, hilak 30, Maider Arregi oñatiarrak Onintza Enbeita, Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze eta Agin Rezolarekin partekatuko du Zubikoako kiroldegiko oholta, 22:30ean –sarreak salgai daude, 10 eurotan, Txokolateixian eta Udalaren webgunean–. Gaiak jartzen Urko Arregi arituko da; Maiderren neba, hain zuzen. Zubikoan abes-

tuko duen bertsolariak azaldu du poztan dela neba alboan izango duelako; aldiz, adierazi du ez duela abantailarekin jokatu: "Urkok ez dit ezer esango, noski. Beste lau bertsolariek dakitena dakit nik; herriko kontuak eta berbak izango ditugula hizpide, ohi bezala".

Tatiegi, altueratik

Errosarixoko Egunean, berriz, *Balkoitik balkoirako* saio kurioso eramango dute aurrera Alaia Martinek eta Aitor Tatiegik. Oñatiarrak aipatu du "normalean" herritik kanpoko bertsolariek osatzen dutela Kale Zaharreko kantaldia; beraz, saioa deskubritzeko aukera polita izan dezaketela haren ingurukoek. Tartean, gazte askok; izan ere, berezitasun ugari ditu 20:30ean izango den hitzorduak: "Hasteko, ez dago gai jartzailerik; hau da, bertsolariok modu librean abesten dugu. Gure kokapenak ere ez du zerikusirik oholztan izaten dugunarekin, bertsokidea, alboan baino gehiago, pareko balkoian baitauekagu; publikoa, oster, gugandik metro batzuk beherago", azaldu du Tatiegik.

Ondo pasa
jaiak !



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui • Ane Arabaolaza

esperientzia • ezagutza • freskotasuna

Arantzazuko Ama, 3 behea • 943 53 36 57-685 986 003 • 4sgoiena@gmail.com

Herri Eguneko ekintzak normaltasun osoz ospatuko dira aurten

Guztira, 34 sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera izango da Herri Egunean. Gainera, Aramaioko Iturrieta sagardotegiak lehen aldiz parte hartuko du



2019ko Herri Eguneko sagardo dastaketa. GOIENA

Maidar Arregi OÑATI

Herri Eguna da, zalantzarik gabe, herriko baserritarrei, nekazariari eta artisauari aitortza egiten dien Oñatiko jaietako egun nagusia.

Aurtengoak 2019an izandakoa-ren parte hartze kopuru berdintzua izango duela aurreratu dute antolatzaileek, eta 10:30etik aurrera Unibertsitate inguruan, Klaustroan eta Irunberri plazan batuko dira guztiak.

Hala, ganadu feria, barazki eta lore azokak, artisau azoka eta gazta lehiaketa gertu dituz-

te antolatzaile den Oñatiko Udalak eta baserritarrek harremanenetan jardun duen Nekazarien Elkartek.

Ganadu eta barazki azokak

2019an egindako moduan datoz aurtengo ganadu eta barazki azokak, eta baita herriko gazta lehiaketa ere. "Parte hartzeari dagokionez, Herri Egunean izango diren baserritarren kopurua handia da, eta 2019koaren parekoa izango dela esan daiteke. Badago kanpotik datorrenen bat edo beste, baina ia

den-denak Oñatiko baserritarrak dira. Besteak beste, bederatzi behi, 43 behor, bi zaldi, poneyak, astoak, ardiak, ahuntzak, txerriak, euskal oiloak... izango dira erakusgai urriaren leko ferian", azaldu du Nekazarien Elkarteko presidente Iñigo Ezkibelek.

Baliteke, ordea, herritarren artean harridura sortzea Unibertsitate aurrealdeko berdeguneko ganadu ferian egongo den behi kopuru txikiak -bederatzi, guztira-. "Aurten, beste urteekin alderatuta, behi kopu-

ru txikiagoa izango dugu, behiak ekartzeko baldintzak zorrotzagoak baitira gaur egun. Horrenbestez, nobedadea hori izango litzateke, behi gutxiago izango direla ferian; aitzitik, zenbait kasutan gainontzeko ganadu kopurua handiagoa ere izango dela nabarmendu nahiko nuke", argitu du Ezkibelek.

Barazki azokari dagokionez, bi postu egongo dira: Oñatiko Murgia auzoko Ortuzabala eta Zubillagako Elkarzabal elkartek jarriko dituztenak, hain zuzen. Halaber, "izugarritzko" postuak

ez direla izango aurreratu dute; izan ere, lehortearren eta tokatzen den sasoiaren ondorioz, ortuan dauden produktuak izango dituzte erakusgai.

Bestalde, aurten ez da fruta posturik egongo. "Aurreko urteetan fruta postu bakarra izan da Herri Egunean eta aurten ezin izango dela etorri esan digu".

Gazta lehiaketa

Gazta lehiaketari dagokionez, iaz, herriko 15 gaztagileren gaztak dastatzeko aukera izan zuten herritarrek pandemia zela-eta



TXOPEKUA
jateketa / sagardotegia

Ondo pasa jaiak!

Tel. 943 78 05 71 • Uribarri 5, Arantzazu bidea • 20560 Oñati





Kale barria 20, Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54
Julen Uribeetxeberria - 699 34 89 47
txantxiku@telefonica.net



Aurten bai! Gora sarrimigela!

plaza inguruan jarritako karpa handian. Irabazlea, berriz, Urzelai baserriko Juanito Urzelai izan zen.

Aurten, ohiko formatura itzuliko da gazta lehiaketa, eta, oraingo, herriko zazpi gaztagilek eman dute parte hartzeko izena. "Egunean bertan izena eman ez dutenek ere parte har dezakete; hau da, goizeko bederatzietarako gazta aurkeztuz gero, aukera izango dute. Espere dugu hamar parte hartzaile iristea. Iazko parte hartzaile kopurua oso handia izan zen, eta ez da ohikoa, oso zaila baita herriko 15 gazta ezberdin batzea, eta ez da normalena horrelako azoketan. Gaur-gaurkoz, zazpi eman dute izena". Nabarmendu beharra dago sari bana-keta 13:15ean egingo dutela.

Taloeen taberna zerbitzua

Aurten ere Irunberri plazan jarriko duten Herri Eguneko taberna kudeatzearen eta taloak egin eta zerbitzatzearen ardura Ezker Abertzalearena izango da; izan ere, Herri Eguneko txosna kudeatzeko aurkeztu den herriko talde bakarra izan da.



Xabier Zaldua eta Aratz Mugerza, 2019ko aizkolari txapelketan. GOIENA

Artisauak

Unibertsitateko Klaustroa sortzaileen eta artisauen topaketa-gune izango da. Hala, herri-tarrek askotariko artisau-lanak ikusteko edota erosteko aukera ere izango dute, 10:30ean hasita.

Sagardo dastaketa

Eguerdiko hamabietan, Herriko Plazan, 34 sagardogileren uzta dastatzeko aukera izango da. Tartean, lehenengoz izango da Aramaioko Iturrieta sagardotegiko aurtengo uztaz gozatzeko aukera. Oñati plaza oso

ona dela aitortu du Iturrietako Juanjo Peciñak: "Ilusioz eta gogotsu gaude lehenengoz Oñatin egoteko. Konturatu gara azken urteetan oñatiar asko etorri dela gure sagardotegira eta Debagoienean ere ezagutzen gaituztela; ohartu gara ere garrantzitsua izango dela Herri Eguneko sagardo dastaketan presente izatea. Aukera polita izango da, Oñatiko sagardo azoka oso potentia delako".

Iazko sagar-uztarekin egingo dako 2022ko sagardoa izango dute oñatiarrek dastatzeko

aukera. "Orain, aurtengo sagarrak prentsatzan ari gara, eta urtarrilera arte ezingo da probatu. Herri Egunean, beraz, 2022ko sagardoa eramango dugu. Sagardo desberdinak izango dira dastagarri; batetik, sagardo arrunta deritzoguna, hau da, jatorri izena daramana eta ekologikoa dena. Bestetik, sagardo aparduna ere badaukagu; bi urte daramatzagu mota horretako sagardoa egiten, eta oso pozik gaude. Horrez gain, haurrendako muztioa ere izango dugu". Sagardogile bakoitzak, guztira, zortzi kaxa sagardo eramango ditu, 96 botila, herri-tarrek sagardotegi bakoitzaren dastaketa egin dezaten; 3.264 botila, zehazki.

Herri bazkaria

Zubikoa kiroldegian herri bazkaria egingo da, 14:30ean. Baz-

karira joateko sarrerak salgai daude Izarraitzen, Arranon, Olakuan, kultura etxean eta Batzokian. Prezioa 20 eurokoa da helduendako eta 12 eurokoa haurrendako. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 28a da.

Herri kirolak

Ohi moduan, zapatu arratsaldea herri kirolei eskainiko zaie. Plazan, 16:30ean, gaztetxoendako herri kirol probak egongo dira, eta, ondoren, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako final handia, 18:00etan hasita –eguraldi txarra eginez gero, Zubikoako pilotalekuan–. "Aspaldidanik nahi genuen horrelako txapelketa antolatu. Julen Alberdi Txikia, Mikel Larrañaga, Ugaitz Mugerza, Iñaki Asurmendi, Eneko Otaño eta Suharri Rodríguez, iaz lehen mailara igo zena, izango dira Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako finalean", kontatu du Anjel Villar antolatzailerak.

Egunari amaiera borobila emateko, plazan Gora Herria taldearen erromeriaz gozatzeko aukera izango da, 20:00etan eta 22:30an.

Amets Bereazao

Bereazao

Ondo pasa jaiak!

SALMENTA
(berriak eta bigarren eskukoak)

**KONPONKETA
MEKANIKOAK**

TXAPA ETA PINTURA

Bereazao auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Ondo pasau jaietan!

Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

Portu Kale 5 • Tel.: 943 78 12 65
www.mapfre.es

San Migel txapelketari ginga falta zaio, finalak

Aloña Mendi pilota sailetik ahalegina egiten dabilta San Migel pilota txapelketak "garai batean izandako oihartzun eta garrantzia" errekuera dezan. Orain arte, pozik daude torneoak emandakoarekin; urriaren 2an jokatuko dituzte finalak (17:00)

Xabier Urzelai OÑATI

Lerro hauek irakurtzerako, jakinekioa izango da zein pilotari sailkatu diren Errosarixo Eguenean –urriak 2– jokatuko dituzten San Migel txapelketako finalerako –goiena.eus atarian dago finalisten berri–. Izan ere, atzo, eguna, iluntzean ziren jokatzekoak azken finalerdiak. Eta, ikusteko dago finalisten artean debagoiendarrik bada; alegia, Manex Balerdi antzuolarrak, Tolosako Aitor Altunarekin bikotea osatuz, aurrera egin duen edo ez. Balerdi zen debagoiendarren artean torneoan *bizirik* dagoen ordezkari bakarra.

Hala, datorren domekan, urriak 2, jokatuko dituzte finalak, Zubikoan, eta txapelketaren ginga izango dira partiduok: "Oso pozik gaude txapelketak orain arte eman duenarekin. Lehenengo final-laurdenetan jende asko etorri zen Zubikoako harmailetara partiduak ikustera. Irail hasiera zen eta oraindik eguneroko errutinan sartu barik geunden denok ere, eta azken partiduetan sarrera apalagoa izan da. Baina badakigu normala dela. Garbi dugu finaletan Zubikoak itxura ederra izango duela, urtero jende asko etortzen da finalak ikustera: gazte mailako eta promesen kategoriako

–23 urtez azpikoak– pilotariak jokatzeko dute torneoak.

Eta ez da gutxiagorako, Aloña Mendiko sailetik ahalegina egiten dabilta-eta txapelketari bultzada emateko. "Babesle berria dugu –Soraluze hotela– eta pilotariak ere oso maila polita eman dute. Iaz, COVID-19aren eraginez-edo, baja asko izan genituen eta buruhausteak izan genituen txapelketa aurrera eramateko. Aurten, apenas izan dugu halakorik", adierazi du Ander Biainek.

Herriko txapelketako finalak

Sanmigeletakoa ez da, baina, pilotaren bueltan herrian egon-



Aurtengo txapelketako kaporaketa partiduetako bat. GOIENA

go den txapelketa bakarra. Izan ere, Txosna Batzordeak antolatutako duen Herri Mailako Txapelketa ere azken txanpara iristen dabil. Batetik, gaur, hilak 23, jokatuko dituzte –17:30ean hasita, plazako pilotalekuan– txapelketako final-aurrekoak, eta neurria ematen duten pilotariak datorren egubakoitzean izango dute, hilak 30, final handia –17:00etan, lehenago indarrak hartzeko bazkaria egingo dute Merkatu plazan–.

Txosna Batzordeak antolatutako kirol hitzordua, baina, ez da hor amaituko. Herriko pilotariaren finalarekin hasiko dira arratsaldea girotzen, baina ondoren etorriko da garai bateko *izarren* erakustaldia. Izan ere, pilota jaialdia antolatutako Xala, Pascual, Aitor Mendizabal eta Azanza pilotariarekin. Haiek aspaldi esan zioten profesionalismoari agur, baina sasoi onean jarraitzen dute.

abokatua

Javier Pérez
Abokatua

Tel./Faxa: 943 716 766

Mugikorra: 657 796 926

E-posta: jperez@icagi.net

Gora sanmigelak!

Foruen Enparantza 5-6, 20560 Oñati (Gipuzkoa)



EGUZKIALDE
enbalajeak



Aurten bai! Gora sanmigelak!

www.eguzkialdeenbalajeak.com

☎ 943 780 654 (Oñati)

"Maila oneko txakurrak egongo dira lehian"

Domekan, Nazioarteko 62. Artzain Txakur Txapelketa jokatu dute Santa Lutzian. Aurten ere 13 parte-hartzaile izango dira, sei euskal artzain txakurrekin eta zazpi Border Collie-ekin. Jose Mari Bengoak nabarmendu du denek dutela maila ona

Xabier Urzelai OÑATI

Domekan egingo dute Nazioarteko Artzain Txapelketaren 62. aldia, eta, hitzordura begira, antolaketa taldean lanean dabilen Jose Mari Bengoak –ez du txapelketan esku hartuko– nabarmendu du Santa Lutzian batuko diren 13 txakurren maila ona: "Txapelketetan zailduta txakurrak dira denak, Euskal Herriko Txapelketako bi onenak, Kataluniako txapelketako bi onenak, Mallorcako onena, Castelloko onena, Biarnoko (Okzitania) bigarren onena... Maila oso onekoak dira denak, ondo hezitako txakurrak. Gero, egunaren arabera egingo du batek



Karlos Ardantza, Axier Bolibar eta Roger Jauretxe, iaz, sariekin. M.B

aurrera eta besteek atzera. Eta horretan faktore askok izaten dute eragina. Artzaina bera zein urduri dagoen, txakurraren urduritasuna, aginduak ondo ematen dituen edo hanka-sartzeren bat egiten duen, akats txikiren bat... Urteroko galdera izaten da faboritoarena, ea nork eramango duen txapela, eta oso zaila da hori aurreratzea", aitortu du. Hori bai, jakinekoa da iazko irabazle *Kobi* txakurra [Axier Bolibar zen txapelketa irabazi zuen artzaina] ez dela txapelketan egongo.

Txakur egokienak

Txapelketan egongo diren txakurren arrazari dagokionez, Bengoak aurreratu dio GOIENARI sei izango direla euskal artzain txakurrak eta beste zazpi border collie arrazakoak direla: "Eztabaida zaharra da hori. Bertako txakurra desagertzeraz ziholako egin genuen bere denboran euskal artzain txakurraren aldeko apustua, baina egia da border collieak 300 urteko abantaila daukala. Txakur azkarra da; akaso, ikusgarriagoa... Baina, gero, artzain baten egu-

neroko zereginetarako, mendian ordu askoan egoteko, joan-etorri luzeak egiteko... Askok esaten didate nahiago dutela bertako txakurra. Esandako moduan, denak dira txakur onak, eta garrantzitsua da, baita ere, txapelketetarako prestatzeko orduan metodologia ere aldatzen dabilena. Artzainak autoritatea ezarri behar du, baina orain ez da garai bateko zakartasunik erabiltzen, leunago egiten da lan txakurrarekin, eta emaitza onak dira", adierazi du oñatiarrak.

Euriarekin, deseroso

Eguraldi txarrak ez du artzainek txakurrekin eta ardiekin batera egin beharreko lanean eragingo, baina bai eragingo du ikusleengan: "Jendea aterkiekin joaten da, zirak... Ikusle kopuruak ere behera egiten du... Basoak euri beharrean daude, baina kasualitatea da asteburuan etortzea aldaketa. Horren aurrean, baina, ezin da ezer egin". Ikusteko dago domekan iazko emozioa errepikatuko ote den, puntu bakarreko aldearekin gailendu zen-eta Arabako txapelduna, *Kobi* txakurra.

zapore jatetxea

m Mondragon Unibertsitatea

Ibarra zelaia, 2
Tel: 671 407 658
zapore.enpresagintza@mondragon.edu

Gosariak • Eguneko menuak
Menu bereziak • Askariak
Eramateko janaria
Artisau gozogintza

ONDO PASA JAIXAK!

COINBROKER

OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

**ASEGURU AHOLKULARITZA
ESPEZIALIZATUA**

Gertuko zerbitzua momentu zailetan

Ondo pasa jaixak!!

688 774 531 - WHATSAPP 943 089 006

OINATI@COINBROKER.EUS WWW.COINBROKER.EUS

ARANTZUKO AMA KALEA 9, BEHEA. 20560 OÑATI

Hasier Larrea OÑATI

Jaiak iraun bitartean, egunero egongo da doako eta zuzeneko musika kalean, gaurtik bertatik hasita. Hain justu, euskal talde ezagun bat, Bilboko Zea Mays, arduratuko da sanmigelen baitako lehen mokadua eskaintzeaz. Kontzertu hori gaurko bertarako, hilak 23, dago programatuta, Foruen plazan, 23:00etan hasita. Aiora Renteria abeslaria buru duen laukotea udaberria ezker dabil Zea Maysen mende laurdeneko biran buru-belarri murgilduta, eta bereziki udan zehar plazaz plaza aritu ostean, Oñatira ere etorriko dira euren kantu mitiko eta berrienak partekatzen. Era berean, Irunberri plazako txosnagunea gaur irekiko denez, gauerditik aurrera DJ Sargorik jarritako doinuek girotuko dute karpa.

Biharko, zapatua, herri bazkaria antolatu du Txosna Batzordeak, Kulturartekotasunaren Egunaren barruan, eta bazkalostea musikaz girotutakoa izango dela aurreratu dute kideek. Gainera, 17:00etan hasita, herrialde askotariko dantzak eza gutu eta probatu ahaliko dira bertan. Ildo beretik, gauean, 22:00etan hasita, erritmo kubatarrekin dantzan jarriko dituzte txosnara bertaratzen diren festazaleak La Jodederako musikariek. Amaitzean, DJ Kenneth-ekin jarraituko du jaiak.

Asteari ginga jartzeko, berriz, sanmigeletan hutsik egiten ez

Gerria mugitu, eztarria urratu

Estilo askotako egitarau musikala antolatu dute herriko eragileek aurten. Oñatiko musikari eta talde ugari igoko dira plazetako oholtzetara, baita kanpokoak ere



Oñatiko Musika Banda, martxoan Zubikoan eginiko kontzertuan; egunotan birritan azalduko dira plazan. GOIENA

duen herriko txistulari taldeak egunotako lehenengo goiz-eresia egingo du domekan, 09:00etan hasita, erdigunean zehar.

Irailari agur alaia

Eguaztenean berriz entzungo dira estilo guztietako musika-tresnen hotsak. 19:30erako, Urola-tarrak txaranga gonbidatu du Txosna Batzordeak Institutu aurrealdera. Geroxeago, 20:15ean, DJ Bull musika-jartzaile sonatuak aukeratutako kantekin dantatu eta abestuko dute plazan. Danborrada garatu bitartean parentesi bat egingo du Bullek, ostean, toki berean, disko-festarekin jarraituko baitu. Txosnagunean gauerditik aurrera karaokea dago deituta, eta, jarraian, DJ Reimy eta DJ Osakaren erritmoak.

Biharamunean, hilak 29, 09:00etatik aurrera, txistu hotsak gailenduko dira ostera ere goiz-eresian. Txistulari taldeak 12:00etan beste hitzordu batean hartuko du parte; kasu horretan, Musika Bandaren batera egingo duen kalejiran. Ordubete geroago, Musika Bandak kontzertua eskainiko du plazan. Badu berrietasunik ekitaldi horrek, Kultura Salletik aipatu bezala, "zuzeneko plazako oholtza gailenduko duela lehen aldiz". Arratsaldean protagonismoa izaten jarraituko dute herriko musikariek, Atzeko kalean, 19:00etan hasita, Ramada INN eta Keia taldeek joko baitute.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunetan erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20



Aiora Renteria buru duen Zea Mays taldeak gaur gauean eskainiko du zuzeneko Foruen plazan. GOIENA

Aktibo daude bi bandak, aurten *Pills for horses* lana kaleratu baitu Ramada INNek, eta Keiak, aldiz, *Erragaia* izenekoa. Trikitilari handiek ere izango dute tokia; kasu honetan, plazan, Xabier Aburruzaga bizkaitarren bandaren eskutik; 22:30ean hasita, euskal folkaren erritmo bizi eta koloretsuak errepasatuko dituzte, hogeitertetik gorako ibilbidean egin bezala.

Gaur zortzi, hilak 30, jaietako ohiko gonbidatu batek, Voces Navarras taldeak, jota estiloko kantuak zabalduko ditu alderik

alde. Geldialdi berezia egingo dute 11:00etan San Martin adinekoen egoitzan, udal ordezkariak nabarmendutakoaren arabera, "bertako egoiliarrek ere goza dezaten jaietako egitarauaz". Nafarroako jotetatik Andaluziako runbara egingo dute salto 20:00etan Foruen plazan, baina ukitu euskaldunarekin, Kilimak talde hernaniarrak horixe bera proposatuko baitu. Txosnagunean 23:00etan hasiko da egitarau musikala, bueltan baita *Kallejeruak* izenburuko emanaldi-sorta berezia; oraingo honetan,

Lentejas, Alu Zikiñak eta Lixibak izango dira protagonistak.

Herri egunean, une oro

Agian, urriko lehen eguna izan daiteke egitarau musikal zabalenak dakarrena. Izan ere, txistulari taldearen goiz-eresiarekin argituko da eguna. 11:00etan, kalejiran irtengo dira herriko kaleetan zehar Musika Eskolako trikiti, pandero eta soinu-joleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak. Herri bazkariaren ondoren, 18:30ean, erromeria doinuak jarriko ditu

Bada Giro taldeak, Atzeko kalean. 19:00etan, berriz, Sakatu elektrotxarangak gaztetxetik Irunberri plazarako ibilbidea burutuko du. Eta gauerako, 22:30ean hasita, bertako karpan Lizarrako Raimundo el Canasteroren flamenkoaz, Merina Gris hiru kote donostiarren elektronikaz eta Motz oñatiarren punk-rockaz osatutako menu zabala dago programatuta; beraz, zuzenekoan Antixenean aurtengo martxoan debuta egin eta maiatzean ere Ikatz tabernan aritu ostean, Motz boskotea beste behin azalduko da euren jarraitzaileen aurrean, besteak beste, euskaraz sortutako dozena bat kantu fresko inguru jotzeko. Hiru taldeak eszenatokitik jaisterakoan, Fresa Morango musika-jartzaileak jarriko du gatza eta piperra txosnagunean.

Errosarixo Egun bizia

Herri Eguneko egitaraua indartsua baldin bada, ez da atzean geratzen hurrengo egunerako antolatuta dagoena. 12:00etako kalejirarekin ekingo diete musika-hotsek, jadanik jaien erritmora egokituta egongo diren Musika Bandaren eta Txistula-

ri Taldearen eskutik. Ordubete geroago, asteko bigarren kontzertua eskainiko du Musika Bandak Foruen plazan. Arratsaldean, 18:30ean, Zai Zoi Bele logotipo lehiaketaren saria banatuko dute Atzeko kalean, eta ostean, Bizkaiko kostaldetik, Ondarroa eta Lekeitiotik zehazki, etorriko den Irai taldeak eskainiko du zuzeneko; kantu lasai zein biziz osatuta zuzeneko indartsua da proposatzen dutena, eta konposizioetako hitzak idazterakoan, besteak beste, Sustrai Colina zein Andoni Egañaren laguntza izan dute. Bestalde, txosna batzordeak ordu bererako kontzertu akustiko bat antolatu du karpan. Ordu erdi geroago, 19:30ean, dantzaldia egingo dute Foruen plazan, Bohemia Orkestra taldeko musikariek gidatuta. 22:30ean, atsedean hartuko dute, Lekittoko Deabruen ikuskizunak iraun bitartean, eta hura amaitzean pilak kargatuta itzuliko dira beste saio bat taularatzeko.

Astelehen buruzuririk ez

Urriaren 3an, jaietako azken egunean, moztarotuta irtengo diren oñatiarrek bi hitzordu izango dituzte seietan: bata Burrunba elektrotxarangak gortuko du eta bestea, txosnagune herriko taldeek, *Dibertsio* emanaldiaren baitan. Jarraian pasoko emango diote Lizartxo erromeriari. Plazan, berriz, Iratzarrek joko du, 19:30ean eta 22:30ean.

FORUEN PLAZAN, TXOSNAGUNEAN ETA ATZEKO KALEAN IZANGO DIRA KONTZERTU GEHIENAK

ULMA

**ONDO PASA
JAIETAN!**





Kolorez beteriko San Migel eta
Errosaixo jai zoriontsuak!

ARETXABALETAKO SANMIGELAK 2022



48 postu artisautza eta nekazaritza azokan
"Tril egitera" animatu du Beinke-Loramendik
Aretxabaleta Abesbatza, kanturako gertu
Aizkoran eta korrika herri kirolean
Askotariko ekitaldiak Gazte Mugimenduarekin

Musikak eta dantzak bat egingo dute azokarekin



UNAI ITURRIOTZ

Ondo pasau sanmigelak!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETA



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus

EGUBAKOITZA 23

18:00 TXOSNAREN IREKIERA udaletxe zaharrear, eta triki-poteoa herriko kaleetan barrena, Gazte Mugimenduak antolatuta.

19:00 BERTSO-SAIOA. Bertsolari hauekin: Uxue Alkorta, Maddi Aiestaran, Maite Sarasola eta Maider Altuna, Gazte Mugimenduak antolatuta.

19:00 BERGARAKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA, erraldoiak eta buruhandiak, Bergarako gaiteroekin batera.

20:00 KONTZERTUA: Aretxabaletako Eten taldea, Gazte Mugimenduak antolatuta.

21:00 KANTU AFARIA Sei Pistols & Trabuko bat taldeak girotuta.

ZAPATUA 24

10:00 DIANA, Aretxabaletako txistulariekin.

10:30 TALO-TXOSNA, Loramendiko taldeak antolatuta.

11:30 LEIZARRA MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIAK, kaleetan zehar.

JAIETAKO EGITARAUA

12:00 TXOSNAREN IREKIERA, Gazte Mugimenduak antolatuta.

12:30 BERTSO SAIOA: Ane Zuazubiskar eta Aitor Sarriegi. Lekaixoka bertso taldeak antolatuta, Durana kalean.

12:45 TXALAPARTARIAK, Durana kalean.

13:00 ZUBIETAKO JOALDUNAK, Aretxabaletako kaleetan zehar.

14:30 HERRI BAZKARIA, Iturrigorri frontoian.

17:00-20:00 PAINT-BALLA nerabeentzat.

17:00 Haurrentzako BOLA-TXAPELKETA, bolatokian.

19:00 BEINKE-LORAMENDI DANTZA EMANALDIA, Herriko Plazan.

19:30 IZENBAREKUAK TXARANGA gasteiztarra kalean barrena, Gazte Mugimenduak antolatuta.



Beinke-Loramendi dantza saioa, zapatuan. Argazkian, 2019ko une bat. GOIENA

20:00-21:30 eta 22:30-00:30 DANTZALDIA Iratzar erromeria taldearekin, Herriko Plazan.

23:00 BOLA-TXAPELKETA, Herriko Plazan.

23:00 PINTXADA KOLEKTIBOA, Gazte Mugimenduak antolatuta.

DOMEKA 25

10:00 DOKE TXAPELKETA Basotxo aurrean, Basotxo elkartearen eskutik.

11:00 DIANA, Aretxabaletako gaiteroekin.

13:00 HERRI KIROLAK, Herriko Plazan.

16:00 MUS TXAPELKETA Orly tabernak antolatuta; Udalak txapelak eta trofeoak ipiniko ditu.

19:00 SANMIGELETAKO KONTZERTUA Aretxabaleta Abesbatzaren eskutik, musikariak eta dantzariak lagun dituztela. Pandemian hildakoen omenezko ekitaldia eskainiko dute bukaeran Iturrigorri frontoian.



*Aurten bai!
Gora sanmigelak!*

ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO
APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Ondo pasau
sanmigelak!

Aretxabaletako campusa
Otalora 31
20550 Aretxabaleta

Eskoriatzako campusa
Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu

Bueltan dira sanmigelak "bere osotasunean"

Gaur, irailak 23, bueltatuko dira San Migel jaiak, ohiko programa berreskuratuta. Hiru egunetan zehar, alaitasunak eta festa giroak Aretxabaletako kaleak bustiko ditu tradizioekin, folklorearekin, bertako produktuekin eta herri kirolekin

Zuriñe Urruela Santidrian

ARETXABALETA

Unai Elkoro alkateak, Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak eta Inma Miguel teknikariak aurkeztu dute egitaraua, antolatutako ekitaldietan parte hartuko duten elkarte eta talde desberdinen ordezkariarekin batera. Bertan, alkateak hauxe adierazi du: "2020ko geldialdiaren ostean, eta 2021ean azokara eta herri kirolek mugatuta, sanmigelak bere osotasunean itzuli dira".

Bergarako Erraldoi eta Kilikien Konpartaren kalejirak eta Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak girotutako kantu afariak ekingo



Aretxabaletako Udaleko eta herri eragileetako ordezkariak, martitzenean. Z.U.

dieta festei, gaur. Familia giroan elkartuko dira Iturrigorri frontoira joango diren 500 lagunak. Tiket guztiak saldu ziren atera eta ordu gutxira.

Zapatuko bertso saioan, Ane Zuazubiskar –Lekaixoka bertso-eskolako irakaslea– eta Aitor Sarriegi –Gipuzkoako txapeldua 2011n eta Bertsolari Txapelketa Nagusian hiru aldiz finalista– izango dira, herriko bertso taldeak antolatutakoa.

Zapatuan bertan, Iturrigorri frontoiak 535 pertsona bilduko ditu, elkartasun bazkarian. Irailaren 12an salgai jarritako tike-tak "sekula baino azkarrago" saldu dira, esan du Amaia Garcia antolatzaileak –24 ordu baino gutxiagotan–. Bertan, herriko produktuak dastatuko dituzte.

Arratsaldean, nerabeak *paintball*-ean arituko dira Ibarra kiroldegi aurreko berdegunean, euririk egiten ez badu; eta 18 urte baino gutxiagokoek bolo txapelketa izango dute. Bi ligan banatuta –gazteak eta infantilak–, bakoitzak bere saria lortzeko borrokatuko da.

Domeka goizean, doke txapelketa izango da Basotxo aurrean.

Txosna, pintxada, bertsoak...

Atxabaltako Gazte Mugimenduak zehaztu duenez, sanmigeletarako zenbait ekintza gertatu dituzte. "Egubakoitzean, 18:00etan irekiko dugu txosna, udaletxe zaharreko lokalean, eta, gero, triki-poteoa egingo dugu. 19:00etan, bertso-saioa izango dugu bertan, Uxue Alkorta, Maddi Aiestaran, Maite Sarasola eta Maider Altuna bertsolarien eskutik, eta, 20:00etan, Aretxabaletako Eten musika taldeak kontzertua eskainiko du. Zapatuan, berriz, 12:00etan irekiko dugu txosna; 19:30ean, Izenbarekuak txaranga izango da; eta, 23:00etan, pintxada kolektiboa", adierazi du Aitor Ruiz de Austik, Atxabaltako Gazte Mugimenduko kideak.

Ondo pasa San Migelak!!



gora
Atxabalta



EGUZKIGRAF

inprimategia

zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4,
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com

Azokak 48 postu batuko ditu 27. urteurrenean

Artisautza eta nekazaritza ekologikoaren azokak ia berrogeita hamar postu izango ditu zapatuan Durana eta Mitarte kaleetan. Arlutzeko kantxa ondoan, berriz, bertako ganaduaren zortzigarren feriarekin gozatuko dute herritarrek

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Artisautza eta nekazaritza ekologikoaren azokak sanmigeletako plater nagusietako bat izaten jarraituko du. Hala, azokak 48 postu batuko ditu Durana eta Mitarte kaleetan. Artisauei postuak hogeita hamar bat izango dira; horien artean hamar, aretxabaletarrenak. Nekazaritza ekologikoaren merkatuari dagokionez, 18 erakustoki bertaraturako dira. Eta horrekin batera, Arlutz tabernaren ondoko kantxan ganaduaren zortzigarren feria egingo dute. Terreña behiak eta piriniotarrak, pottokak, mendiko zaldiak eta ardi latxak egongo dira ikusgai.



Sanmigeletako azoka, artxibo erretratu batean. GOIENA

Zer salduko duzue azokan?



ANNE ROESSEL
LOREZAINA ETA ARTISAUA

**"Ortua ikusgarri dago,
lore-sorta ederrak ditugu"**

"Nik loreekin egiten dut lan, lore sikuekin, eta lore-koroak eta lore-sortak egiten ditut. Prozesu osoa guk egiten dugu, haziak landatzen ditugu, eta urte osoa egiten dugu ortuan loreak zaintzen. Gero, loreak sikatzen ditugu eta haiekin hasten gara lanean. Aurtengoa sanmigeletako azokan egiten dudana bigarren urtea izango da, eta aurrekoa baino hobea izango da, loreak ikusgarri daude eta. Oso sasoi ona izan dugu eta lore-sortak ikusgarri daude. Instagramen ere saltzen ditut"



NAIARA URIARTE

OKINA ETA GOZOGILEA

"Ogi ekologikoak eta gozoak salduko ditugu"

"Ogiak ekarriko ditugu azokara, baina, halakoetan, azokara gozoak ere ekartzen ditugu saltzeko: tartaletak, pastak, galletak... Jendeak ongi hartzen ditu halakoak. Ogiei dagokienez, Errastikongo giak ongi ekologikoa egiten dugu, eta klase askotako ogiak izaten ditugu. laz lehenengoz izan ginen eta oso harrera ona izan genuen, egia esan. Aretxabaletako sanmigeletako azokan jende asko ibiltzen da eta espero dezagun aurten ere halaxe izatea, eta jendeak ondo hartzea"



Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketan lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketan urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Ondo ibili zaietan!



Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel.: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net



*Aurten bai!
Gora sanmigelak!*

AREDER ARRANDEGIA

MITARTE 1 • ARETXABALETA • 943 77 13 79 • 636 02 39 96

Jon
Harategia

Ondo ibili sanmigeletan!

Durana 15 • Aretxabaleta • 943 79 71 69



"Tril egitera animatzen ditut herritar guztiak"

ENERITZ URRUTIA BEINKE-LORAMENDIKO DANTZARIA ETA TALOGILEA

Aretxabaletako Loramendi taldeak antolatutako talo-txosnak lokalizazio berria izango du aurtengo San Migel jaietan: Mitarte kaleko lehengo bodegoi zaharraren lokala

Imanol Beloki ARETXABALETA

San Migel jaietara gerturatzen den oro pasatzen da Loramendiren talo-txosnatik, eta aurten ere izango da bertan prestatzen dituzten talo gozoak jateko aukera. Horrekin batera, Beinke-Loramendikoen dantza emaldiak ere ez du hutsik egingo, ikus-entzuleen gozamenerako. Bi hitzordu horietan izango da Eneritz Urrutia aretxabaletarra parte hartzen, eta horien gainekoak komentatu ditu.

Sanmigeletan talo-txosna ere izango da, beste urte batez, baina beritasunak daude, ezta?

Bi urte xelebre pasatu eta gero, aurten, berriro San Migel jaiak



Eneritz Urrutia, 2018ko sanmigeletan taloak prestatzen. GOIENA

ganoraz ospatuko ditugu, eta, alde horretatik, pozik nago. Goizean taloak jotzen egongo naiz (gara); aurten, Mitarte kaleko lehengo bodegoian. Aurten, talo-txosnaren lekuaren aldaketa izango da beritasun, baina esentzia eta gogoia berberak izango dira bertan aritzen garenon partetik. Guztira, 60 pertsona inguru arituko gara taloak egiten, bi txandatan banatuta: 10:30etik 12:30era izango da lehengo txanda eta 12:30etik 14:30era bigarren txanda.

Zein izaten da Loramendiren talo-txosnaren helburua?

Loramendi Euskara Elkartek antolatutako talo-txosnaren helburua da dirua ateratzea urtean zehar euskararen normalizaziorako antolatzen diren ekintzetarako. Baina, aldi berean, talo-txosnak euskaltzaleon topaleku gisa ere funtzionatzen du; batzeko aukera ematen du eta tril egiteko lekua da.

Beteranoengandik ikasteko aukera ere izango du talo-txosnara laguntzera joaten denak, ezta?

Duela 24 urte, Loramendin egin nuen lan, eta Tril izeneko emakume talde bat zegoen. Orduko

emakume askok jarraitzen dute taloak egiten, eta, beraz, betiko horiengandik ikasteko aukera izango da. Gainera, *tril* hitzak *elkartzea, topo egitea...* esan gura du; hala, tril egitera animatzen ditut herritar guztiak.

Hori, zapatu goizari dagokionez. Arratsaldean, berriz, dantza saioan izango zara. Zer ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek?

Irailaren 24an, zapatua, 19:00etan, Beinke-Loramendi dantza emaldia izango izango dugu Herriko Plazan. Dantza saioekin irailaren hasieratik ari gara, eta ondo ikasita joango gara. Garai bateko Loramendi ikastolaren eta Beinke Kultura Elkartearen batzea adierazten duen ekintza da. Kanpotik jende askok historia ez ezagutu arren, sinboliko ki oso polita da. Beinke-Loramendi dantza, arin-arina eta fandangoa, eta txapeloia egingo ditugu, eta, amaitzeko, Larrain dantzarako herritar ezberdinak sartuko dira dantzara.

Dantzariak, beraz, ez dira faltako?

Zenbait urtetan dantzari larregi izan dira, baina aurtengo dantza-saioan 70-80 lagun batuko garela uste dut.





Aretxabaleta Abesbatza osatzen duten kideak, asteen, entseguan ateratako talde argazkian. MIRARI ALTUBE

Aretxabaleta Abesbatza kanturako gogoz dago

Irailaren 25ean, sanmigeletako kontzertua egingo du Aretxabaleta Abesbatzak. Angel Barandiaran zuzendariaren gidaritzapean, 19:00etan hasiko da emanaldia, Iturrigorri frontoian, eta herritarren aurrean saio ederra eskaintzeko gogoz daude

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

Sanmigeletako programazioan izango diren ekintza guztien artean, jaiei amaiera emateko kontzertuaz Aretxabaleta Abesbatza arduratuko da. Beste urte batez, ez dute hutsik egingo, eta, herritarren aurrean aspaldi ez dutela kantatu esanez, "kontzertu garrantzitsua" izango dela adierazi du Angel Barandiaranek, Aretxabaleta Abesbatzako zuzendariak, eta gogoz daudela gaineratu.

Kolaboratzaileen laguntzarekin

Irailaren 25ean, domekan, abesbatzako kideen kantuekin gozatzeko aukera izango dute aretxabaletarrek, Iturrigorri frontoian. Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta haiekin batera beste hainbat lagunerekin ere hartuko dute parte ikuskizunean. "Ohiko kantuak eskainiko dizkiegu herritarrei sanmigeletako kontzertuan; taldeko hainbat bakarlarik ere abestuko dute, eta indar handiko kantuak izango dira; esaterako, Mariatxen Urkia eta Mari Karmen Etxeandia, Jokin Bengoa, Imanol Aizpurua eta Olatz Urkia izango

dira. Haiez gain, Musika Eskolako haurrek ere parte hartuko dute saioan. Kasu horretan, hiru abesti abestuko dituzte, eta, gero, abesbatzarekin batera beste pieza bat eskainiko dute". Horrekin batera, kantua musikaz laguntzen ariko diren musikariek gain, bi dantzarik ere parte hartuko dute ikuskizunean.

Emanaldiaren bigarren zatia izango dela ikuskizuneko une bereziena azpimarratu du Barandiaranek. Izan ere, pandemia garaian hil diren guztiak omentzeko zenbait kanta eskainiko dituzte, omenaldia ondo boro-biltzeko.

Omenaldi berezia

"Pandemia garaian hil diren pertsona guztiei zuzenduta eskainiko dugu sanmigeletako emanaldiaren bigarren zatia. Garai horretan hil diren guztiei eta baita abesbatzan hil zaizkigun bost kideei ere zuzenduta izango da. Besteak beste, *Aita Gureak*, *Agur Abestia* (*Zergatik galdu itxaropen*)... piezak abestuko ditugu. Ea ondo irteten den emanaldia eta bertaratzen direnen gustukoa den".

BEROA OKINDEGIA

Basabe poligonoa 2 / Loramendi 6
Aretxabaleta

hazi

ELABORADO EN SUZARREN SUZARREN

EUSKAL OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN

EUSKO LABEL

EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIA
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

Ondo ibili sanmigeletan!

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Herri kirol erakustaldia egingo dute domekan Aretxabaletako plazan, 13:00etan, eta duatloia-rekin hasiko dute proba, Jesus Mari Mujikaren eta Aratz Mugerzaren arteko zeingehiagoka: "Aspaldian halako erakustaldietan duatloiak modan jarri dira. Ikusleek kirol ezberdinak ikusten dituzte, eta, egia esan, zaileendako entretenigarria izaten da", adierazi du eguneko protagonistetako bat izango den Mugerzak: "Ni, normalean, pentatloietan ibiltzen naiz, baina domekan duatloia egingo dugu. Hala, lehenengo zeregina izango da etzanda egongo diren sei enbor moztea –jai egitarauko programarekin alderatuta, aldaketa txiki batzuk egingo dituzte–".

Eta ondoren, plazari korrika egingo dizkiote 15 itzuli inguru: "Plazaren tamainaren arabera 15 edo 20 itzuli egingo ditugu, halako saioetan kilometro eta erdi inguru egiten dugu lasterka. Hori ez da proba luzea izaten, baina komeni da indarrak neurteza, garrantzitsua da-eta azken lanetarako fresko iristea". Izan ere, azken lan hori izango da



Aizkolari bat zutik dagoen enborra mozten, aretxabaletarren begiradapean, 2018ko San Migel jaietako erakustaldian. GOIENA

Duatloia ikusgai herri kirolen erakustaldian

Domekan 13:00etan plazan egingo duten erakustaldian, Jesus Mari Mujika eta Aratz Mugerza aizkoran ibiliko dira, baina korrika ere egingo dute. "Zutik moztu beharreko enborretara fresko iristea garrantzitsua da", adierazi dio GOIENari Mugerzak

zutik egongo diren bi enbor moztea: "Lan teknikoa da, eta nekeak zeresan handia izaten du, nekatuta zaudenean teknika galdu egiten da eta. Normalean, korrikako tartean ez da alde handirik egoten; horrenbestez, azken tarte horretan erabakiko da nor den irabazlea".

Eguraldiaren eragina

Mugerzak nabarmendu du euren egin beharreko lanetarako eguraldiak ez duela askorik eragingo –ikusleengan, gehiago–, baina ondoren egongo diren probetan eguraldiak dezente baldintzatuko du erakustaldia: "Karmele Gisasola eta Amalur Arbelaiz aizkoran ibiliko dira nor baino nor gehiago, lau egur izango dituzte zain, eta horiek ere ez dute eguraldiarekin arazorik izango. Baina Jon Unanue Goenatxo-k aterpea beharko du harriak jasotzeko, harriak bustitzen badira labainkor egoten dira eta. Hiru harri ekarriko ditu, borobila, errektangeluarra eta kubikoa. Eta, gainera, lasto altzatzea egiteko, Jose Martin Bustinza *Tubi*-ri ere ezin zaio soka busti".

Ondo pasa Sanmigelak!



PREST!



Gemes

Irudi aholkulariak



**Aurpegi eta gorputz
tratamenduak**



Ile apaindegia



Laserra



Bekainen diseinua



Makillajea

Ilargi plaza 2 • Aretxabaleta • 943 79 99 18



Aretxabaletako komertzioa bizirik!
Egin dezagun aurrera denok batera!
Gora sanmigelak!





SANMIGELAK 2022

jai zoriontsuak
herritar guztioi!



Aretxabaletako
Udala

Parte hartzea sendotzen doa Intxortako igoeran

23 lagunek egin zuten lasterketa zapatuan; hamaikak jokatu zuten Intxortako igoera, eta Salbador ermitarainoko umeen lasterketan hamabi izan ziren. Martin Egizabal (17.18) eta Saioa Ugidos (24.45) izan ziren azkarrenak helduen lasterketan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Herri mailako lasterketa kuttuna da elgetar askorendako eta aurten ere eman du ikuskizuna. Herritarren denborak hartzen dira kontuan eta gizonezkoetan egizabaldarrak izan dira aurten ere jaun eta jabe podiumean. Martin Egizabal (17.18) izan da garailea, eta ondoan izan zituen podiumean Pablo Egizabal anaia (17.46) eta Iñaki Egizabal aita (18.39). Esan behar da tarteko denbora egin zuela Julen Badiola bergararrak (17.54). Gauzak horrela, Eleder Lozanok 2015ean egindako markak jarraitzen du indarrean: 16.14.

Emakumezkoetan Saioa Ugidos (24.45) izan zen azkarrena, eta Argider Txurrukak (25.10) bigarren egin zuen. Txurrukak du, oraindik ere, markarik onena: 2019an, 23.47 egin zuen.

12 urtetik gorakoen artean nabarmentzekoa izan zen Unax Agirrek egindako denbora: 18.08. Eguneako laugarren denborarik onena egin zuen helmugan. Intxortako puntara ere laugarren heldu zen. Ona, baita ere, kategoria berean Maddi Barrutiak egindako denbora: 25.15. Gainerako parte-hartzaileak izan ziren Ibai Zabaleta (18.59), Haritz Barrutia (20.01) eta Iker Badiola (23.32).



Argider Txurruka eta Maddi Barrutia, Intxortako puntan. PELLO GORROTXATEGI

LAN ONA EGIN ZUTEN PARTE HARTZAILEEK, BAINA AURTEN ERE EZ DA MARKARIK HOBETU

Harrobia indartsu dator

Ondoren jokatu zen 12 urtetik beherakoen lasterketa. Hamabi lagun aritu ziren: zazpi mutil eta bost neska. Lehia estua izan zuten, baina denek jaso zuten sari bera.

Denborak

Mutilak +16 urte	Intxortan	Plazan
Martin Egizabal	12.02	17.18
Pablo Egizabal	12.28	17.46
Iñaki Egizabal	12.46	18.39
Neskak +16 urte		
Saioa Ugidos	17.03	24.45
Argider Txurruka	17.28	25.10
Mutilak +12 urte		
Unax Agirre	12.31	18.08
Neskak +12 urte		
Maddi Barrutia	17.35	25.15

ITURRIA: ELGETAKO UDALA

Saria bana guztiendako

Baserritarren eta artisauen azoka egunean jokatu zen Intxortako igoera, eta jendetsua izan zen azoka bera ere. Plazaren erdian eta azokako postuen artean kokatu zuten podiuma, sari banaketa egiteko, eta parte-hartzaile guztiek jaso zuten sari bana. Iraitz Lazkano alkatearen eta Ibai Etxaniz Kirol zinegotziaren eskutik jaso zituzten sariak.



Sari banaketa egin osteko talde argazkia. L.Z.L.

Udazken Jaia eta Euskaraldiko erretratua zapatuan plazan

Patata-tortilla lehiaketa iragarri du Goibekok; sagardo-upela eta Mauxitxa txaranga ere izango dira

L.Z.L. ELGETA

Urteak dira Elgetan patata-tortilla lehiaketarik egiten ez dela. Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak antolatu du zapatarako, eta, horrekin batera, sagardo-upela eta Mauxitxa txaranga iragarri ditu. Upela Oiharte sagardotegitik helduko da, eta 17:45ean zabalduko dute, plazan. 18:00etan hasiko da patata-tortilla lehiaketa. Noski, zenbat eta talde gehiagok parte hartu, hobeto. Horregatik, izena ematera animatu dituzte herriko eragileak eta norbanakoak.

Parte-hartzaileek ordubeteko tartea izango dute tortillak aurkezteko. Orduan helduko da epaimahaiaren txanda. Sari banaketa 19:30ean izango da, eta, jarraian, Irulita txarangak, zezenek eta buruhandiek giro-tuko dute festa.

Euskaraldiko argazkia

Udazken Jaia baliatuko du Elgetako Euskaraldia Batzordeak lehen kale ekintza egiteko. Euskaraldiaren aldeko argazkian parte hartzera gonbidatu ditu herritarrak, 19:00etan.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Erretiratuek egun-pasa Uxuen

Aurreko astean, 80 urtetik gorako bazkideen bazkaria egin zuten; eta aste honetan, Uxuera joan dira egun-pasa. Gogotsu ekin diote ikasturte berriari Xalbadorpe erretiratuen elkartearekin. Uxuek merezi du bisita, zalantzarik gabe. Bazkaria, berriz, Azagran egin zuten. Autobusa ia beteta joan zen Elgetatik.

OHARRAK

Bisita gidatua lubakietara domekan

Espaloiko Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik abiatuko da taldea, 10:00etan. Izena ematea beharrezkoa da: 943 79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Irakurketa talde feministaren saioa

Emakumearen mugak lan merkatuan izenburupean egingo dute saioa eguaztenean, 18:30ean, liburutegian.

Tortura testigantzak egunean

EH Bilduk antolatuta, *Bi arnas* ikus-entzunezkoa egunean, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. Iratxe Sorzabal eta Mari Nieves Diaz ama-alaben testigantzak jasotzen ditu.

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak eraginda hainbat alditan atzeratu behar izan ostean, urriko lehen aste bukaeran izango da, azkenean, *África, las dos orillas* musikalaren estreinaldia. Hiru emanaldi egingo dituzte: urriaren 1ean, 19:00etan eta 22:30ean; eta urriaren 2an, 19:00etan. Sarrerak geratzen dira oraindik: *seminarixoa.eus* webgunean eta aretoko leihtailan erosi ahalko dira; azken kasu horretan, eguaztenetan eta zinema dagoen egunetan. Urriaren 1eko bigarren emanaldirako hainbat sarrera geratzen dira, adibidez.

Frontoitik Seminarixoa aretora

Bergarako gainerako musikalak udal pilotalekuan egin izan dira, baina *África, las dos orillas* Seminarixoa aretoan egingo dute. Hala ere, nolako ikuskizuna izango da? "Berritzailea. Bai, behintzat, Bergararentzat. Seminarixoa frontoia baino txikiagoa da, baina egokiagoa; zirrriku guztiak aprobetxatuko ditugu. Obra oso koloretsua da, musika aldetik bereziki ezberdina. Beste edozein baino gehiago kostatu zaigu prestatzea, eta benetan merezi du", adierazi du eszena zuzendari Valen Moñuxek.

Goyenecheren musika oinarri

Bi ordu pasa irauten duen ikuskizunak Afrikaren esentzia eroango du Seminarixora, Donato Goyenecheren musika piezak oinarri. "Ohituta gaude popa, rocka edota musika klasikoa entzutera. Hau musika afrikarra izango da, ezberdina. Musika horri esker ikuslea inplikatu egingo da. Ikuskizuna hasi eta berehala ikusleak eszenaren parte bihurtuko dira, aktoreekin, pertsonaiekin eta musikarekin.

Atzerapenen kolpeen gaineratik, lana eta ilusioa

Pandemiak eraginda hainbat alditan atzeratu behar izan ostean, azkenean, urriko lehen asteburuan estreinatuko dute 'África, las dos orillas' musikala, Seminarixoan; bidea "luzea eta zaila" izan ostean, "inoiz baino gogotsuago" daude obraren estreinaldirako



Marije Ugalde, Donato Goyeneche, Elena Ibarbia, Kristina Markina, Jose Miguel Laskurain eta Valen Moñux, martitzenean. KOLDO ZUBIA

Ziur ikusle bati baino gehiagori *Calipso* edo beste pieza dantzagarri bat entzuten duenean butakatik altxatu eta dantzatzeko gogo emango diola", adierazi du Goyenechek berak.

"Inoiz baino gogotsuago"

COVID-19ak prestaketa garaia bikoiztu egin du denboran gainerako musikalekin alderatuta,

eta, bidea luzea bezain zaila izan ostean, "inoiz baino gogotsuago" daude obra estreinatzeke. "Estreinaldia hainbat alditan atzeratu behar izateak eragin ditu krisialdiak. Helburua argi genuen, eta orain, behin dena prest dagoela, inoiz baino ilusio handiagoa dugu estreinatzeke. Gainera, gure herrian izango da... Prest gaude", adierazi du abes-

batza arduradun Marije Ugaldek. Musika arloa zaila bezain polita dela ere gaineratu du Ugaldek: "Ederra da. Zaila bezain ederra da. Esperientzia handiko abeslariak ditugu abesbatzan, eta prozesua oso polita izan da".

Musikalen haria ez da eten

Martitzenean egindako prentsaurrekoan, esker on hitzak izan

zituena Valen Moñuxek, eta, tartean, eskertu egin zuen Bergarako Udalak eskainitako laguntza. Udaletik ez zuten zalantzarik izan musikala babesteko, hasieratik. "Balioa emateko gauzetako bat da hainbat herritarrek hartuko dutela parte ikuskizunean; berriro ere, herrian dugun altxorren adierazle", gaineratu du Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Izan ere, Bergarako Musika Eskolako ikasleak, artista gonbidatuak eta dantzariak arituko dira; Bergarako musikalen DNAn dago hainbat herritarren zuzeneko zein zeharkako parte-hartzea, eta azken ikuskizun hau ez da salbuespena izango. Pandemiak oztupo latzak jarrita ere, Bergarako musikalen haria ez da eten. "Antzerki-musikalen herria gara. Eta hori posible da jendea dagoelako sortzeko, baina baita jendea dagoelako ikustera datorrena eta sarrera ordaintzera duena", dio Moñuxek.

'Bretxa'-rekin aldi berean

Urriko lehen asteburuan estreinatu ostean, oraingoz, ezingo dute *África, las dos orillas* musikala beste herri edo hiri batera eraman, lantaldeko kide batzuk *Bretxa* musikarekin ere ari direlako lanean burubelarri. "Azken hilabeteak zoratzeak izan dira; goizean musikal bat entseatzen aritu gara eta arratsaldean bestea. Zorarena izan da, baina merezi izan du", kontatu du Moñuxek.

SARRERAK GERATZEN DIRA ORAINDIK; 'SEMINARIXOA.EUS' WEBGUNEAN DAUDE SALGAI, 20 EURO TAN

Ortuen zozketa, urriaren 5ean

80 herritarrek egin dute eskaera San Joxepeko ortu komunitarioetarako. Horietatik 75 onartu dira – erreklamazioa jarri ahaliko dute baztertuek– eta lursailak esleitzeko zozketa urriaren 5ean egingo dute, udaletxean (11:00). Guztira, 30 eta 50 metro koadro bitarteko 96 lursail aterako dira zozketara; erabili aurretik lau orduko ikastaroa egingo dute onuradunek.



J.B.

San Migel jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Angiozarren

Gaur, patata-tortilla lehiaketa (20:00) eta Katarsia eta Inguma taldeen kontzertuak (22:30) izango dituzte, besteak beste. Bihar, umeendako performance tailerra (10:00-12:00); herri bazkaria (14:30) –zapia jarriko zaie azken urteetan jaiotakoei–; eta argi festa (22:00); eta hilaren 29an, San Migel Eguna, meza, puzgarriak eta txokolate-jana izango dira.



Bergarako Low Cost Deluxe, artxiboko argazki baten, Irizar jauregiaren atarian; bihar, Seminarixoa joko dute, 22:00etan. GOIENA

Kirola eta kultura kalera ekimena, euriaren menpe

Zapaturako eta domekarako egun osoko egitaraua prestatu zuen Udalak herriko kirola eta kultura arloko taldeekin elkarlanean, baina eguraldiagatik bertan behera geratu dira bereziki kirol jarduerak; kultura ekintza batzuk egingo dira Seminarixoa

Jokin Bereziartua BERGARA

Kirol eta kultura arloetan Bergaran lanean ari diren hainbat eragileren lana kalera ateratzeko asteburua izan behar zuen datorrenak. Pandemiaren erruz 2019a ezkerro egin barik egon ostean, asteburu honetarako hainbat ekintza zeuden aurreikusita; egun osorako egitaraua zegoen lotuta zapaturako zein domekarako, baina eguraldiak asmo gehienak zapuztuko ditu.

Izan ere, Udalak atzo jakinarazi zuenez, kirol arloko jarduerak guztiak bertan behera utziko dituzte: "Domekarako dagoen eguraldi iragarpena kontuan hartuta, kalean egitekoak ziren kirol jarduerak ezingo direnez egin, ekimena bertan behera uztea erabaki da. Kultura Kaleko egitarauan jasotakoetatik batzuk, aurreikusi bezala, leku itxietan egingo dira".

Helburua, ikusi eta probatzea

Pandemia aurretik, kirola kalera ateratzeko egun bat egon

ohi zen eta beste bat egun bat kultura kalera ateratzeko, eta aurten asmoa zen bi egunak asteburu baten pilatzea. Izan ere, ekimenaren helburua da herriko elkarteek egiten duten lana ezagutzera eman eta herritarrei aurkeztea; hau da, herritarrek kirola edo kultura arloko eskaintza informatzea eta haien zaletasunekin bat egiten duen elkarerik badago bertan izena ematera animatzea.

Kirol ez, kultura bai

Kirol arloko ekintza guztiak bertan behera geratu dira, baina euriak ez du ekimen osoa zapuztuko, kultura arloko ekintza batzuk egingo dira eta. Bergarako Musika Eskolaren Mu-

BIZIKLETAN IKASTEKO SAIOAK ANTOLATU DIRA HELDUENTZAT, DOAN; IZENA EMAN BEHARRA DAGO

sika tresnak aurkitzeko prest? izeneko ginkana ez da egingo, gauditu beharreko probak kalean egitekoak ziren eta. Hori bai, biharko, hilak 24, aurreikusita zegoen Bergarako Orfeoaren, Aritzeta abesbatzaren eta Orfeoi Gaztearen kontzertua San Martin plazan zen egitekoa, baina Seminarixoa egingo dute (13:05). Eta berdin egingo dute Ttipika taldearen dantza gidatuarekin eta herriko bertako Low Cost Deluxe rock taldearen kontzertuarekin; lehena 19:00etan izango da eta bigarrena 22:00etan, Seminarixoa.

Helduendako bizikleta ikastaroa Udalari, Lokatzari eta Diputazioari esker, bizikletaz ibiltzen ikasteko ikastaroak egingo dira, helduei zuzenduta. Ordu eta erdiko lau saio izango dira, irailaren 27an eta 29an eta urriaren 4an eta 6an, 16:30etik 18:00etara. Ikastaroa doakoa da, baina aurrez izena eman behar da (649 69 33 02).

Garraio publikoko deskontuak herribusean ere nahi ditu EAJk

Jeltzaleek Udal Gobernuari eskatu diote "ugariak" izan daitezkeen abantaila horiek lortzeko lanketa egin dezala

J.B. BERGARA

EAEko garraio publikoan ezarri diren deskontuak herribusaren zerbitzuan ere aplikatzeko eskatu dio EAJk EH Bilduri: "Herribusa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako kide ez izan arren, beharpenekin bat egitea eskatzen dugu. Bide batez, herribusa Gipuzkoako garraio publikoaren sarean sartzeko aukera aztertu egin beharko litzateke".

Mugikortasun plana, "kaxoi baten"

EAJko bozeramaile Maite Agirrerren arabera, "familien egoera

ekonomikoa arintzea" eta, bide batez, herritarrek garraio publiko "gehiago erabiltzea" sustatu ditzake proposamenak. Dio gaur egun txartelik ez duten herritarrek 1,10 euro ordaintzen dutela eta txartelarekin 0,60 euro. Hala, beharpen berriekin, txartelarekin ordainduz gero, 0,30 euro ordainduko litzateke bidaiariak herribusean. "Argi dugu mugikortasuna hobetzeko lanketa aurrerapausoak eman behar direla. EH Bilduren mugikortasun planak kaxoi baten gordeta jarraitzen du", diote Agirrek.

OHARRAK

Euskaraldia: ekintzak zehazteko bilera irekia

Ekimenaren hirugarren edizioa begirako plana zehazteko, Barrenkaleko 35. zenbakian kokatuta dagoen Euskaraldiaren lokalean elkartuko dira, irailaren 27an, 18:30ean.

Pentsiodunen protesta, banketxeen aurrean

Pentsiodunek "banketxeen abusuak" salatzeako banketxeen aurrean egingo dute hurrengo protesta, hilaren 26ean, 12:30ean.

Jardun: 8 urtetik gorakoentzat antzerki eskola

Egubakoitzetan elkartuko dira, Zabalotegi aretoan. Izena emateko: jardunkultura@topagunea.eus edo 605 71 24 69.

Kukubaso elkartearen eskutik, ezkur bilketa

Urriaren 1ean elkartuko dira, Miguel Altunaren egoitza berrian (10:00). Agirretxeberriko lursailera joango dira: "Haritz eta arte ezkurak jaso nahi ditugu, han prestatzen ari garen mintegian landatu edo bakoitzak bere etxera eraman eta zaintzeko".

Ehunduren trebakuntza saioa hilaren 27an

Tapuntu enpresako Mikel Olaiz komunikazioaz eta marketin komunitarioaz arituko da; UNEDen izango da, 17:00etan.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
 KALITEA
 Enpresa Registrada N°90/025

SANMARTINAK 2022 BERGARAN



Pandemia aurreko irudia utzi zuen San Martin plazak helduen danborradaren amaieran. ARGAZKIAK: A. AGIRIANO, O. ELORTZA ETA I. SORIANO

Danborrada jendetsuena eta asteburua bereziki mugitua jaiak agurtzeko

Pandemiaren mugak gaindituta, bergararrek oso gogotsu hartu dituzte sanmartinak, eta igarri da, besteak beste, helduen danborradan 700 lagun inguruk hartu zutelako parte, inoizko kopuru handiena; bigarren asteburuko gainerako ekintzetan ere jende asko ibili da

Jokin Bereziartua BERGARA

2020an eta 2021ean ez zen danborhotsik entzun Bergarako kaleetan eta herritarrek gogo berezia zuten aurten danborradan irteke. Helduen danborradan 700 lagun baino gehiago irten ziren, kalejira ezin koloretsuagoan. Azken urteetan euriak baldintzatu izan du bereziki helduen danborrada, baina aurten, justu-justu izan bada ere, ateri eutsi zuen. 22 taldek hartu zuten parte; horietatik bi berriak izan dira: Pirañak eta Txiri.

Bestetik, *Lagun artean* eta *Danbor txikia* piezak jo zituzten estreinakoz; azken martxa hau umeen danborradaren bultzatzaile nagusi izan zen eta ekainean zendu zen Pello Garitano omentzeko sortu du bandako zuzendari Enrike Txurrukak. Hilaren 16ko umeen danborradan ere gogoan izan zuten Garitano.

"Jende asko" Munibe plazan

Xaxauren txosnagunea ere Munibe plazara itzuli da aurten. Jai herrikoien konpartsaren balorzio orokorra "positiboa" da: "Ekin-tza guztietan egon da jende asko eta azpimarratzekoa da adin askotariko herritarrek etorri direla Munibera. Horrek asko pozten gaitu. Bestalde, esker ona adierazi nahiko genieke ekintzok gauzatu ahal izateko lagundu diguten boluntarioei. Amaitu dira sanmartinak eta laster jarriko gara Pentekosteei begira; ateak zabalik ditugu lagundu nahi duen edonorentzat". Udalak

IKUSMINA PIZTU ZUEN 'QUEJOSO' ZEZENAK; PLAZARA LEHEN ALDIZ IRTETEN ZELA-ETA, MANTSO ARITU ZEN

datorren astean emango du balorzioaren berri.

Sokamuturra eta dantza

Aurten ikusmin berezia piztu duen ekintzetako bat izan zen hilaren 17ko sokamuturra. EAEn lehen aldiz zezenketetarako zezen garbi bat askatu zuten San Martin plazan, *Quejoso* izenekoa. Errekortadoreek ikuskizun polita eskaini zuten; hori bai, *Quejoso* bera mantso ibili zen. "Txispa apur bat falta izan zaio", dio Bergarako Zezenak ganadutegiko Iñigo Almortzak.

Eta sanmartinetako klasiko bat den Moises Azpiauren omenezko dantza askatu txapelketan, Maren Galvez eta Gorka Granado izan ziren irabazleak, Lezo eta Sopelatik etorritako bikotea. Julen Murgiondo eta Saioa Gallarraga bikote bergarra bigarren geratu zen.



Umeen danborradaren hasiera, udal biltegitik.




Xaxauren hilaren 17ko herri bazkarian ia 200 lagun elkartu ziren.



Quejoso zezenak ikusmina piztu zuen errekortadoreen eta herritarren artean.



Gorka Granadok eta Maren Galvezek irabazi zuten dantza askatu txapelketa.



18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**481 argazki jaso ditugu.
Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

Irailaren 23tik 28ra arte, zure
argazki gustukoena aukeratu ahalko
duzu (**PUBLIKOAREN SARIA**).
Sar zaitez Goiena.eus webgunean
eta eman zure botoa!

Eta adi egon! Irailaren 30ean, 18. Udako Argazkien Goiena
Lehiaketaren irabazleak aditzera emango ditugu! Zorte on!



Bidegurutzea | Argazkia: Peli Beltran de Heredia (Aretxabaleta)



Osh, Kyrg | Argazkia: Gaizka Untzueta Irasuegi (Arrasate)



Amakin-hamakin-amaking | Argazkia: Xabier Zabala Urriategi (Bergara)



Cadini Group (Italia) | Argazkia: Uxue Otxoa (Arrasate)



Portimao (Portugal) | Argazkia: Jorge Polo (Eskoriatza)



Costa Rica | Argazkia: Izar Morillas Igartua (Bergara)



Egungentia Ayous lakuaren ondotik | Argazkia: Maripi Laskurain (Antzuola)



Ibilbidean atsedena | Argazkia: Maipi Urteaga (Oñati)



Leixargarate | Argazkia: Beñat Abasolo Mujika (Aretxabaleta)



Ortuko fruituak | Argazkia: Ana Mari Ugarte (Aramaio)



Argazki guztiak kanal
berezi honetan:
<https://labur.eus/uda-koargazkiak-2022>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jateetxea

BERGARA
EREIN
DA
JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA



Xabier Salaberri eta Itziar Mondragon, Araozko ostatuaren kanpoaldean. O.E.

Zabalik dago, gaurtik, Araozko ostatua

Edariak eta momentuan egindako jakiak eskainiko dituzte goizetik gaueraino tabernan eta apartamentuak ere alokatzeko moduan daude dagoeneko. Auzotarren topaleku eta bisitarien atseden leku izatea gura dute arduradunek

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zabalik dago Araozko ostatua. Dagoeneko joan daiteke hara eta jatekoa zein edatekoa eskatu. Baita alokagai dauden hiru apartamentuetako baten ostatu hartzeko eskaera egin ere. "Oso pozik gaude. Badugu gogoia jendea hartzeko eta dugun guztia eskaintzeko", dio ostatua hartu duen Itziar Mondragonek.

Ez dute sukaldea itxiko

Edariak ez ezik, jatekoak ere eskainiko dituzte. "Ostatua zabalik dagoen egunetan sukaldea ere horrelaxe egongo da, zabalik, ez dugu itxiko eta hona datorrenak beti eskatu ahal izango du zerbait beroa jateko, izan salda edo izan errazio, plater konbinatu edo ogitarteko. Glutenik gabeko platerak ere prestatuko ditugu, eta baita beganoak ere".

Horixe da ostatuan lanean ibiliko diren Mondragonen eta Xabier Salaberriren asmoa, "jendeari eskaintzea behar duena eta gertuko tratua". Eta taberna

batek eman dezakeen zerbitzuaz harago, inguruko informazioa ere eskainiko dute, eta inguruko ekoizleen produktuak saldu. Tarteka zuzeneko musika emandiren bat edo hitzaldiak zein tertuliak antolatzea ere ez dute baztertu; aztertzen ari diren aukera bi dira.

Auzoko argazkiak paretetan

Uztailaren 8an sinatu zuen Itziar Mondragonek bost urterako kudeaketa ardura Udalarekin, eta, harrezkero, ostatua atontzen, janzten eta herritarrei zein bisitariari zerbitzua emateko egokitzen aritu da Salaberrirekin batera. Ostatua non dagoen ahaztu barik, auzoko argazki zaharrak daude, esaterako, os-

SALABERRI ETA MONDRAGON HAN BIZIKO DIRA, ETA ZERBITZUA EMATEKO GOGOZ DAUDE

tatuko paretetan eta gailu guztiekin hornituta dauden apartamentuek ere leihoak zabaldu eta handik ikusten diren mendi tontorren izena dute: Aitzulo, Ugaztegi, Andarto eta Aloña. Azken horretan biziko da bikotea, eta beste hirurak alokatzeko dituzte; horietako bat, ego-kitua.

Auzotarrekin batera

Auzotarrekin batera egin zuten irekiera atzo, eguena, iluntzean. "Bertako, auzoko, proiektua da, auzotarren topaleku ere izango da. harrera oso ona egin digute eta lagundu ere bai, asko. Garbi genuen horrela hasi nahi genuela". Gaurtik aurrera, beraz, zabalik dago, 10:00etatik 22:00etara, behintzat; neguan eta udan, baina, ordutegi eta egutegi ezberdinak izango ditu. Harrematarako bideak dira: 613 11 20 85 edo araozkoostatua@gmail.com. Sare sozialetan ere badaude, eta badute webgunea: www.araozkoostatua.eus.



Beatriz Artolazabalek eguaztenean Santa Anan egindako hitzaldian. L.Z.

Beatriz Artolazabal sailburuak zabaldu du EAJren hitzaldi sorta

Egungo eta etorkizuneko gizarte politikez aritu zen eta Euskadi Lagunkoia programa ere azpimarratu zuen

O.E.G. OÑATI

Urte amaierara bitarteko hitzaldi zikloa abiarazi du Oñatiko EAJk, eta astean egin du lehenengo saioa Santa Ana antzokian. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabal izan zuten gonbidatu nagusi, eta ekitaldian izan ziren, besteak beste, Oñatiko eta bailarako hainbat ordezkari jeltzale.

Gobernantza eredu berria

Gizarte politika eta zerbitzuen etorkizunaz aritu zen Artolazabal, eta etorkizuneko politikek hiru erronka nagusiri erantzun behar dietela adierazi zuen: "Eraldaketa klimatikoa, eraldaketa ekonomiko-digitala eta eraldaketa demografikoa. Duintasuna eta giza eskubideak izango ditugu oinarri. Zaharkitutako gizarte batean bizi gara eta honelako gizarteek dituzten

ezaugarrietara egokitutako politikak garatu behar ditugu. Zaintzara, familietara, migrazio egoeretara eta gazteen emantzipaziora bideratutako politikak dira gure helburua".

Sailburua pertsonak ardatz izango dituen gobernantza eredu berriaz ere aritu zen, eta Euskadi Lagunkoia programa azpimarratu zuen, eta esperientzia egiaztatua duela gaineratu zuen: "Osasunaren Mundu Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak sustatzen dute eta, besteak beste, adinekoen bizitza autonomoa indartzen du, eta haren helburuen artean dago prebentzioa eta zaintza jomugan izatea, bakardadea edo isolamendu egoerak gainditzeko. Proiektu hau adineko pertsonen zuzeneko partaidetzarekin erailkiko da".

Lourdes Idoiak adierazi zuen "gaurkotasuneko gaiak lantzen" jarraituko dutela.

Udazkenean batuko dute Degabel elkarteak ganadua

Debagoieneko Abeltzainen Elkarteko (Degabel) bazkideen ganadu bilketa udazkenean egingo dute. Urtero bezala, behiak, zezenak, txahalak, moxalak eta behorrak batuko dituzte. Txahaletan, beharrezkoa da mihi urdinaren aurkako bi txertoak jarrita izatea. Interesdunek 943 78 16 48 telefonora deitu behar dute irailaren 30a baino lehen.

Gaztetxoendako fitness saioak egongo dira Zubikoan

Taldeakako fitness ekintzak eta bestelakoak egongo dira Zubikoa kiroldegian gaztetxeakoendako, hala nola yoga, crossfita, fitbikea eta zumba, azken hori baita LH-4 eta LH-6 maila arteko gaztetxoendako. Urriaren 4an hasiko dituzte saioak eta izena irailaren 30a aurretik eman behar da kiroldegian. Telefono bidez egiteko bidea: 943 71 63 75.

"Lorpenak eta erronkak aztertu gura ditugu"

MADDI TXINTXURRETA EUSKARALDIKO DINAMITZAILEA OÑATIN

Herriko hainbat entitatek eman dute izena dagoeneko Euskaraldian eta norbanakoak eguaztenetik aurrera batu ahal izango dira hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoa

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Maddi Txintxurreta oñatiarra da Euskaraldiaren herriko dinamizatzailea. Aste honetan egin dute lehen bilera irekia eta hasita daude lanean.

Nolako hasiera izan du Euskaraldiak Oñatin?

Aste honetan egin dugu lehen bilera irekia, eta Euskaraldiaren nondik norakoak azaldu, aurtengoaren kantua entzun eta bi herritarrek egitasmo honen inguruan egindako bertsoak entzun ditugu, adibidez.

Nolako lanketa egingo da aurtun?

Azken edizioaren formula bera jarraituko dugu. Bi rol egongo dira norbanakoendako: *belarriprest*-a edo *ahobizi*-a. Eta entitateendako, ariguneak sortzeko deialdia egin da, euskaraz lasai hitz egiteko guneak sortzeko: enpresetan, zerbitzuetan, ostalaritzan... Pegatina baten bitartez adieraziko da gune horietan euskaraz komunikatu ahal izango garela. Norbanakoen rola, bestalde, hizkuntzarekiko bakoitzak hartzen duen konpromisoaren araberakoak izango dira, ez beti hizkuntza gaitasunari lotutakoak.

Zeintzuk dira epeak batean edo bestean izena emateko?

Entitateendako izen ematea zabalik dago urriaren 15era arte. Batzuk dagoeneko batu dira egitasmoa, baina gainerakoak ere animatu gura ditut gai honen inguruan berba egitera eta ea talde moduan parte hartu gura duten hausnartzera. Euskaraldiaren webgunean sartuta edo gurekin harremanetan jarrita egin dezakete. Norbanakoen izen-ematea, berriaz, irailaren 28an zabalduko da eta bi hilabetez egongo da zabalik. Aurtun, baina, aurretik izena emanda dutenek mezua jasoko dute parte-hartzeaz galdetzen, eta berretsi baino ez dute egin behar. Rolak edo entitateetako datuak aldatu ahal izango dira, baina



Maddi Txintxurreta, aurtengo Euskaraldiaren iragarpenekin. M.T.

"BELARRIPREST' ETA 'AHOBIZI' ROLAK ETA ARIGUNEAK EGONGO DIRA AURTENGO EUSKARALDIAN ERE"

berriek baino ez dute izena emango, aurrekoek atxikimendua berretsi bakarrik.

Zer egingo duzue jendea Euskaraldira batzeko?

Entitateetara bisitak eta bilerak egingo ditugu, adibidez, baita gutunak bidali ere. Hilaren 26an, esaterako, bilera egingo dugu Euskaldun Berria gelan herriko elkarteekin, 19:00etan, eta dendariekin 15:30ean. Norbanakoe-kin ere egingo dugu lan; kalera aterata, adibidez. Aste honetan batu da batzordea lehenbiziko aldiz, baina badago ekintzak antolatzeke gogoia.

Ze arrasto utzi dute aurreko edizioek?

Aurtengo Euskaraldiako lorpenetan eta erronketan gura da fokua jarri. Oñatin egongo da espazio bat, adibidez, jendeak adierazteko aurreko edizioetan egindako ariketekin ze lorpen lortu zituen eta aurtengorako

ze erronka jarri dituen. Taldean zein banaka egin daitezkeen ekarpenak izango dira. Hizkuntza ohiturak aldatzea da lortu gura dena. Eta poliki-poliki lan eginda eragin daiteke aldaketan. Norberak pentsatu behar du ze hizkuntza ohitura dituen. Egunerokotasuna euskaraz egitea da helburua, lanean, lagunartean zein etxean.

Ze ekintza egingo dira Oñatin Euskaraldiaren barruan?

Ideiak baditugu, eta aurrera eramango ditugu, egingarriak diren neurrian.

Non erosi daiteke materiala?

Materiala erosi dugu eta Herri Egunean kalean jarriko dugun postuan egongo da ikusteko eta probatzeko. Eskaerak apuntatu eta eskaera osoa batera egitea pentsatu dugu. Bestalde, urrian etorriko den furgonetan ere erosi ahal izango dira, eta baita webgunearen bitartez ere.

Noiz da hurrengo bilera?

Jaiaren ostean, urriaren 5ean, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan. Hala ere, edozein momentutan jar daiteke harremanetan gurekin edonor: 688 67 93 04 edo onati@euskaraldia.eus.



1562. Lope Agirreren estatua laneko —azkena— aktoreak, joan den abenduan. M.B.

Jarduna etetea erabaki du Olaitturri kultura elkarteak

Orain arte egindako antzezlan guztietako materiala Interneten jarri dute herritarren eskura

O.E. G. OÑATI

1977an egin zuten Makalena elkarteak hainbat bazkidek lehen herri antzerkia, herri ezteia irudikatuz. Harrezkero, tartean etenaldia egin arren, makina bat antzezlan egin dute; Lope Agirreren ingurukoa azkena, iazko Gabonetan. Astean, baina, jakinarazi dute orain arteko jarduna etetea erabaki dutela. Aurtengo jaietan, beraz, ez da herri antzerkirik egongo.

Oñatikoak, eta herrirako

Oñatiko historiari lotutako antzezlanak izan dira egin dituzten

denak, euskaraz guztiak, eta herritarrei eskainiak. Herriko hainbat lekutan antzeztu dituzte, izan plazan, parrokan, kiroldegian, Lazarragan edo Santa Ana antzokian. Inaxio Irizarrek egin izan ditu gidioak, artxiboko lana egin ostean, eta gaiaren inguruko kultur hamabostaldiak ere prestatu izan dituzte, hitzaldiak eginez. Testu horiek guztiak, argazkiak eta bideoak ere <https://olaitturri.blogspot.com> atarian eta liburutean daude jasota. Baita egiteke gelditu den Kataberaren gainekoa ere.



NIRE USTEZ

ARANTZAZU UGARTE

Nork helduko dio erronkari?

Iraila heldu da. Irakasleok aurpegi berrien izenak ikasten dihardugu; baita beraien arteko keinu konplizeak, lagunkoia, edota begirakune gogorrak antzematen ere. Eta urtero lez, antzeko patroien testigu izango gara.

Duela gutxi bezala, eskuak burura eramaten ditugu *bullying* kasu gogor baten berri daukagunean. Eta ez da gutxiagorako! Baina ez gaitezen muturreko kasu bati begira geratu. Denak izan gara ume eta nerabe; denak izan gara noizbait testigu, edo konplize, lagun bati iseka egin diogunean, negarrez bukatu arte; ala kuadrillatik bota dugunean. Baliteke guk geuk halakorik jasan izana noizbait.

Irakasle eta gurasok, txalupa bereko bi aldeetatik egin behar dugu arraunean norabide berean, ezer onik lortu nahi badugu; ezinbestekoa dugu ikasleekin zein gure seme-alabekin hitz egin, eta alderdi hauei erreparatzea. Lagunekiko jarrera behatu, eta okerrak direnak bideratzen saiatzea. Lagun onak izan ditzaten, eta lagun onak izan daitezen.

Guztiona da erronka!



2019ko enduro lasterketan, pilotu bat aldapa behera, ikusleen begiradapean. MARKEL BAZANBIDE

Anporretan eta Bakuen behera 173 pilotu etzi

MENDIKO BIZIKLETA Domekan egingo dute, Arrasaten, Euskal Herrian antolatzen duten enduro lasterketa bakarra. Bosgarren edizio honetarako inoiz baino lan handiagoa hartu dute antolatzaileek. Lehenengo pilotua 07:30ean abiatuko da, Arruenatik

Xabier Urzelai ARRASATE

Domekan egingo dute Arrasateko enduro lasterketaren bosgarren edizioa, eta, 07:30ean hasita, 173 pilotu abiatuko dira Arruena parketik, banan-banan, antolatzaileek proposatutako zirkuitua egitera -31 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboa-. Aurtan, jaitsiera bat gehiago egingo dute, bost, baina

zirkuituko lokatz kopuruak baldintza dezake azken jaitsiera hori egitea edo ez. Bost jaitsiera horietako bi sekretupean gordeko dituzte antolatzaileek, eta, horietako bat egiteko pilotuak Anporretatik eta Bakuetik apur bat urrundu beharko direnez, hori da zalantzan dagoen jai-tsiera. "Joango gara erabakitzen bosgarren jaitsiera hori sartu

edo ez. Pilotuek ordu eta erdi gehiago beharko dute jaitsiera hori egiteko, eta, oso eguraldi txarra badago, ez dugu sartuko, ez du merezi goiza behar baino gehiago luzatzea, horrek ez du lasterketa hobetuko", dio Asier Rosadok.

Hala, pilotuek zapatua baliatuko dute bost jaitsiera horietako hiru entrenatzeko: "Aurre-

ra genezakeena da Anporreta eta Bakue inguruetan daudela, gutxienez, hiru jaitsiera. Besteak non dauden ez dugu aurrez esango. Eta aurreikuspena da sari banaketa ekitaldia 15:30 aldera egitea". Ondoren, parrillada egingo dute.

Pozik parte-hartzearekin

Antolatzaileek egindako lanak erantzun ona izan du: "Espainiako txapelketa Arrasaten antolatu genuenean baino hogeita pilotu gutxiago izango ditugu, eta hori datu ona da. Alde horretatik,

gure kasa ibili gara lasterketa antolatzen, eta eskertzen da. Horrekin batera, nabarmentzekoa da kadete mailako hamazazpi pilotu izango ditugula -13 eta 16 urte bitarteko gazteak-; horrenbestez, kirol hau gazteen artean ere zabaltzen dabil".

OSO EGURALDI TXARRA EGITEN BADU, BOST BEHARREAN LAU JAITSIERA EGINGO DITUZTE

"Lokatzetara azkar ohitzea klabea izango da aurrean ibiltzeko"

ASIER ROSADO ANTOLATZAILEA

Bosgarren edizioa, eta inoiz baino lan handiagoa?

Halaxe da, bai. Batetik, bidezidorrak atontzen inoiz baino lan handiagoa hartu dugu; bost bide izango dira, eta horietako bi sekretupean gordeko ditugu. Baina, bestalde, zerbitzu batzuk asko garestitu dira, arazoak izan ditugu beste zerbitzu batzuk kontratatzeko... Zorionez, lotuta dago dena.

Eguraldi txarra iragarri dute...

Euri apur bat egitea ez zaigu txarto etorriko, mendia oso siku dagoelako. Baina asko botatzen badu, proba baldintzatu dezake, bai. Bost jaitsiera aurreikusi ditugu, baina lokatz asko badago, horietako bat bertan behera utziko dugu, lau egingo ditugu, lasterketa asko luzatuko litzatekeelako.



GOIENA

Hilabeteak lokatzetan ibili barik. Erabakigarria izan daiteke?

Bai, zalantza barik. Hilabete asko daramatzagu siku ibiltzen, eta, halako batean, lokatza. Gurrpil-azalak aldatu beharko ditu jendeak, eta baldintzetara ondo egokitzen denak abantaila izango du. Aspaldian lokatzetan ibili ez bazara, hasierako sentsazioak ez dira onak izaten. Pilotuek zapatua izango dute horretarako.

"Oraingoan, Bilboko duatloiko emaitza gutxienezkoa izan da"

JUAN MARTIN ELEXPURU ANTIXINTXIKAKO TRIATLETA Europako txapelketan ez da Espainiako jantziar lehiatu

X.U. BERGARA

Europako Duatloi Txapelketa jokatu zuten zapatuan Bilbon, eta, antolakuntzaren eskaeren gainetik, Bergarakoak muzin egin zion Espainiako jantziekin lehiatzeari. Antxintxikako elas-

tikoarekin egin zuen lasterketa, Gu Ere Bai ekimenarekin bat eginda.


Hasteko, zorionak! Bosgarren izan zara zure adin tartean [70-74].

Eskerrik asko. Oraingoan, baina, emaitza gutxienezkoa izan

da, nahiz eta kirolariok horri begira egiten dugun lan.

Aldarrikapenerako lasterketa izan da, baina, oraingoa.

Bai. Euskal selekzioen ofizialtasunaren aldeko elkarte Gu Ere Baik abuztuan salatu zuen Europako Duatloi Txapelketan parte hartzeko ezinbestekoa zela herrialde bakoitzeko uniforme ofiziala erostea, eta, beraz, Espainiako edo Frantziako elastikoak janztera behartuta geunden gu. Nik oso garbi neukan ez nuela halakorik jantziko.



Elxepuru, duatloiko helmugan. J.M.E.

Lasterketak berak dakarren nekeari tentsioa batu behar...

Bai, lasterketara sartzeko kontrolatan gezurretan ibili behar izan nuen, elastikoa tapatzen, eta deskalifikatuko ninduten beldur ere banintzen. Baina sailkapen ofizialean azaltzen naiz, bete dugu helburua. Oraingo asteburuan duatloiko proba nagusia egingo dute eta hor euskal herritar askok emana du izena. Ez dakit inor animatuko ote den gauza bera egitera, gure ziliborrari begira gabilta denok.

AEDk ez du antolatuko Oñati-Arrasate proba

ATLETISMOA Lasterketa bi urtean antolatu eta gero, Arrasateko euskara elkarteak hausnarketa prozesu baten ondoren erabaki du aurten fokua Euskaraldian jartzea. "Ez da pandemiagatik izan; neurtu egin behar da indarra non jarri", dio Itxaro Artolak

Xabier Urzelai ARRASATE

Udazkenean bailaran izan ohi den hitzordu kuttunetako batek kale egingo du aurten: Oñati-Arrasate herri lasterketak, hain zuzen. Urteetan Oñatiko Antxintxiketan atletismo taldeak izan du lasterketa antolatzeko ardura, besteak beste, Arrasate Atletiko taldekoen laguntzarekin, eta orduan, Arrasate-Oñati izena zuen probak. Hala, 2018an AED elkarteak hartu zuen lasterketa antolatzeko erreleboa, eta hor ere atletismo taldekoen laguntzarekin eta beste kolaboratzaile askorekin, bi edizio arrakastatsu antolatu zituzten, 2018an eta 2019an.

Hirugarren edizioa antolatze-ko gupilean sartuta, pandemia tarteko AEDk bertan behera utzi behar izan zuen 2020ko edizioa, eta, bi urteko hutsunearen ondoren, udazken honetan ez da lasterketarik egongo. "Ez da pandemiaren ondorioz hartutako erabakia izan, iaz euskara elkartearen baitan egindako

hausnarketa prozesu baten ondorioz hartutako erabakia izan da. Bi edizio hauek erakutsi digute ze lan dagoen halako lasterketa baten atzean, sarritan esan dugun hori; halako hitzordu batek antolaketa ia profesionala eskatzen du, eta gu ez gara profesionalak", dio Itxaro Artolak. Hala, AEDtik nahiago izan dute kirol hitzordu bat antolatu beharrean indarrak neurtu eta fokua Euskaraldian jarri –2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean izango da Euskaraldia–.

Euskararekin hartu-eman estua Oñati-Arrasate, edo Arrasate-Oñati, ez da lasterketa arrunta, historikoki kirol hitzordu horrek hartu-eman estua izan

AED-K BI URTEZ ANTOLATU DU PROBA; AURTEN, INDARRA EUSKARALDIAN JARRIKO DUTE

du euskararen normalizazioaren aldarrikapenarekin. 80ko hamarkadan sortu zuen Oñatiko atletismo-zale talde batek, eta ondoren, Oñatiko Laixan euskara elkarteak hartu zuen proba antolatzeko ardura –AEDkoen laguntzarekin–.

Urte batzuen ondoren, lasterketak beherakada izan zuen –2009an ez zuten antolatu–. Baina 2010etik 2017ra, Oñatiko Antxintxiketan taldeko lagunek sekulako bultzada eman zioten probari, 300 lagunetik gora batzeraino. 2017an, talde horrek erreleboa eskatu zuten, bestela ere beste lasterketa batzuk antolatzen nahikoa lan zeukatela. Eta 2018an, euskara elkarte baten babesera etorri zen, ostera ere, proba. Esanguratsua izan zen AEDk 35 urte bete zituela 2018an eta efemerideak bat egiten zuela lasterketaren 35. urteurrenarekin. Erreleboa nork hartuko zain geratuko da, berriz ere, Oñati-Arrasate, edo Arrasate-Oñati.

Puntu bakarra duten UDA eta Bergara aurrez aurre domekan

FUTBOLA Ligako hirugarren jardunaldian beste derbi bat; lehen garaipenaren bila zelairatuko dira bi taldeak

X.U. ARRASATE

Ligako hirugarren jardunaldian hirugarren derbia jokatu dute bailarako ordezkariak. Oraingoan, Aretxabaleta eta Bergara izango dira aurre aurre, San Migel jaia tarteko, ezohiko ordutegian (zapatua, 11:00, Ibarra); ligan lehen garaipena eskuratu nahi dute bi taldeek, puntu bana dute eta.

Mondrak ere etxean jokatu du zapatuan (16:30). Moreek ere puntu bat batu dute lehenengo bi jardunaldietan, eta oraindik esku hutsik dagoen Amaiak Baten bisita izango dute Matiasen mutilek. Oso ondo hasi direnak oñatiarrak dira. UDaren kontra irabazi egin zuten (1-2), eta joan den astean, Eztalan, 3-0 hartu zuten mendean Hernani. Punturik batu ez duen Beti Gazteren kontra jokatu dute domekan, Lesakan (17:00).



Txino eta Xabi –artxiboko irudia–. GOIENA

Leintz Arizmendi eta Bergara

Kategoria bereko emakumezkoek etxean jokatu dute. Gaur, egubakoitza, jokatu du Leintz Arizmendik Beti Gazteren kontra (21:00, Mojategi) eta domekan Bergarak Urola hartuko du (18:00).

SASKIBALOI/A Euskal Kopako partidua jokatu du MUK

Euskal Kopako lehenengo jardunaldian Easoren kontra galdu eta gero –joan den astean atsedean izan zuten–, Mondragon Unibertsitateak domekan izango du Euskal Kopan aurrera egiteko beste aukera bat (18:30, Iturripe). Julen Berrocalen mutilek Tabirako izango dute aurrean. Emakumezkoen taldeak, berriz, urriaren 2an hasiko dute liga.

MENDIKO BIZIKLETA Irteera egingo dute urriaren 1ean Aretxabaletan


Datorren zapatuan, urriak 1, mendi bizikleta martxa egingo dute Aretxabaletan (09:00, plazan. 15 euro). Antolatzaileek hiru ibilbide jarri dituzte aukeran. Hala, sasoi onean daudenek 50 kilometro eta 2.000 metroko desnibela gainditu beharko dute, baina ibilbide ertaina (40 km) eta motza (30 km) ere egongo dira aukeran.

MENDIA Irailaren 25a da Aiba!-n izena emateko azken eguna

Urriaren 2an egingo dute Aramaioko ibarrari buelta ematen dion mendi martxa, eta *zirkuitua.com*-eko webean eman daiteke izena, irailaren 25era arte. Berrikuntza moduan, aurtengo ibilbide luzea, 41 kilometro eta 2.900 metroko desnibel positiboa duena, Euskal Mendi Federazioaren Iraupen Luzeko Ibilbideen Zirkuituaren barnean dago.

ARETO FUTBOLA Liga hasiko dute maila nazionaleko taldeek

Iazko denboraldi amaiera ederraren ostean –bi taldeen artean egon zen igoera fasea jokatzeko txartela, eta Eskoriatza sailkatu zen–, asteburuan hasiko dute bi talde horiek maila nazionalen liga. Arrasatekoek Elorrietako hartuko dute bihar (16:30, Musakola) eta Eskoriatzakoek Kukuyagakoen kontra jokatu dute (18:00, Manuel Muñoz).



Oñati-Arrasate lasterketaren 2019ko edizioan, bi lasterkari helmuga gurutzatzen, pozarren. GOIENA

Txapelketan arituko dira bertsolari aramaioarrak

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia hasiko da bihar, eta parte hartuko dute Peru Abarrategi eta Manex Agirre bertsolariek. Batak lehen aldia du eta besteak, bigarrena; dena den, biek uste dute "aldaketa une batean" dagoela bertsolaritza

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Iaz zen egitekoa Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, baina urtebete atzeratu behar izan zuten, izurritearengatik. Azkenean, bihar emango diote hasiera, Getxon (Bizkaia), eta Arrasaten izango da hurrengo saioa, etzi. Bertsozale Elkartearen arabera, bertsolariak ez ezik, publikoa ere "irrikaz" dago, eta Gontzal Agote talde antolatzaileko kideak, berriz, uste du "orain arteko aldiak bertso mundua hankaz gora" jarri badu ere, egon dela heldulekurik. "Bertso plaza berpiztu egin da". Bada, 41 bertsolari arituko dira plaza horretan, eta tartean dira Peru Abarrategi eta Manex Agirre aramaioarrak ere.

Biharko saioan abestuko du Abarrategik, Arabako txapela eskuratuta. "Uste dut baietz, prest nagoela. Sentsazio berriak dira niretzako, baina gozatzea dut asmo; txapelketa nagusian egonda, hala ez egiteak amorrua emango lidake". Agirrek, aldiz, Gasteizko saioan hartuko du parte, urriaren 2an. Dena den, aitortu du "oraindik hotz samar" dagoela. "Sailkatu ginenetik genekien bazetorrela, udaberri-tik, baina benetan orain ari gara kontziente egiten".



Peru Abarrategi eta Manex Agirre, eguaztenean, Aramaion. XABIER URZELAI

Zehazki, hamalau saioko txapelketa izango da. Lehenengo fasean, 36 bertsolari arituko dira, eta talde bakoitzeko irabazleak zein puntu onenak dituztenak igaroko dira finalurrekoetara. Lehenengo itzulian, azken txapelketako finalistekin batera arituko dira bertsotan, eta fase horretako irabazleak zein puntuazio onena dutenak bigarrenengo pasatuko dira. Azkenik, Maialen Lujanbio gaur egungo txapel-dunak eta finalerdikoetako zazpi bertsolaririk onenak ariko dira finalean.

Iruñeko Nafarroa Arenan egingo da, bertsogintza Euskal Herriko txoko gehiagotara hedatzeko, azken urteetan BECen (Bizkaia) egin izan baita.

Aurre-esperientziak

Bi bertsolariek azaldu dutenez, nahiz eta udara "garai nekeza" izan, elkarrekin aritu dira bertsotan, eta baita Aramaioko bertso eskolako lagun batzuekin ere. Agirreren ustetan, "horrek, gutxienez, txapelketaren barruan sentitzen" laguntzen du, eta Abarrategik erantsi du "etxeko lanak eginda" joango direla saioetara.

Haren kasuan, gainera, lehen aldia izango du Euskal Herriko Txapelketa Nagusian, eta herrikideak, bigarrena, 2013an aritu baitzen.

"Zortzi urte baino gehiago igaro dira ordutik, eta orduan nintzena eta gaur naizena oso pertsona ezberdinak dira", kontatu du Agirrek. Bertsolaritzarekin duen harremana ere "oso bestelakoa" dela adierazi du, eta orduko esperientzia ez dela harrentzako erreferentzia bat. Beraz, orain, espero du "saio ona" egitea. "Hori beti esan ohi dugu, baina benetan nahi dugulako da, ez da klixe bat". Are, nabarmendu du lurraldeetako txapelketetan elkar ondo ezagutu ohi dutela, eta erlazioa ere badagoela bertsolarien artean, baina, oraingoan, denak ezagututa ere, ez dutela harreman berbera bertsokide guztiekin.

Hain justu, Amaia Iturriotz, Haritz Mujika, Iban Urdangarin, Miren Artetxe eta Xabat Galletebeitia arituko dira bertsotan oholtza gainean Agirrerekin batera, eta Agin Laburu, Nerea Elustondo, Eneko Lazkoz, Oihana Bartra eta Unai Mendizabal, berriz, Abarrategirekin. "Ziur-zenik, Euskal Herriko txapelketak aukera hau emango ez balit, agian, zaila izango litzateke jende horrekin plazan elkartzea; aukera polita da", aipatu du Abarrategik. Are, jendeak esan ohi dio bertso saioak "oso itxura polita" duela, eta, beraz, ziur dago guztien artean "kimi-ka" lortuz gero, eta tentsio eta urduritasunak kontrolatuz gero, "oso ondo" aterako dela.

Aldaketaren unea

2022ko Euskal Herriko Txapelketa Nagusian, gainera, azken urteetan ohikoak izan diren

aurpegi batzuk faltako dira, parte ez hartzeko erabakia hartuta. Beraz, bi bertsolariek uste dute aldaketarako unea izan daitekeela. "Jende bat lehenengo lerrora pasatzeko urtea izango da. Agerikoa da, azken txapelketako finalean egon ziren batzuk ez direlako egongo, eta plaza batzuk hutsik gelditzean, borroka egoten delako", esan du Agirrek. Eta, erantsi du bertsoan egiteko "beste estilo batzuk" ere espero dituela. Horrek, gainera, jarraitzeko "gogotsu egotea" sorrarazten dio.

Bertsokidearen eran, Abarrategik ere uste du "aurpegi berriak" ikusteko aukera egongo dela aurtengoan, lurraldeetakoetan jada hainbat izan direlako agertu direnak ere, hala nola Saioa Alkaiza Nafarroan eta Nerea Ibarzabal Bizkaian. Uste du hori bertsolaritza "osa-suntsu" dagoen adierazle dela, eta "garrantzitsua" dela "azpitik" jende berria datorrela ikustea, urteetan aritu direnek albo batera pauso bat emateko erabakia hartzearekin bat. "Gurpila ez dadila gelditu; dena joango da aurrera".

Gurpil horretan arituko dira, beraz, bi aramaioarrak ere, Txapelketa Nagusian parte hartuko duten debagoiendar bakarrak. Baina egongo dira beste 39 bertsolari ere. Dena den, abenduaren 18an jakingo da nork jantziko duen aurtengo euskal bertsolaritzaren txapela.


41 BERTSOLARIK HARTUKO DUTE PARTE, ETA ZORTZI IRITSIKO DIRA IRUÑEAN EGINGO DEN FINALERA

Irailak 24
Abenduak 18

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA 2022**

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus



Antolatzailea:  bertsozale
Laguntzailea:  goiena

"Publikoa hunkitu du 'Hazia' ikuskizunak"

MIGUEL ANGEL LASPIUR ARIZMENDIARRETAREN LAGUNAK ELKARTEKO LEHENDAKARIA Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartek eta Gontzal Mendibilek ondu dute 'Hazia', eta sustatzaileek uste dute apaizaren pentsamendua zabaltzen lagun dezakeela lanak

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ARRASATE

Mondragon korporazioko enpresa kooperatiboaren sustatzailea izan zen Jose Maria Arizmendiarría, eta haren bizitza eta obraren irakaspenak oinarri dituen *Hazia* musikala aurkeztu zuten joan den asteburuan, Arrasateko Amaia Antzokian. Gontzal Mendibilek eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartek sortutako ikuskizuna da, eta Miguel Angel Laspiur lehendakariak orduko sentsazioak izan ditu gogoan.

Bi emanaldi eginda estreinatu zenuen musikala. Zer moduz?

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Zalantzarik gabe, arrakasta izan du. Uste dut publikoa harritu eta hunkitu egin zela, jendeak ez baitzuen espero maila horretako ikuskizun bat.

Gainera, publikoaren artean baziren kooperatiba munduko kideak ere. Politikariak zeuden, eta, besteak beste, baita Mondragon Taldeko batzuk ere. Egia da aretoa ez zela guztiz bete, baina, dena den, aurreikuspenak bete egin ziren. Apaiz baten bizitzaren inguruko ikuskizun bat izanik, batik bat, jende gaztea gerturatuko ez zen beldur ginen, baina erantzun dute. Horren adierazle da lehen eguneko emanaldian, larunba-



